

2016-10-21 EGUBAKOITZA / 701. ZENBAKIA / 16. URTEA
DEBAGOIENeko DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Bultzada teknologikoa komertzio txikiei

Azaroan abiaraziko da 'Merkatari', bezeroa bertako denda fisikora gerturatzea helburu duen mugikorretarako aplikazioa / 4

Aretxabaletako parte hartze ordenantzan herritarren ekarpenak landuko dira martitzenean / 20

Huhezitik 7.000 ikasle pasatu dira 1976an zabaldu zutenetik, Irakasle Eskola modura / 6

SINADURAK

	ASIER ELORTZA / 26
	IRAITZ AGIRRE ARANGUREN / 8
	MARLU DEOGRACIAS / 30
	GAIZKA ERAÑA / 12
	ALAZNE GURIDI / 35
	YERA SANCHEZ / 20
	MIKEL IRIZAR / 48

 Alberto Santana historialariari elkarrizketa

 Erreportajea gazteen emantzipatzeaz



VW Tiguan berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto

Txotxongiloek Bergara hartu dute

Asteburuan borobilduko dute
XIII. mostra / 40



Karlos Odriozola, Teresa Sala eta Itsaso Azkarate -Taun Taun Teatra-, mostraren aurkezpenean.

8.000 lagunek lehenetsi dute euskara Osakidetzan

Apirilean kanpaina abiarazi zuten Debagoieneko Udalek, euskara elkarteek eta Osakidetzak elkarlanean, debagoiendarrek lehentasunezko hizkuntza gisa euskara eska zezaten bultzatzeko; orduetik 2.000 eskaera egin dira; erronka da 10.000 lortzea

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Hau guztiau aitzindaria da Osakidetza euskalduntzeko ekimen modura. Ez da beste inon ere egiten, Debagoiengan bakarrik. Aurrerapauso oso garrantzitsua da". Halaxe baloratu dute, besteak beste, 8.000 debagoiendarrek eskaria egin izana Debagoieneko ospitalean edo eskualdeko anbulatorioetan-Debagoiengo ESI-lehentasunez erabili gura duten hizkuntza euskara izan dadin.

Apirilean abiarazi zuten *Nik euskaraz nahi dut Osakidetzan* kanpaina, eta orduetik uda ostera arte 2.000 debagoiendar gehiago dira euren lehentasunezko hizkuntza euskara aukeratu dutenak.

Espezialistak ere bai

Ildo beretik, oraingo astean beste aurrerapauso bat eman dute: "Harremanetarako hizkuntzatat euskara aukeratuta egonez gero, espezialistaren batengana joatea tokatzen bada, harreraren dagoen profesionalak, betiere kupoak zainduta, zuzenean profesional euskalduna izendatuko du", esplikatu du Ander Manterolak, Debagoieneko ESIko euskara



Ander Manterola, Nerea Mendizabal eta Itxaro Artola. UBANE MADERA

teknikariak. "Adibide praktiko bat da, ikusteko eskaera egiten bada Osakidetzak ere ahaleginak egiten dituela gero zerbitzua, nahi duenak behintzat, euskaraz jaso dezan", gaineratu du Nerea Mendizabalek, Jardun euskara elkarteko ordezkariak.

Eta lanean segituko dute Osakidetza euskaratzeko ekimenean, erronka berria finkatu dute eta: "Gurako genuke urtea bukatzerako 10.000 izatea euskara aukeratu

dutenak; herritarrek eskaerak egiten jarraitzea gonbidatzen ditugu, oso erraza da -osasun-zentroko edo anbulatorioko harreraren eska daiteke, edo familiako medikuari edo erizainari-", esan du Itxaro Artolak, AEDko ordezkariak.

Debagoieneko udalek, euskara elkarteek eta Osakidetzak elkarlanean abiarazitako ekimena da hauxe; hain justu, duela bi urte eta erdi osatu zuten elkarlanerako mahaitik abiatuta.

55.000 lagun izan ziren Bergaran Kilometroak egunean

"Hemendik zorionak lan egin duten guztiei, bikain atera zen guztia eta eurak gabe ez litzateke posible izango"

Maite Txintxurreta BERGARA

"Oso pozik" azaldu ziren atzo, eguna, Bergarako Aranzadi Ikastolako ordezkariak Kilometroak 2016 jaiak emandakoa baloratzerako prentsaurrekoan.

Gipuzkoako probintzian Bergarak duen kokapena kontuan izanik, "espero baino jende gehiago" etorri zen Kilometroetara, Aranzadi ikastolako zuzendari Ane Barrusok adierazi zuenez. 55.000 bisitari izan ziren, eta horiekin, helburua betetzat jo dute Kilometroetako eta ikastolako ordezkariak. Aurreratu zuten jende horrek diru "dezen-te" utzi zuela zirkuituan zehar. Dena den, datorren urte hasierara arte ez dute jakingo zein den benetako irabazia dirutan, orduan iritsiko baitira fakturak.

Gaineratu zuten arropa salmenta "oso ondo" joan dela, eta Gure Zozketako 40.000 txartel

saltzearen helburua ere gainditu dutela. Seminarioko eraikinean egindako lanen maileguak ordaintzeko erabiliko du Aranzadi Ikastolako dirua.

Etorkizuna bermatuta

Azterketa kuantitatiboaz gain, kualitatiboaz ere egin zuten, eta ondorioa da ikastolen aldeko jaiak baduela etorkizuna, Kilometroetako koordinatzaile Mikel Egibarrek azaldu zuenez: "Kilometroetara joaten den jendeak joaten jarraitzen du, eta jende gazteak ere ikusten du parte hartze beharra". Era berean, herritik herriarendako egindako jai izatearen helburu soziala ere erdietsi dutela esan zuten, eta hori urte osoan zehar igarri dela.

Besteak beste, egunean zein urte osoan Kilometroen bueltan lanean edo laguntzen ibili diren guztiei eskerrak eman zizkieten.



Aranzadi Ikastolako ordezkariak atzo, prentsaurrekoan. MAITE TXINTXURRETA

Euskara aukeratu duten herritarren kopurua, datutan

Udalerrria	Lehen lauhilekoa	Bigarren lauhilekoa
Aramaio	814 %71	830 %73
Arrasate	926 %4	1.445 %6
Antzuola	139 %8	251 %15
Bergara	1.191 %8	1.889 %12
Elgeta	528 %56	611 %65
Oñati	871 %7	1.231 %11
Aretxabaleta	742 %11	940 %13
Eskoriatza	591 %14	719 %17
Guztira	5.802 %8,7	7.916 %11,9

ITURRIA: ELKARLAN-MAHAIA

Fagor CNAREN EREa negoziatzeko hirugarren batzarra

Gaur, egubakoitza, hirugarren batzarra egitekoak dira Edesa Industrialeko -Fagor CNAG-roup- zuzendaritzako eta enpresa batzordeko ordezkariak, Garagartzako plantan ezarri gura duten EREaren baldintzak negoziatzeko -09:30ean-. Oraingo asteko martitzenean izan zuten, hain justu ere, negoziatzeko bigarren bilera, baina bi aldean

artean ez zuten adostasunik lortu.

Zuzendaritzaren proposamena izan zen EREa azaroan bakarrik aplikatzea, garbiketa sailean lau astez, eta egosketan bi astez. EREak eragina izango luke 142 langilerengan, eta bermatuko luke haien soldata %100ean. Enpresa komiteak ez zuen proposamena onartu, uste dutelako EREa bera bakarrik ez dela konponbidea; enpresaren etorkizuna argi dezakeen bideragarritasun plana ere beharrezko ikusten dute.

Gertuko ekonomiaz berbetan, saio berrian

Bergaran grabatu dute 'Ekonomia Gurean' saioaren lehen atala. Foru Aldundiak babestuta, Tokikomek eta Goienak elkarlanean ekoiztuko dute hori eta eskualdez eskualde joateko asmoz sortu da. Eguaztenean eskainiko da lehen saioa, 22:00etan



Urko Aristi, Miren Estensoro, Migel Lazpiur eta Lander Beloki, Bergaran. J.D

Miren Arregi BERGARA

Ekonomia Gurean telebista saioaren lehen atala grabatu dute eguaztenean Bergarako osoko bilkuren aretoan. Urko Aristi kazetariak zuzenduta, Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile Miren Estensoro, enpresaburu eta Confebask-eko presidente ohi Migel Lazpiur eta Enpresagintzako dekanok Lander Beloki aritu dira ekonomiaz. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, Tokikomek eta Goienak elkarlanean ekoiztuko dituzte saioak. Gipuzkoako eskualdeetan saio bana grabatuko da. Datorren eguaztenean emitituko du Goiena Telebistak asteon grabatutako saioa, 22:00etan.

Argazkia eta erronkak

Hain justu ere, ekonomiaren gaur egungo argazkia eta etorkizuneko erronkak izan dituzte berba saioan. Bereziki nabarmendu dituzte honako kontzeptuak; berrikuntza, nazioartekotzea, lehiakortasuna, dibertsifikazioa, prestakuntza eta kualifikazioa, lankidetzaren edota politika publiko egokiak. Etorkizunari begira, itxaropentsu agertu dira Estensoro, Lazpiur eta Beloki.

Debagoieneko ekonomia; ezaugarriak eta erronkak

MIREN ESTENSORO
ORKESTRAKO IKERTZAILEA

"Berrikuntza gaitasun handia duen eskualdea da"

Itxaropentsu agertu da Orkestrako, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile Miren Estensoro etorkizunari begira: "Debagoiena jardura industrial handi bat duen eskualdea da, krisiak ez du beste eskualde batzuetan beste eragin, eta horren arrazoa da espezializazioa". Eta gaineratu du: "Berrikuntza gaitasun handia duen eskualdea da eta horren adierazle da berrikuntza gastua. I+G-aren gastua %4ra iristen da, Hego Korearen maila berdinerak". Nazioartekotzeaz ere aritu da Estensoro eta adierazi du "nahiko argazki polita" ateratzen dela alderdi horretan ere: "Abiadura desberdineko enpresak daude; enpresa txikiak asko dira, baina badaude trakzio handiko enpresak ere". Etorkizunera begira, bestetik, hezkuntza eragileak enpresarekin dialogoan egotearen garrantzia eta lehiakor izateko eta produktu berriak bultzatzeko gaitasuna ere nabarmendu ditu. Lankidetzaz ere aritu da Estensoro eta gaineratu du, erakunde publikoek bultzatu behar luketela hori. Bukatzeko, elementu identitarioak azpimarratu ditu, nabarmenduz debagoiendarrak harro daudela bertako jardura industrialaz eta hori garrantzitsua dela.

MIGEL LAZPIUR
ENPRESABURUA

"Enpresa ondo badoa, Euskadi ondo joango da"

Garai berrietara egokitzeko gaitasunaz berbetan hasi du hitzaldia Lazpiur enpresako buru eta Confebask-eko presidente ohi Migel Lazpiurrek: "1904an nire aitona zapatak egiten zegoen eta nik 18 urte nituela tornu bat erosi genuen. Gaur forja tresneria eta makineria egiten dugu". Eta gaineratu du: "Ingelesa jakitea ezinbestekoa da gaur egun. Lazpiurreko muntatzaileak mundu guztian aritzen dira enpresan bertan ikasitako ingelesarekin". Bestetik, Debagoieneko enpresek elkarrekin lan egiteko gaitasuna erakutsi dutela eta hori oso garrantzitsua dela dio Lazpiurrek eta bailarako indarguneez galdetuta, Debagoieneko enpresen tradizio handia nabarmendu du. Indarguneez soilik ez, ahulguneez ere aritu da eta aspektu horretan, gaur egungo "ziurgabetasuna" azpimarratu du. Gaineratu du enpresa handiak multinazionalen eskuetan jausten utzi duela Debagoienak eta hori hanka sartze handia dela: "Beste herrialde batzuetan etorkizuna zaintzen dute eta guk errazegi saldu ditugu. Eta gaineratu du: "Enpresa babestu behar dugu. Industria ondo badoa, Euskadi ondo joango da".

LANDER BELOKI
ENPRESAGINTZAKO DEKANOA

"Formakuntza etengabekoa izan behar da"

Harrobia eta enpresa uztartuta egotearen garrantziaz berbetan hasi du saioa Enpresagintzako dekanok Lander Belokik: "Kontutan hartu behar dugu formakuntza etengabekoa izan behar dela. Bizitza guztian eguneratu behar ditugu ezagutzak". Eta gaineratu du: "Taldea lan egiteko gaitasuna, lidergotza, malgutasuna... Horiek dira balore garrantzitsuek eta hezkuntza sistemak horretan garrantzia handia du". Debagoieneko indarguneez gainera galdetuta, Belokik dio kualifikazioa eta ezagutza nabarmendu behar direla: "Ezagutzaren inguruan eta ikerketa eta formakuntzaren inguruan lan handia egin da. Oñatiko unibertsitatea, Arrasateko esperientzia, kooperatibagintza...". Globalizazioaz ere aritu da Beloki eta adierazi du gaur egungo gizarteak enpresa lehiakorrek eskatzen dituela, sorkuntzari garrantzia ematen dioten enpresak. Bukatzeko, politika publiko egokiak bideratu behar direla esan du dekanok: "Politika publiko egokiak behar dira eta baita ere espezializazioa. Mundu mailan ibiltzeko gaitasuna izan behar dute enpresek".



Innovation that excites

NISSAN X-TRAIL
22.900 € TIK AURRERA

KONTROLATU EZEZAGUNA DENA.
SORTU BERRIRO ABENTURA.



3 URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA



YOU+NISSAN

GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.

Ezagutu zehaztasunaz Bezeroen Promesa Cliente programa hemen: nuncaconducirassolo.es edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

ARABAUTO Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa: 6,2 l/100km. CO₂ isurpenak: 145 g/km.

*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Ziurtagiriaren araberrako estandarrak dira. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta erosiaren izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SAREN bidez finantzatzeko badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpainak batzuekin eta 16/10/31ra arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionariora. Posible da agertzen den irudia eskaintzako ibilgailuarekin bat ez etortzea.

'Merkatari'-rekin, bezeroak hurbil

Debagoieneko komertzio txikiei bultzada teknologiko bat eman eta, horren bitartez, bezeroa denda fisikora gerturatzea da mugikorrerako aplikazioaren helburu nagusia; azaroko lehen astean martxan jartzea espero dute proiektuaren sortzaileek

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Gaur egun, teknologia berriak abiadura handian hedatzen ari diren garai hauetan, komertzio txikiek teknologiotara egokitze-ko inoiz baino behar handiagoa dute, negozioa aurrera eraman ahal izateko.

Hain zuzen ere, horretan laguntzeko helburuarekin jaio da *Merkatari* izeneko mugikorrerako aplikazioa.

Goiena Komunikazio Taldeak eta ISEA Berrikuntza Zentroak jarri dute abian proiektu hau, Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlanean.

Gainera, bailarako dendari elkarteek proiektu honetan parte aktiboa izan dute. Izan ere, azterketa fasean bailarako zenbait komertzio ibili dira eta orain, ezarpen fasean, Arrasateko Ibai-Arte elkarteko 10 komertziotan jarriko da abian proiektua, azaroko lehen astean, ondoren bailara osora zabaldu ahal izateko.

"Komertzio txikiak merkatu zail baten lehiatzen ari dira gaur egun, zeinetan *Amazon* bezalako plataforma multinazionalak botere handia duten. Merkatu horretan lehiatzea oso zaila da; izan ere, edozein produktu eskuragarri izaten dute eta merke, gainera", adierazi du Juan Mari Okinak, ISEAKo ordezkariak.

Esan bezala, teknologiaren eraginez, bezeroen ohiturak asko aldatu dira. "Tradizionalki, dendaria eta bezeroak gertu egon dira. Hala ere, garaiak aldatzen doaz eta teknologia berriek lortu dute orain arte ezinezkoa zena. Beraz, gu ezin gara atzean geratu eta mundu horretan murgildu behar gara. Ate bat ireki zaigu eta sartu egin behar gara", azpimarratu du Jesus Mari Elkorok, Ibai-Arte elkarteko kideak.

Gertutasuna

Merkatu horretan lehiatzea eta euren alturan jartzea ia ezinezkoa zela ikusirik, gertutasuna bezalako balioak balioan jartzea erabaki zuten sortzaileek. "Helburua da tokiko merkatariek lehiakorak izateko erremintak lortzea, balioan jarrita bezeroaren hurbiltasuna", azaldu du Okinak, eta gaineratu herriko dendariak eskaintzen duen "fideltasuna" ez duela Internetek eskaintzen.

"Herriko dendariak ezagutzen zaitu, badaki zer gustatzen zaituzun eta zer ez, badakizu edozein arazo edukita ere bera hor egongo dela laguntzeko prest", zehaztu du ISEAKo ordezkariak.

Hori horrela, ondorengoak dira komertzioek eta dendariak izango dituzten onurak: prozesuetan eta transakzio komertzialetan denbora aurrezteak, bezeroarekin komunikazioa hobetzea, bezeroa bera hobeto ezagutzea eta, ondorioz, honen erosketa ohiturak ere hobeto ezagutzea.

Bailara osorako proiektua

Hasiera batean, proba modura Arrasateko 10 komertziotan bakkarik jarriko da martxan aplikazioa. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, Debagoien osora zabaltzea da sortzaileen helburua, betiere, funtzionamenduak izaten duen erantzunaren arabera.

"Bailara osora hedatzeko proiektua da, baina garbi dago ezarpena ezin dela egun batetik bestera eta guztia batera egin. Horregatik, pixkanaka zabaltzen joatea da asmoa, erantzuna nolakoa den ikusiz", zehaztu du Koldo Azkoitiak, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradunak.

Arlo komertziala, Goienak

Goiena Komunikazio Taldearentzat proiektu honen parte izatea bailararen garapenarekin duen konpromisoaren parte da. Proiektu honetan, Goienak bezeroengan duen ezagutza eta hauekin duen harremana izan dira oinarriak. "Goienak badauka gure bailarako komertzio guztien gida komertzial bat, eta hori izan da proiektu honetan sartzeko abiapuntua. Izan ere, aplikazioaren datu basea Goienako gida hori da", nabarmendu du Mireia Larrañagak, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari komertzialak. Gaineratu du bailarako komertzio ezberdinekin harremanetan jarri direla, hasierako azterketak egin eta "parte-hartzaileen erantzuna" nolakoa izan den aztertzeke. "Oro har, oso erantzun eta harriera ona izan du proiektuak

**BEZEROEKIKO
HURBILTASUNA DA,
BATEZ ERE, APLIKAZIO
HORREKIN BALIOAN
JARRI NAHI DENA**

**HASIERAN
ARRASATEN HASIKO
DEN ARREN, BAILARA
OSORA ZABALTZEA DA
HELBURUA**

**EDOZEINEK ERABILI
DEZAKE
MUGIKORRERAKO
APLIKAZIOA, OSO
ERABILERRAZA BAITA**

orain arte, balorazioa positiboa da", zehaztu du.

Diru-laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izango du *Merkatari* proiektuak. "Ekonomia sailak urtero kaleratzen ditu deialdi ezberdinak, tokiko ekonomia sustatzeko eta garapen ekonomikoarekin zerikusia duten beste zenbait proiekturi bultzada emateko. Testuinguru horretan, 2014ko deialdian aurkeztu genuen proiektu hau –Goienak, ISEAK eta Debagoieneko Mankomunitateak–, diru-laguntza lortu ahal izateko, eta aldundiaren onepena jaso genuen", dio Azkoitiak.

Halaber, Mankomunitatea izan da diru-laguntza lortzeko eskaera tramitatu duena eta proiektua gauzatu ahal izateko finantzaketa ardura handiena izan duena. "Mankomunitatetik, uste dugu Debagoieneko komertzio txikien biziraupena oso garrantzitsua dela bailarako herriek bizia eduki dezaten", azaldu du Garapen Agentziako arduradunak. Horregatik, erakunde publikoetatik mota honetako proiektuak "babestu" egin behar direla aldarrikatu du.

Udalaren babesa

Arrasateko Udalak, berriz, proiektua babestu du. "Teknologia berriak erabilia, herriko komertzio txikiei bultzada bat emateko balioko du. Bertakotasunaren abantaila balioan jartzen duen aplikazioa da, bezeroa denda fisikora erakartzeko diseinatutako tresna bat", dio Victoriano Fuentesek, Merkataritza zinegotziak.


Erabiltzaileek, balorazioa

Mugikorrerako aplikazio honek ahalbidetuko du erabiltzaileek dendaren edo komertzioaren gaineko balorazioa eman ahal izatea. "Balorazio honen bitartez, merkatariek gauzak ondo edo gaizki egiten ari den jakin ahal izango du", dio Okinak.

Erabilerraza

Aplikazioa sortu duen Ideable enpresako kide Iñaki Bartolomeren esanetan, edozeinek erabili dezakeen aplikazioa da *Merkatari*. "Merkatariek ordenagailuan eta haien mugikorreran erabil dezakete eta bezeroek, berriz, haien mugikorreran. Erabilerari dagokionez, oso erraza da", azaldu du.





Mugikorrerako aplikazioa erabilerraza da. IÑAKI ITURBE

Parte-hartzaileen hitzak



JUAN MARI OKINA ISEA
BERRIKUNTZA ZENTROA

"Bezeroen hurbiltasuna balioan jarri nahi dugu"


"Orain arte, dendari txikiek egin dutena da handien erreminta berekin lehiatu. Baina saiakera horiek porrot hutsa izan dira, oso zaila delako handiekin lehiatzea. Horregatik, *Merkatari*-n, ez dugu hori planteatzen, atzera bota dugun zerbait da. Teknologia erabili gura dugu, bai, baina helburu desberdinarekin, bezeroa dendara hurbiltzeko helburuarekin, hain zuzen. Komertzio txikiek eskaintzen dizuten fideltasuna da balioan jartzen duguna, gehiago ordaindu arren, produktu horren balorea askoz handiagoa baita".



MIREIA LARRAÑAGA GOIENAKO
ZUZENDARI KOMERTZIALA

"Goienaren filosofiarekin guztiz bat dator proiektua"

"Goiena Komunikazio Taldearen oinarrietako bat da aldaketetara egokitzea. Hainbat arlotan dihardugu 2017rako prestatzen eta begirada 2020an jarrita. Internetek aukera berriak zabaldu ditu eta Goienan argi daukagu aldaketok komunitatearekin batera egin behar ditugula. Gidaren telefonoetarako bertsio eguneratua da pilotatzen ari garena eta emaitzak ikusiko ditugu laster. Horiek guztiak analizatuko ditugu proiektu honetako parte diren merkatariekin, eta hobetzen jarraituko dugu".



KOLDO AZKOITIA GARAPEN
AGENTZIAKO ARDURADUNA

"Ezinbestekoa da merkataritza txikien biziraupenerako"

"Debagoieneko Mankomunitatetik, merkataritza txikien aldeko kanpainak bultzatzen ahalegindu izan gara beti. Gure apustuetako bat da, sinesten dugulako merkataritza ezinbestekoa dela eta gure herriek bizitza eduki dezaten, merkataritza txikiak ere hor egon behar direla. Gure ustez, erakunde publikoetatik mota hauetako proiektuak babestu egin behar ditugu. *Merkatari* elkarte desberdinekin honi buruz hainbat bilerak egin ditugu eta *feedback* hori jaso ahal izan dugu. Horrez gain, finantziarioa ere guk tramitatu dugu".



JESUS MARI ELKORO IBAI-ARTE
ELKARTEKO KIDEA

"Ohiturak aldatzen doaz, eta gu egokitu egin behar gara"

"Garaiak aldatzen doaz eta teknologia berriek lortu dute orain arte ezinezkoa zena. Beraz, gu ezin gara atzean geratu eta mundu horretan murgildu behar gara. Merkatarik aukera ematen digu, gertuko indar guztiak metatuz, aurrera egiteko. Inbertsio handiak egiteko gaitasunik ez dugu, baina, indarrak metatuz, gauza txukun bat egitea posible da. Ibiliaz ikasiko dugu bidea. Ate bat irekitzen bazaizu, sartu egin behar zara, ea barruan zer dagoen ikustera eta aztertzea".



IÑAKI BARTOLOME IDEABLE
ENPRESAKO KIDEA

"Edozeinek erabili dezakeen aplikazioa da"

"Beti ikusi dugu auzoko merkatarientzat oso zaila dela *Amazon* edo *Inditex*-en kontra lehiatzea. Ez daukate hainbeste diru Interneten lehiatzeko. Orduan, teknologia beste modu batean erabiltzea erabaki genuen. Aplikazio honekin, mezuak bidali ditzakete, promozioak jaso, artikulua mugikorretan bilatu eta iritziak eman eta jaso ere bai, beti hurbiltasun hori mantenduz. Merkatariek bezeroekin daude, baina ez denda bakarrik, etxean ere bai. Gainera, oso erraza da erabiltzeko".



VICTORIANO FUENTES
MERKATARITZA ZINEGOTZIA

"Bertakotasunaren abantaila balioan jartzen du"

"Arrasateko Udalak *Merkatari* bezalako aplikazio baten berri izan zuenean, babestu beharreko proiektu bat zela iruditu zitzaion. Izan ere, teknologia berriak erabilita, herriko komertzio txikiei bultzada bat emateko balioko du. Bertakotasunaren abantaila balioan jartzen duen aplikazioa da, denda txikien zerbitzua hobetzeko eta bezeroa denda fisikora erakartzeko diseinatutako tresna bat. Komertzio txikiek mota honetako bultzadak behar dituztela uste dugu".

Bailarako udalek 1,32 milioi itzuli behar dituzte

Udal Finantzaketa Foru Fondoaren itxiera aurreikuspena aurrekontua baino baxuagoa denez, udalek dirua bueltatu beharko dute; hala ere, badirudi Debagoiengan arazo larririk ez dela sortuko, udalek zuhurtziaz jokatzeko baitute aurrekontuak egiterakoan

Leire Kortabarria DEBAGOIENA

Debagoieneko udalek 1,32 milioi bueltatu beharko dizkiote Foru Ogasunari, 2016ko Udal Finantzaketa Foru Fondoaren aurrekontu itxierak ez dituelako aurreikuspenak bete. Hori gertatu da Foru Ogasunaren zerga-bilketa ez dela aurreikusi adinako ona izan.

Urrian, urteko ekitaldiko aurrelikidazioa edo itxiera aurreikuspena egiten du Foru Aldundiak, eta horren arabera, urte hasieran egindako aurrekontua errebisatzen da. Kasu honetan, 2016ko Udal Finantzazio Foru Fondoaren aurrekontua 458 milioi pasakoa zen urte hasieran, eta itxiera aurreikuspena 451 milioi pasakoa da. Gipuzkoako 88 udalek, denetara, 7 milioi pasatxo bueltatu behar izango dizkiote Foru Ogasunari. Ahal-dun nagusi Markel Olanok esan duenez, ordea, urteko laugarren ordainketa, azarokoa, aurreikusi moduan egingo da, eta doikuntzak edo diru itzulerak otsailen egingo dira.

Martitzenean jakin zen itxiera datua, Gipuzkoako Finantzen Kontseilua egin zenean. Ahal-dun nagusi Markel Olanok eta Ogasun eta Finantza diputatu Jabier Larrañagak Batzar Nagusietan eman zituzten azalpenak. Olanok

"hazkundearen eta zuhurtziaren" bidean kokatu zuen aurtengo datua.

Bailarako, 2016ko aurrekontua 39,2 milioikoa zen, eta itxierak 38,6 milioiko zifra utzi du.

Foru arduradunek azpimarratzen dute "nahiz eta aurreikuspena jaitsi, udalek jasoko dutena 2015eko likidazioa baino altuagoa" dela: % 3,38 altuagoa.

2017ko aurrekontuaren berri ere eman du Aldundiak: 467,6 milioi euro, "inoizko UFFFrik handiena", Markel Olanoren esanetan. Debagoieneko udalek 40 milioi euro pasa jasoko dituzte, aurreikuspenak betetzen badira.

MARIA UBARRETXENA: "ZUHUR JOKATU DUGU ETA ITXIERA ZUZENA IZANGO DA"

MIKEL BIAIN: "UFFF-REN AURREIKUSPENAZUZENA DELA SUPOSATZEN DA"

Alkateen balorazioa

Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak esan du Arrasateko Udalean "lasai" daudela, izan ere, aurrekontuak egiterakoan, "zuhurtziaz" jokatzeko dute. Horregatik, "itxiera zuzena" izango dute finantza aldetik.

Desbideraketaren gainean, honako hau dio: "Beti gerta daitezke horrelakoak: aurreikuspenak erretzen dira, urte erdian badirudi diru gehiago egongo dela, baina gero urte bukaeran behar bada ez da horrela... Barremo baten barruan jokatu behar da, eta jakin, horren barruan gora edo behera egin dezakeela". Azpimarratzen du "zuhurrak" izan behar direla erakundeak, eta Foru Aldunditik "urte osoan" udalei bidaltzen zaien mezua horixe dela.

Oñatiko alkate Mikel Biainek esan du udalek "espero ez" zuten "albiste txarra" dela honako hau: "Aurrekontuak egitea ez da erraza izaten eta udal guztiok gaude UFFFri begira; suposatzen dugu aurreikuspenak zuzenak direla, sustoak egon ez daitezken, gero udal batzuek arazoak izan ditzaketelako". Gaineratu duenez, "zuhurtziaz jokatzeko" eskatzen die Aldundiak, baina "gero nahi izaten da zifra on bat eman, eta horrekin kontuz ibili behar da".



Ramirez de Okariz, Atxa, Pedrosa eta De Bilbao martitzeneko aurkezpenean. GOIENA

Liburuan eta irudietan jasota, Irakasle Eskolaren 40 urteak

Huhezitik 7.000 ikasletik gora igaro dira 1976az geroztik eta liburuak aurkeztu dute urteurrena ospatzeko

Eneko Azkarate ESKORIAITZA

40 urte dira Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zela, gaur egungo Huheziren ernamuina. Hori dela eta, MUko fakultateak urtemuga ospatuko du datozen hilabeteetan. Udaberriaren egingo dituzte hainbat ekintza ludiko eta akademiko, baina oraingo astean aurkeztu dute eskolaren historia eta mugariak jasotzen dituen liburuak. *40 urtean euskal gizartean eragiten. Irakasle Eskola-Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Huhezi)* izenburupean, Iñigo Ramirez de Okariz ikertzaile eta irakasleak egindako liburuak datu, grafiko eta argazki ugari jasotzen ditu. Ikasleek egindako ikus-entzuzkoak ere aurkeztu dute.

Beti erronkei erantzuten

Eskoriatzako Irakasle Eskola 1976an sortu zen, "garai hartako hezkuntza-sistemak aurrean

zuen erronkari erantzuna emateko: irakasle euskaldunak sortzea", Ramirez de Okarizek gogoratu duen moduan. Ordutik, eta 1997an Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtuta, guztira 7.058 ikasle hartu ditu. Ikasle horiek Aretxabale-tako eta Eskoriatzako campusetan lortu dute euren titulazioa. Horietatik, 6.071 Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduatu dira.

Begoña Pedrosa Huheziko dekanok nabarmendu du beti aurrean egoteko eskolak eta fakultateak egindako ahalegina, eta fakultatearen ezaugarriak azaldu ditu: "Unibertsitate-bizitzako esperientzia berezia, metodologia aktiboetan oinarritua, kooperatibismoaren balioak oinarri dituen pertsonen prestakuntza, euskaldun identitate batekin eta nazioarteko beste esperientzia batzuei irekia".

MUK ere lagunduko du Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzen

Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu du Mondragon Unibertsitatearekin, *Etorkizuna Eraikiz* programaren baitan, langileen partaidetza nola sustatu ikertzeko. "Hurrengo hamar urteetara begira, Gipuzkoak zer egin behar duen zehaztu nahi dugu, gizarte eragile guztiarekin, modu konpartituan eta ikuspegi praktikoa batekin",

adierazi du Markel Olano ahal-dun nagusiak. Olanoren ustez, ezinbestekoa da langileen parte hartzea enpresetan, baita kapitalari dagokionez ere.

Hitzarmenaren arabera, MUko hiru fakultateetako ikerlariak ariko dira lanean, Bixente Atxa errektoreak adierazi duen moduan. Haiek ikertuko dute Gipuzkoako enpresetan langileen parte hartzea "zein den" eta "zein eragin" duen parte hartze horrekin enpresen negozioen "jasangarritasunean eta lehiakortasunean".

Udal Finantzazio Foru Funtza

Herria	2017 aurrekontua*	2016 aurrekontua	2016 itxiera	Aldea	%
Arrasate	14.047.880	13.775.077	13.561.278	- 486.602	↓ 3,59
Bergara	9.398.727	9.259.640	9.115.924	- 282.803	↓ 3,10
Oñati	7.194.868	7.049.618	6.940.204	- 254.664	↓ 3,67
Aretxabaleta	4.434.950	4.365.111	4.297.362	- 137.588	↓ 3,20
Eskoriatza	2.608.237	2.553.927	2.514.288	- 93.949	↓ 3,74
Antzuola	1.390.131	1.364.651	1.343.471	- 46.660	↓ 3,47
Elgeta	710.918	700.876	689.998	- 20.920	↓ 2,03
Leintz Gatzaga	223.755	223.511	220.042	- 3.713	↓ 1,69
Debagoiena	40.009.466	39.292.411	38.682.567	- 1.326.899	↓ 3,05

*Aurreikuspena da.

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Iruzkin anaikorra

JOSE ANTONIO VILLAR

KOMUNIKAZIO GAIEI BURUZKO IKASLE
IRAUNKORRA
ARRASATE

Lehenengo egun batean irakurri nuen *Ameriketara joan ziren...* izenburuarekin Iñaki Galdosek idatzitako txostena *Puntu* astekarian.

Bere mezuarekin erabateko adostasuna adierazi ondoren, gaiak sorrarazten dizkidan iruzkinak nahi nituzke partekatatu, Iñaki berak aipatzen dituen baieztapen biren muinari egiten dizkiodan interpretaziotik abiatuz: bata, *"lobby-ak ez dira berez gaiztoak"*; eta bestea, *"lobby-ak beharrezko ditugu, bereziki eta batez ere Ipar Amerikan, bertako gure lagun esanguratsuen bultzadaz baliatuz, Euskal Herriaren izaera berezia mundu osoaren ezagutzara eta onarpenera hedatu dadin eta dagozkion eskubideak bermatu daitezen"*.

Ez daukat inolako zalantzarik, *lobby*-en beharra daukagu, munduan nor izan nahi badugu.

Ezta beste adierazpenaren zuzentasunari buruz ere: *lobby-ak ez dira gaiztoak*, beren helburuak eta helburu horietarako ariketak eta ahaleginak gaiztoak ez badira.

Baina hemen aurkitzen dut arazo baten gakoa, eta galdera bidez aurkeztuko dut: ondo dakigu edo soilik badakigu arrazoibidez frogatzen gure helburuak eta horretarako ahaleginak ez direla gaiztoak, baizik eta eskubide ukaezinaren ondoriozkoak?

Ni ezezkotan nago esperientzia oso luzearen ondorioz.

Gure etxetik bertatik hasi eta batez ere Espainia eta Frantzia osoan ditugun arerio indartsuak –eta ez zait *etsaiak* deitzea ateratzen– behin eta berriz ari dira gure herriari, gure kulturari, gure hizkuntza bereziari buruzko proiektuen gaiztotasuna salatzen eta dagokien finantzaketa eragozten edota galarazten.

Eta nola erantzuten diegu? Gure sentimendu soiletan

oinarritutako adierazpenekin? Era horretara erantzutea nahikoa al da?

Oraindik erabaki gabe dituzten Espainiako hauteskundeak direla-eta gauzatu diren eztabaidetan, adibidez, ez dut sumatu gure ordezkarien maila onik besteen erasoei erantzuterakoan. Hizkuntzari dagokionez, eskubide ukaezinei dagokienez eta beste hainbat gauzari buruz ez ziren gureak irabazle izan eta besteek bere horretan jarraitzea zilegi dute oraingoz.

Nire iritzia: ezin izango ditugu inoiz gure sentimenduetara erakarri, eurona askoz ere indartsuagoa delako, hain zuzen ere, baina gure eskubideak onartzerak behartu ditzakegu, ahalik eta azkarren arrazoibide logikoa erabiltzean trebatzen bagara, zeren arrazoiak eta arrazoiak izan, baditugu.

Eskerrik anitz, xiberotarren partez

RENEE HARBUSTAN

ARRASATE

Bi egun pasatu diren arren, zapore eta sentsazio onez, alaitasunez beterik jarraitzen dugu.

Hau da, joan zen larunbatean, Xiberoko eguna ospatu genuen. Egundorobila, bi kulturen artean giro ezin hobea sortzen zen. Goizean, Iparraldeko saltzaileen postuetara jende ugari hurbildu zen, interes handia erakutsiz.

Xiberotarrak oso kontent joan dira, bada, salmenta oso ona egin dutelako, baina batez ere pozik daude harreman bikainak lortu izanagatik.

Poteoan eta bazkarian, Portaloiko taldearekin, kantu batean denak elkarrekin aritu ginen. Eta honekin batera, xiberotarren partez, egun hau antolatzen lagundu duten guztiak eskertu nahiko nituzke:

-AEDko Itxaro Artola, Unai Bergaretxe, Aitor Juaristi, Aitor Iturriaga, Arantza Otaduy, Maitena Arana, lan handia eta bikaina egin duzue, milesker.

-Arizmendiko Aitor Elizaran, milesker zure laguntzagatik.

-Mondragon Taldeko Ander Etxebarriari eta zapatuan azalpenak eman zituen Iñigo Iñurrategiri, zure jakintza partekatzeagatik, milesker.

-Jai Zaleko eragile eta tabernariari, zure eskuzabaltasunagatik.

-Portaloikoei, zuei ere milesker.

-Eta baita interes handiz hurbildu zaretenoi ere milesker.

Xiberotarrekin harremanen trukea izatea lehen pausoa izan da, Xiberoko Beñat eta Manex esaldi honekin agurtu ziren. "Bai, hurrengoan Xiberoko eta xiberotarrak ezagutzeko aukera izango da".

Mugikorra 30 minutu baino gehiago ez

JOSE GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Jose Reyes de la Cruz neurologo eta pediatra mexikarraren arabera, mugikorra egunean 30 minutu baino gehiago erabiltzea osasunarentzat kaltegarria da.

Mugikorraren erradiazio elektromagnetikoek belarri inguruko atalak berotzen dituztela dio, eta entzumen arazoak sortzen direla; batez ere, doinu agudoetan osatu ezinezko kalteak sortu daitezkeela.

Aholkua: mugikorra ahalik eta gutxien erabili, eta, erabiltzerakoan, belarritik ahal den urrunen edota esku askeekin erabili; eta ez dugunean erabiltzen, baina piztuta badago, sakelari ez erabili. Hobe da poltsa, bandolera edo antzerako baten, gorputzetik urrun.

Hobe zuhaitzak gure inguruan mugikorrak baino.

Zorionak, UDA!

ADRIAN MERINO ETA AGURTZANE ELKORO

UDA-KO PRESIDENTEAK
ARETXABALETA

Zorionak UDAko kirol sail desberdinetako arduradunei,

zuen lanerako ahalmen amaiezinagatik.

Zorionak babesleei, zure laguntza ekonomikorik gabe ezinezkoa bailitzake hau guztia gauzatzea.

Zorionak UDAko hezitzaile, teknikari eta entrenatzaileei, proiektu honetan parte eta horren eredugarriak izatearren.

Zorionak Igorri, abangoardiako kluba izateko urte hauetan guztietan egin duen guztiagatik.

Zorionak herriko beste elkartei, UDAko egitasmoekin bat egiteko jarrera bikainagatik.

Zorionak Aitorri, 70 urteren ostean aitona egindako ereserkia eguneratu eta gaur aurkezteko egin duen lanagatik.

Zorionak Udalari, UDaren helburuak bereak egin eta arduraz jokatzearren.

Zorionak UDAko 1.000 bazkideei, UDaren bihotza eta arima izateagatik.

Zorionak UDAzale aretxabaletar eta kanpotarrei, UDAko *azul celestea* jantzi eta munduan barrena harrotasunez defendatzearren.

Zorionak UDAko jokalariei, beraien gozamen guztion ilusio bihurtzearren.

Eta zorionak UDAko zuzendaritzako kideei, zure lana, dedikazioa eta esfortzua kalifikatzeko behin eta berriz adjektiborik gabe uzteagatik.

Benetan, zorionak 70 urte hauetan UDaren alde lan egin, UDAn sinetsi eta UDA gozatu duzuen guztioi. Arrakastaz beteriko beste horrenbeste urte opa dizkizuegu guztioi. Zorionak denoi!

Eta "munduari esan, galtzen badakigun arren, irabazle jaio ginela". Aupa, UDA!

Zer gara?

IÑIGO BEITIA

ESKORIATZA

Jada tesi gai izan daitekeen Gipuzkoa eta zaborren *arazoaz* mintzatzerako nator, iritzi artikulua bat idazten dudana lehen aldi honetan. Beharbada gaia errepikakorren den arren, garrantzitsua dela

uste dut, errauskailuaren proiektuak aurrera jarraitzen baitu.

Inposaketa hitza famatu egin zen atez atekoa ezarri zen garaian, herritarren borondatea entzun gabe jarri zutela esanez. Nik dakidala, egun ez da errauskailuaren gaineko galdeketerik egin behar. Hau pentsatzean inposaketaren aurka zeuden horiek etortzen zaizkit burura. Non daude? Atez atekoa inposaketa izan bazen, hau ere bada.

Herritarrek eskubidea dute adituek zaborra kudeatzeko pentsatutako formula desberdinen artean aukeratzeko; hala ere, errauskailua ezin da horietako bat izan. Gaur egun gaiaren gainean dugun informazioa eta alternatiba guztiekin, ez du inongo zilegitasunik errauskailu bat egitea planteatzeko.

Zaborraren kudeaketan ere, ingurumenaren zaintza izan behar delako irizpide nagusia.

Ez dago zalantzarik gizateriak daukan arazo –edo erronka, ikuspuntuaren arabera– handienetariko bat krisi ekologikoa dela. Orain arteko politikari eta adituek –orokorrean– zoritxarrez asmo onak erakutsi bai, baina ekintzak alde batera utzi dituzte. Esango nuke belaunaldi gazteek hobeto eramango dutela gaia etorkizunean, Agenda21aren belaunaldia izango baita. Gurera etorri, pozten nau kezaka ibiltzen ziren horiek esertzean, beste batzuk *zutitu* direla ikusteak.

Aristotelesek behin eta berriz egiten duguna garena esan zuen; berarentzat, orduan, bikaintasuna ez da ekintza soil batetik eratzen, ohituretatik baizik –atez atekoak eskatzen zuten ohitura aldaketak bikaintasunaren bidean jarriko al gintuen?–. Egin beharreko bidea zein den dakigunean eta egiten diren ekintzek aurkako norabiderantz eramaten gaituztenean –errauskailua kasu– Aristotelesen esaldia etortzen zait burura: zer gara? Norberak pentsa dezala!



ZABALIK

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN GOIENA.EUS/KOMUNITATEA

'Abusoiak' eta gehiengo konplizeak

Ikasgelako hirugarren ilaran eseriko zen, gehienetan bezala uzurtuta. Irakaslea etorri aurreko tartean, zapaltzaile edo *abuso* bat edo bi gerturatu eta egunero ohi zuten bezala, indarrez emango zioten kaskatekoa. Bakean uzteko eskatuko zien, baina beste ikaskide batzuek barre egingo zuten, beste batzuek txalo. Ostikadaren ostean, ezetz esango zuen, nahikoa zela, eta norbaitek aho txikiak esango zuen *aski da* bat. Baina bakar bat gutxiegi da hainbat gauzari aurre egiteko. Umiliazio horren aurrean ez-ikusiarrena egingo genuen gehienok, kontuak gurekin zerikusirik izango ez balu bezala.

Bullying-aren gaia irtetzen den bakoitzean, atzera begira jarri eta neure burua ikusten dut antzerako eszena baten aurrean. Indarkeria maila handiko egoera baten aurrean isilik, ezer egin gabe edo zer egin asmatu barik.

BIDEOA IKUSI DUTENEK ONDO ENTZUN EI DUTE EZEZKOA; EZETZ, EZ GRABATZEKO


Bagenekien zein gogorra zen taldeak ez onartzea. Beldur horrekin hezi gaituzte. Eta hor sortzen dira gehiengo isilik, indarkeriaren eta berau darabilten konplize izan ohi diren gehiengo konplizeak.

Konplizitate arriskutsuek bizitzako esparru eta momentu askotan hartzen dute forma. Azken asteotan mugikor batetik bestera, kontaktu taldeak taldera, milaka pertsonak partekatuta eta komentatu duten bideo famatuegi bat izan daiteke horren adibidea. Ezetz dio neskak bideoan, ez grabatzeko, eta beraz, publiko ez egiteko. Baina egunero Atxabalpera datozen bik grabatu egin dute. Eta lagunartean zabaldu. Bideoa ikusi dutenek ondo entzun ei dute ezezkoa; ezetz, ez grabatzeko. Eta bideoa neskarentzat umiliagarria izan daitekeela jakin arren, barrezka, txaloka edo isilik, beste kontaktu talde batera bidali dute. Eta horrela, milaka aldiz.

Horrela elikatzen ditugu gehiengo konplize horiek, besteen kontrako jazarpenari ez-ikusiarrena eginez, gurekin zerikusirik ez balute bezala. Nago, tamalez, *abuso* irabazten utzi diegula oraingoan ere.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE GOIENA.EUS/KOMUNITATEA



ZEUK ESANA

Herritarren iritziendako tartea

Ubane Madera DEBAGOIENA

GOIENA ALDIZKARIA berritu honetan, herritarren iritzia partekatze honako tarte hau sortu dugu. Bogan dauden, zeresana eragin duten eta orokorrean interesa pizten duten gaien gainean nahiko genuke herritarrei iritzia edo pentsatzen dutena adierazteko gunea eskaini.

'Goiena.eus'-en eta 'Puntua' aldizkarian ere bai Astero galdera bat planteatuko dugu, Goiena Klubeko bazkideek jasotzen duten *Puntua* aldizkari *Iritzia* saileko *Eztabaida* atalean planteatuko den berbera. Egubakoitzetan argitaratuko dugu galdera hori *Goiena.eus* atariko eskumako zutabean, eta bertan ere eman ahalko da erantzuna. Hurrengo asteko GOIENA ALDIZKARIAN erantzun horietako batzuk argitaratuko dira.

Datorren asterako galdera: ETAREN ondorena pentsatzen/irudikatzen zenuen modukoa da?

Atzo, urriak 20, eguna, bost urte bete ziren ETAK bere jardura armatua bukatutzat eman zuenetik. Euskal Herriko errealitatea asko aldatu da ordudunik, baina ez nahikoa, askoren ustez. Ados zaude? Zer falta da? Zeinen esku dago falta den hori gauzatea?

HURRENGO ZENBAKIAN: ETA-REN ONDORENA PENSATZEN/IRUDIKATZEN ZENUEN MODUKOA DA ?

Iritzia emateko: Posta elektronikoa: berriak@goiena.eus / Goiena.eus webgunea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura), Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.
Administrazioa
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Ibane Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Goiatz Arana.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Gidaliburua eskubaloiko edozein epailerendako da"

PABLO GARTZIA EPAILEA

Mireia Bikuña OÑATI

Edozein mailatan diharduten epaileendako gidaliburua kaleratu berri du Pablo Gartziak (Oñati, 1978). Eskubalo jokalarari eta entrenatzaile izandakoa, epaileekin dabil lanean azkenaldian. Azken bi urte eta erdiko lana batu du. **Eskubalo epaileendako gidaliburua da zehazki. Zergatik eurenendako?**

Duela bi urte eta erdi hasi ginen Nazional Mailako lau epailerekin lanean. Fisikoki zein behar zituzten zehazten, zer-nolako entrenamendu saioak behar zituzten...

Horiek guztiak lantzen hasi ginen. Laurekin hasi eta hamaikarekin bukatu dugu proiektua. Eurekin landutakoa gidaliburuan batu gura izan dugu.

Nazional Mailako epaileekin egindako lana izanik, gidaliburua edozein epailek erabil dezake?

Bai. Harrobiko taldeekin lan egiten duten epaileetatik hasi eta Asobal ligan edo



Pablo Gartzia, eskuinean, liburuaren aurkezpen ekitaldian. PABLO GARTZIA

Europa mailako txapelketetan dihardutenetaraino. Epaile guztiek dituzte behar eta betebeharrak. Azken finean, era praktikoa azaldu ditugu egin daitezkeen

ariketak. Edonork egiteko eta lantzeko moduan. **Zer batu duzue gidaliburuan?** Denboraldi-aurretik hasi eta denboraldia nola presta daitekeen azaltzen dugu. Kirol urte osoa hartzen duen

prestaketa da. Irailean sasoiaren egoteko egin behar denaz. Eta baita beste gauza batzuk: indarra eta abiadura lantzeko ariketak, luzaketak, esprintak, korrikaldiak...

Era berean, oso inportantea da epaile batendako bidaiak ondo antolatzea: dagokion lekura garaiz heldu, lehiaren aurretik atsedean hartu eta elikatu... Oinarrizko gauzak dira, baina askotan kontuan hartzen ez direnak.

Eta ondorio horietara heltzeko, punta-puntako epaileen testigantzak izan dituzu.

Hala da. Eurekin berba eginda, garbi ikusi genuen halako gidaliburu baten beharra zegoela. Elite mailan diharduten Antonio Merinok, Gude anaiek eta Angel Sabrosok parte hartu dute. Azken horrek azken Txapelaren Ligako eta Olinpiar Jokoetako finalak zuzendu zituen. Era berean, Lehen Mailako epaile diren Jon Ciden, David Mateosen, Markel Garraldaren eta Mikel Burgueraren testigantzak jaso ditugu.

Non eskuratu daiteke gidaliburua?

Bi lekutan: *SilbatoSyrtarjetas*. *jimdo.com* webgunean eta *pgj40@hotmail.es* helbidean. Dagoeneko Argentinatik jaso ditut eskariak.

HAU BE BADOGU!

#Altsasu, 'trending topic' aste osoan zehar

INSURGENTE.ORG

TWITTER ETA FACEBOOK

Sare sozialetan berbetagai nagusia izan da, baita Espainia mailan ere, Altsasun bi guardia zibilek taberna baten izan zuten ustezko eraso. Elkarrekin, alderdi politikoek, hedabideek... Hainbat iritzi eta ikuspegi azaldu dituzte. Hona hemen bi txio esanguratsu.

"Mariano Rajoy: Besarkada bat eta gure animoak Altsasuko Guardia Zibilari bi agentek eraso basatia jaso ostean. Ez da inpunitaterik egongo. MR". (Itzulita)

"Guillermo Toledo: Nik ere kondenatzen ditut benemeritako bi agente mozkor eta agintzailek #Altsasu-ko taberna bateko bezeroak herio-mehatxua egitegatik". (Itzulita)

Emakumerik ez, 'Polifonia Vasca' saioan

@IKUSGAITASUNA

TWITTER

"Emakumeen ahotsak baztertzeko dituen #PolifoniaVasca Errelato nagusia gizonen idazten dute. Horregatik @LISIPESUSA behar dugu".

Emakumeek hedabideetan duten ikusgaitasunaren inguruan diharduten EHuko Ikus-entzun eta Publizitateko irakasle eta ikertzaile taldeak ETBk estreinatutako saioari buruz idatzitako txioa.

Bularreko minbiziaren egunean animo mezuak

@BERGARAKOUDALA

TWITTER

"Gaur Bularreko Minbiziaren aurkako eguna da eta Bergarako Udalak elkartzasuna adierazi nahi die gaixotasunaren aurka borrokan ari direnei".



ITURRI ONETIK

Tafyd krosa ez da egingo aurten

Egutegiz sasoi honetan Arrasateko kaleetan zehar egin ohi den Gaueko Tafyd Krosa aurten ez da egingo. Bederatzigarren aldia izango luke aurten kirola eta herriko parte hartzea sustatzeko asmoarekin, Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak sortutako Gaueko Tafyd Krosak.

Kutsu berezia izan ohi duen lasterketa da Tafyd krosa, iluntzean izanda -20:00etan-, Arrasateko kaleak jendez beteta egoten direlako eta krosak berak ere parte-hartze handia izan du urte hauetan guztietan.

GORA ETA BEHERA



Seme-alabak eskolara oinez "seguruago" semaforoari esker

Oñatiko Udalak San Martin auzoko aldaparen hasieran jarri dituen semaforoak txalotu nahiko lituzke Goiena aldizkariaren irakurle batek. "Besteak beste San Martinetik gure seme-alabak eskolara oinez "seguruago" bidali ahal izateko balio duelako, auzoko biztanleriaren eskaera zen hau", esplikatu du txalotzeko arrazoia oñatiarrak.



Beste 25 urtetarako lana bai Ingurumen Eskolan

Bereziki ikasleekin egiten den lana goraipatu dute, Udala auzoko eraikinak mende laurdena bete dituela; Udala-Besaide-Udala ibilbide homologatuan zehar ondare naturala berreskuratzeko asmoz egin diren lanen berri eman diete herritarrei

Jokin Bereziartua ARRASATE

1991n abiatu zen eta hainbat urtetarako lan finkoa izango duen itxura dauka. Udala auzoko Ingurumen Eskolak badu zeregina. Ume arrasatear gutxi egongo dira Ingurumen Eskolan egiten den lana ezagutzen ez dutenak, herriko ikastetxe guztiekin aritzen dira-eta lanean. Bada, aurten 25 urte bete ditu.

Kontzeptuaren aldaketa

Eskolako zuzendari Kandi Fernandez pozik zegoen urteurrena ospatzeko joan den domekan egin zuten ekitaldi xumean. Duela 25 urte ireki zenetik gauzak askotxo aldatu direla dio: "Ingurumen zentro bat da honako hau, ingurumen heziketa da guk hemen lantzen duguna. Bilakaera esanguratsu bat egon da gizarteak ingurumenaren inguruan duen kontzeptuarekin. Hau da, lehen ingurumena aspektu fisikoetara eta biologikoetara mugatzen zen eta orain ingurumenaz ari garenean ikuspegi askoz zabalagoa dugu. Beste hainbat esparru ere hartzen dira kontuan".

Eskolaren bilakaera

Eskolaren beraren funtzionamendua ere hobetu dela dio zuzendariak: "Egonaldi mota batzuekin hasi ginen eta gaur egun, egonaldiez gain, beste zenbait proiektutan ere murgilduta gaudu". Herriko ikastetxeekin lantzen duten Agenda 21 proiektua da horren adibide garbia: "Duela hamar bat urte hasi ginen eta urtero lantzen dugu herriko eskolekin elkarlanean". Horrez gain, 20 urte bete dituen hondakinen inguruko kanpainarekin ere jarraitzen dute eta urtez urte ekintza berriak integratzen dituzte ikasturteko programan.

Udala-Besaide ibilbidearen berri
Udala-Besaide-Udala ibilbidea PR-Gi 96 izenekoa, 6,51 kilometroKO luzera duena- ezagu-



Herritar talde bat Udala-Besaide-Udala ibilbidean, hilaren 16an. INGURUMEN ESKOLA

DUELA HAMAR URTE HASI ZIREN ESKOLA GUZTIAK BILTZEN DITUEN AGENDA 21 PROIEKTUAREKIN

tzera emateko ere aprobetxatu zuten eguna. Panel informatiboak jartzeaz gain, hainbat elementu berreskuratu dira. "Elur-zuloa, karobia, ibilbidearen hasieran dagoen aska txiki bat, goiko garbitokia... Bi ordutan edozein pertsonak egiteko moduko ibilbidea da, ezagutu beharrekoa", adierazi du Fernandezek.

Ekitaldian izan ziren, 50 bat herritarrekin batera, Udaleko zenbait ordezkari. Tartean, Maria Ubarretxena alkatea: "Ibilbide gidatua oso interesgarria izan da. Ingurumen eskolako teknikarien azalpenak bertatik bertara jarraitu ditugu; aukera ederra izan dugu ibilbide eder hori ezagutzeko eta gauza berriak ikasteko". Goiko bidetik joan ziren Besaidera eta behekotik bueltatu ziren Udalara. Ubarretxenak balioan jarri nahi izan zuen Udala-Besaide-Udala

ibilbidean egin diren lanak: "Beste lekuetan ez dauden parajeak ditugu hemen eta hori balioan jarri beharra dago. Berreskuratzeko lanak egin eta horiek ezagutzera ematea oso garrantzitsua da". Ingurumen Eskolaren lana ere goraipatu zuen alkatea, ikastetxeekin batera belaunaldi berriekin egiten duten lana nabarmenduz: "Ingurumen Eskolak ahalbidetzen du umeek naturarekin zuzenean harremana izatea eta hori beharrezkoa da. Hortaz, Ingurumen Eskola beharrezkoa da".



NEKANE GARDOKI

Maritxuren itzala, Shanghairaino

Zortzigarren urtez jarraian, Maritxu Kajoi Eguna ospatu dute Shanghaiko Euskal Etxean. Urriaren 15ean ospatu zuten, mirari eta guzti: "40. urteurrena dela-eta, jaiaren historiaren gaineko azalpen txiki bat jarri du Maritxuk mahaian, menuarekin eta kantuarekin batera", adierazi du Euskal Etxeko zuzendaritza taldeko kide Nekane Gardoki arrasatearrak.

Musakolako Gazte Eguna bihar, herri bazkari eta guzti

Musakolako auzo alkatetzak laugarren urtez antolatu du 13 urtetik beherakoendako Gazte Eguna. Askotariko ekintzak antolatu dituzte, Herri Eskolan - gazte txokoaren parkean-. Goizean, 11:00etatik aurrera, puzgarriak, aurpegi-margotzea eta *Hi selfie* jolasa izango dituzte. Ondoren, 13 urtetik beherakoendako herri bazkaria egingo dute Herri Eskolako patioan (13:30-14:00); egunean bertan eman ahalko da izena, 10:00etatik 12:30era. Antolatzaileek jakinarazi dute plazak mugatuak direla. Arratsaldean, eguna borobiltzeko, karaokea eta ping-pong zein mahai-futbol txapelketak izango dituzte.

Ibai-Arteren 'Diru Zaparrada' kanpaina azaroaren 15era arte

Ibai-Arte merkataritza elkarteak bezeroak fidelizatzeko kanpaina berri bat abiatu du. *Diru zaparrada* izena jarri diote kanpaina berriari eta martxan dago urriaren 15az geroztik. Hamar eurotik gorako erosketetan, Arrasate Txartelarekin ordaintzen duten bezeroen artean 50 euroko erosketa txartelak zozketa-tuko dira, azaroaren 15era arte. Sariak sistema elektronikoko baten bidez aterako dira, ausaz, eta bezeroak ordainketa egiten duen momentuan jakingo du saritua izan den edo ez. Nahitaezkoa izango da saria sari-banaketa ekitaldian jasotzea; ekitaldi hori azaroaren 19an egingo da, Seber Altube plazan (13:30).

carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA
ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com



EH Bildu udal taldeko bost zinegotzi asteon egindako prentsa agerraldian. MIREIA BIKUÑA

Berdintasun Saileko "utzikeria" salatu dute

EH Bilduk dio Euskal Herrian "erreferente" izan zen Udaleko alor hori "pasibotasun kezkarri" baten sartuta dagoela; genero-indarkeriaren aurkako plana berritzea eskatu dute: "Indarkeria matxistak lan iraunkorra behar du, eta ez argazkiak"

Jokin Bereziartua ARRASATE

EH Bildu udal taldeak agintaldi hasieran salatu zuen Udaleko batzordeak pilotzeak "ondorio larriak" eragingo zituela. Batzordeen eraketa onartzeko oso bilkuran bertan adierazi zuten batzordeen banaketarekin ez zeudela ados. Esaterako, EAJK eta PSE-EEk osatzen duten gobernuak berdintasuna, gazteria, hezkuntza eta kirola batzorde berean pilotzea "larregizkoa" dela salatzen dihardute 2015eko abendua ezker, gutxienez: "Hori gutxi balitz, nahaspila horretako batzordeburuak ogasuna ere kudeatzen du".

Saila, "erreferente" orain arte

Koalizio ezkertiar eta abertzaleak berdintasunaren alorrean jarri du fokua bereziki. Sail horretako "utzikeria" salatu dute talde horretako zinegotziek asteon, prentsa agerraldi bidez.

Azaldutenez, Arrasateko Udaleko Berdintasun Saila "erreferente" izan da Euskal Herrian azken hamarkadetan: "Emakume Txoko zein Jabetze Eskola paregabeak ditugu eta zehazki Emakumeen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Plana aitzindaria izan zen gurean. Plan integral bat da, non prebentzioa, ahalduntzea, arreta protokoloa eta beste zerbitzu asko uzartzen diren".

EH Bilduren arabera, urteen poderioz indarkeria matxistaren

"TENIKARIEN TXOSTENAK ETA ESKARIEK MAHAI GAINEAN JARRAITZEN DUTE ORAINDIK"

kontzeptua eta kontzeptu horren inplikazioak eraldatu egin dira eta horregatik plan hori zaharkitua geratu da.

"Pasibotasun kezkarri"

Horren harira eskatu zuen oposizioko taldeak plan hori eguneratzeko kontratazio bat gauzatzea 2016ko aurrekontuetan. "Baiezkoa eman zuen Udal Gobernuak, horretarako 20.000 euroko partida bat ezarrita. Gaur egun, 2016ko urrian, oraindik ez da kontrataziorik egin, ezta kontratazio prozesurik abiatu ere. Berdintasun teknikarien txostenak eta eskariek mahai gainean jarraitzen dute, aurrekontu saila ukitu gabe eta gobernu pasibotasun kezkarri dago", adierazi du Eneko Fernandez zinegotziak.

Era berean, EH Bilduk kritikatzen du sail horretako batzordeburuak arlo horretan Tolosan egin dena begiratu behar dutela adierazi izana: "Ez al zegoen Tolosan egindakoa duela urtebete begiraterik? Ez al dago gurean nahikoa eskarmenturik? Urtebete galdu dugu; erreferen-

te gara oraindik baina txarretarako erreferente, zoritxarrez".

Azaroaren 25ari begira

Azaroaren 25a gorriz markatutako eguna da egutegian berdintasunaren alde lanean ari diren eragileendako, urtez urte kanpaina ezberdinak eginen dira Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Bada, EH Bilduk dio indarkeria matxistak lan iraunkorra behar duela, eta ez komunikabideetan agertzeko argazkiak ateratzea. "Azaroaren 25ean Udal Gobernuak hor izango da argazkia ateratzen, nola ez. Baina hurrengo egunean indarkeria matxistari aurre egiteko plan integralik gabe jarraituko dugu Arrasaten", gaineratu du Fernandezek.

Mugikortasun plan berrirako, herritarrengana "ezinbestean"

Parte-hartze prozesuan Elhuyar-ek lagunduko du eta ingeniari-tza lanetarako Intra enpresa kontratatu dute

J.B. ARRASATE

Arrasateko mugikortasunari buelta bat emateko asmoz, Mugikortasun Integralaren Plana eratu nahi du Udal Gobernuak. Plana idatzi aurretik, baina, "ezinbesteko" ikusi du gobernu batzordeak parte-hartze prozesu bat garatzea aldi berean. Horregatik, bilera ireki bat egin zuten atzo iluntzean Kulturateko areto nagusian. Herritarren lehen ekarpenak jaso dituzte, hortaz.

Prozesua, ondo definituta

Udal Gobernuak bi enpresa aditu kontratatu ditu prozesu osoan laguntzeko. Lehena, Intra enpresa, planari lotutako ingeniari-tza lanak egiteko kontratatu dute eta Elhuyar aholkularitza enpresak, berriz, parte-hartze prozesuan laguntzeko ardura izango du. Prozesuaren lehen urratsa izango da diagnostiko zehatza

egitea, hots, herriko errealitatearen berri jasotzea: zoruaren erabilera, gaur egungo jarduerak, bideak, irisgarritasuna, garrarioak, aspektu sozioekonomikoak, ingurumen aspektuak...

Elementu horien guztien gaineko diagnostiko tekniko bat egingo dute eta arlo bakoitzaren inguruan prebentzio edota zuzenketa neurriak proposatu dira. Gainera, bideragarritasun ekonomikoa izango duen programa bat egitea aurreikusten da, inguruan dauden mugikortasun planekin koordinazio lan bat egitearekin batera.

Ingurumena aintzat hartu behar

Era berean, plan berriak ezinbestean bete beharreko hiru ardatz hartuko ditu aintzat: Tokiko Agenda 21, Hiriko Ingurumenari buruzko Liburu Berdea eta Aalborg-en Gutuna.

Musakolako Herri Eskolan urgentziatzko bi obra egingo dira

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin du Musakolako eskolan bi obra egitea. Negua heldu aurretik eraikineko berokuntza sistemaren erregulazailer berria jarri behar dute eta psikomotritate gelako sabaia konpontzea ere beharrezkoa da. Proima eta Hierros Aloña enpresei esleitu dizkiete lanak, hurrenez hurren, 2.237 euroko aurrekontuarekin.

Santamasetan kaleko postu ibiltariak jartzeko eskaerak

Santamas jaietan Garibai etorbidean eta Kontzezino kalean salmenta postua jartzeko lizentzia lortu nahi dutenek eskaerak egin ahaliko dituzte azaroaren 5era arte. Saltzaile ibiltariak 15,35 euro ordaindu beharko dute bide publikotik okupatzen duten metro koadro bakoitzeko. Muntaiarekin abenduaren 21ean hasi ahaliko dute, 18:00etatik aurrera.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak

Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak

Estimulazio goiztiarra

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Herritar talde bat urriaren 15eko auzolandegietan Murugainen, 36ko gerrako lubakietan aztarnak bilatzen. ONDARE BABESA

Burdin Aroko herrixkaren eta gerrako aztarnen bila

Murugaingo proiektu arkeologikoaren bosgarren ekinaldiaren barruan, badago zertan sakondu: "Oraingoz testuinguru zehatzik gabeko arrastoak dira"; auzolanerako deia egin dute biharko (11:00) eta bisita gidatu bat ere antolatu dute urriaren 30erako

Jokin Bereziartua ARRASATE Arrasateko Udalak eta Aramaio-ko Udalak Ondare Babesarekin hitzarmena beste urtebetez sinatu ostean, martxan da Murugaingo proiektu arkeologikoaren bosgarren ekinaldia. "Burdin Aroko herrixka eta 36ko gerrako aztarnak aurkitzea dira Murugaingo proiektuko helburuak,

baina aurten Burdin Aroko herrixkan sakondu nahi izan dugu gehiago. Sei zundaketa ireki ditugu eta orain laugarrengoa ari gara lanean, betiere, Burdin Aroko herrixka non egon zen jakitera bideratuta. 2011n ikusi genuen Murugaingo alderik lauean, Aretxabaretaren eta Aramaioren arteko mugan, bazeu-

del herrixkaren aztarna solteak. Aurten zona horretatik ari gara industen. Burdin Aroko materiala agertzen da: zeramikak, lur egosia, leundutako harriak... Baina oraindik ere testuinguru zehatzik gabeko aztarnak dira, badago zertan sakondu. Aztarnak etxe edo etxola baten testuinguruan sartu behar ditugu, besteak

beste", adierazi du Murugaingo indusketen zuzendari Etor Telleria arkeologoak.

Auzolanaren lehen saioa, ederto 36ko gerrako lubakietako aztarnak auzolanerako utzi dituzte aurtengo ekinaldian. Urriaren 15ean egin zuten aurtengo lehen auzolan saioa, Aramaio-ko aldean. Ondare Babesekoek aurreikusten zutena baino jende gehiago agertu zen hilaren 15ean. "Egin genuen lekua guztiendako. Erremintak bazeuden eta lanerako gogoia ere bai. Inoiz baino lur gehiago atera genuela esango nuke...". Lurra bai, baina aurkikuntza handirik ez zen izan; janari-lata bat osorik agertu zen -idatzitako letra batzuekin- eta lata zati batzuk ere agertu ziren.

Auzolanerako saioak iaz abiatutako zundaketen jarraipen moduan planteatu dituzte Ondare Babesekoek. "Iaz irekitako komunikazio-lubakian ari gara lanean; gure helburua da lubaki hori nagusiarekin lotzea, goiko zonaldea behekoarekin bateratzea", dio Telleriak.

Ez da kasualitatea auzolanerako saioak lubakietara bideratzea: "Herritarrengan interes handiagoa pizten du 36ko gerrak eta, gainera, horiek izan ohi dira aurkikuntza ikusgarrienak. Arkeologoontzat errazagoa da jendea 36ko gerrako aztarnak bilatzen jartzean, lan hori gainbegiratzea eta kontrolatzea. Burdin Aroko aztarnak delikatu-

goak dira, kontu handiagoarekin ibili beharra dago. Hala ere, esan beharra dago gerrak asko deitzen duen arren Burdin Aroko herrixkak ere jendeari interesa pizten diola. Denetarik dago". Izan ere, ez da atzo goizeko kontua Murugaingo tontorrek duen balio arkeologikoa: "Komunikabideetan zabaldu da gaia eta jendeak badaki gutxi gorabehera nora datorren. Beste asko dotoz Espainiako gerra asko interesatzen zaielako; kontatzen digute osaba edo aitona ez dakit nongo frontean egon zela... Bizipen asko daude".

Bigarren saioa eta bisita gidatua Bihar, urriak 22, beste auzolan saio bat egingo dute. 11:00etan elkartuko dira Murugainen bertan eta lanen ostean hamaitakoa egongo da bertaratzen direnentzat. Bihar goizean lubaki berean arituko dira, lubakia amaitzeko asmoz. Ondoren, urriaren 30ean, bisita gidatua egingo du Telleriak Murugainen bertan: "Irekitako zundaketa guztiak azalduko ditugu, proiektuaren helburuen eta emaitzen berri ematearekin batera".

AUZOLANA BIHAR: IZEN-EMATEA, BAZ-EN (943 25 20 00) EDO ARAMAIOKO UDALAN (945 44 50 16)



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Jon Salaberri

Egunotan ekintzaille bat zer dan aztertzen gabitz ikastolan. Ikasle batzuk etxe inguruen daukien familixarteko eta lagunen kasuak ekarri dittue gelara; gehixenak, barriz, Appleko Steve Jobs edo Zarako Amancio Ortega moduko ekintzaillien bizipenak azaldu daue.

Ikaslien artien batek, neure harridurararako, Jon Salaberriren testigantza azaldu dau. Horrenbeste urteren ostien 15 urteko gazte batek Jonen eta Hies Ekimenaren gorabeherak ezagutzie ez da ahuntzaren

gauerdiko eztule! Ekintzaille-enpresariaren estereotipoaren antitesia entzun eta ikusteko aukera izan dogu Jokin ikasliari esker.

Urtebete dala Euskal Telebistaren eskutik *Jon Salaberri* (Ricardo Arregi kazetaritza saria jaso euen eta Goienako webgunien ikusgai) izena dauken erreportajie bota euen. Bertan, Idoia arrebien, Aitor Iturriaga eta Txerra Bolinaga lagunen, Domi Korta eta Josu Unanue lankidien, Jose Manuel Agud medikuen eta

Jose Antonio Ardantzaren testigantzak jasoten die.

Ausardixa, egoerei aurre egitten jakittie, pasiñue edo griña, komunikaziño gaittasune, egoneziñe... ekintzaille baten ezaugarriak badie, honeitxek danak eta gehixau erakutsi zittuen Jon Salaberrik bizitzia tokatu jakon urtietan. Jonen eta Hies Ekimenaren mezuek gaurkotatuna dauka gaur egun be, haretxeik landatutako hazixe ureztatzeko erantzunkizune gurie da.

Askotariko ekintzak Sexologia Zerbitzuaren 20. urteurrenean

'Sexijentziak askatuz' izeneko bakarrizketa saio bi gaur, Etxaluzen (17:00) eta Kulturateko areto nagusian (20:00)

J.B. ARRASATE Udaleko Sexologia Zerbitzuak datozen asteetarako egitarau berezia antolatu du 20 urte bete dituela eta. Lehen ekintza gaur bertan egingo dute: Bazen Behin Clown taldearen *Sexijentziak askatuz* izeneko bakarrizketa ekarri dute. Formatu txikiko antzerki horrek harreman erotikoen gaineko begirada umoretsu eta kritikoa taularatzen du. Sinopsian jasotzen denez, Pituxa izeneko protagonista bakarrik sentitzen da "orgasmoaren gur-

tzaren" gizarte honetan: "Pituxak ez du larru-jotze kon-tuetan gozatzen [...]. Azkenik, sexologoarengana jotzea erabakiko du. Publikoaren parte-hartzea ere eskatuko du, laguntza bila".

Bi emanaldi izango dira; lehena hirugarren adinekoek zuzendutakoa izango da, Etxaluzen, 17:00etan. Gaztelera izango da. Bigarren emanaldia, berriz, Kulturateko areto nagusian (20:00) egingo du Bazen Behin Clown taldeko Itziar Saenz de Ojerrek.

Elikagaien azoka berria Biterin, azaroan hasita

Udal Azoka biziberritzeko egitasmoaren barruan egindako inkesta baten emaitzetatik ondorioztatu dute zapatutan merkatu bat irekitzeko ideia; salmenta postua jarri gura duten interesatuek urriaren 25era arte izango dute BAZen izena emateko

Jokin Bereziartua ARRASATE

Azoka berri bat jarriko du mar txan Udalak azarotik aurrera. Biteri plazan jarriko dute, hasiera baten, zapatu guztietan. Arrasatearrek nola erantzungo duten zain, proba modura jarriko dute urtebeterako. Izan ere, Udal Azoka biziberritzeko egitasmoaren barruan, inkesta bat egin zuen gobernu berriak herritarren artean. "Etorkizunerako nahi dugun azoka mota zein den jakiteko egokiena herritarrei galdetzea zela erabaki genuen", adierazi du Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak (OZMA) batzordeko buru Oscar Garciak.



Biteri plazan jarriko dute elikagai azoka, urtebeterako proba moduan. J.B.

"Ordutegi arazoak"

Enpresa bati kontratatutako inkesta horretako emaitzetatik ondorioztatu zen, besteak beste, bereziki jende gazteak ez zuela aukera handirik izaten Udal Azokan erosketak egiteko. "Inkestek adierazi ziguten jende multzo handi bat dagoela gus-tatuko litzaiokeela azokara joatea baina ez duela aukerarik izaten ordutegi arazoengatik. Horietatik asko gazteak dira".

Hortik abiatu zen Biteri plazan "Udal azokaren antzeko zerbait" egitearen ideia. "Ondo funtzionatuko balu herriko ekonomia

bultzatzea eta dinamizatzea ere lortuko genuke, aldi berean. Aukera egongo litzateke beste azoka batzuk integratzeko baina gure hasierako asmoa da elikagaien azoka izatea", dio Garciak. Interesatuek urriaren 25era arte aurkeztu ahalko dute postua jartzeko eskaera, BAZen (943 25 20 00 edo baz@arrasate.eus)

Urtebeterako probaldia

Hileroko hirugarren zapatuan egiten den azokak Biterikoa estaliko ote duen galdetuta, Garciak dio oraingoz ez dutela erabakirik

hartu: "Aztertzen ari gara bi azokak aldi berean mantentzea edo beste alternatibaren baten alde egitea". 2017ko abendura arteko probaldia izango du Biteriko azoka berriak: "Herritarren erantzunaren arabera erabakiko dugu zer egin aurrerago".

Udal Azokaren egitasmora bueltatuz, Garciak gogora ekarri du uda aurretik egindako inkestan parte hartu zuten herritarrek erabaki zutela, besteak beste, Udal Azoka gaur egun dagoen lekuan mantentzea eta bertako zerbitzuak eguneratzea.

1954an, 1958an, 1960an eta 1976an jaiotako bazkariak

1954an jaiotakoek azaroaren 5ean egingo dute aurtengo bilkura. Interesdunek 3035 0001 57 0011136855 zenbakian egin beharko dute 60 euroko diru sartzeara.

1958koak egun berean elkartuko dira. Bazkaria Bedoñako Errastikon izango da eta ondoren dantza giroan murgilduko dira Kajoi tabernan. Interesdunek 3035 0001 59 0011144438 kon-

tuan egin beharko dute 60 euroko diru sarrera.

1960an jaiotakoak azaroaren 12an batuko dira. Joan nahi dutenek 60 euroko diru sarrera egin beharko dute 3035 0001 57 0011163662 kontuan azaroaren 5a baino lehen.

1976koak ere egun berean elkartuko dira. 50 euroko diru sarrera egin beharko dute 3035 0202 71 2020046208 kontuan eta autobusa eta bazkaria egongo dira barne. Izen emateak urriaren 22a baino lehen.

San Balerio eremuan panelak egiteko lanak esleitura

Tokiko Gobernu Batzarrak Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordean onartu du San Balerion lau interpretazio panel jartzeko lanak Orbela, Investigacion y Educacion Ambiental SL enpresari esleitzeara.

Enpresa berak egin ditu Besaideko bidean egin diren hobe-kuntza lanak, eta 11.930,60

euroko kostua izango dute (BEZA barne).

2015a ezker Udalaren jabetzan

Arrasateko Udalak 2015. urtean erosi zuen San Balerioko lursaila. Ordutik, hainbat lan egin dira: lursailak garbitu, landaketak egin, bideak konpondu eta urak bideratu, besteak beste. Horretaz gain, Besaide, Sustarbarri eta Naturzaintza elkarteek inguruko bioaniztasuna hobetzeko lanak burutu dituzte.

Artgazki elkartearen udazkeneko argazki lehiaketa martxan da

Artgazkik Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso elkartearen (Aspanogi) alde egiten duen bigarren lehiaketa abian da. Aurtengo gaia *Udazkena Euskal Herrian* izango da, eta parte hartzeko elkarteko kide izan behar da. Hiru argazki aurkeztu daitezke; azaroaren 21a baino lehen bidali beharko dira lehiaketak@artgazki.org helbidera.

Ume eta Nagusien Danborradetako arropak itzultzeko deia

SUDC elkartetik, ume eta nagusien danborradetako arropa itzuli ez duten pertsonei dei egin diete, datorren astean entrega dezaten.

SUDCko kideek horretarako aukera emango dute urriaren 24an, 25ean eta 26an, 17:00etatik 18:00etara. Arropak entregatzeko lekua elkartearen egoitzan bertan izango da.

ZABALDU
BERRIA!

urrats
zapata denda

Zerkaosteta 5 • ARRASATE • Tel.: 943 04 71 80

[f](https://www.facebook.com/urratszapata) [i](https://www.instagram.com/urratszapata) /urratszapata

"Pedrusko auzoko futbol taldea zen, familia bat"

ANTONIO BASTIDA 'TOÑIN' PEDRUSKO FUTBOL TALDEKO SORTZAILEA

Bihar lagun koadrila polita batuko da Pedruskoren 35. urteurrena ospatzeko. Aspaldi desagertu zen klubak arrastoa utzi zuen herriko futbol jokalaria askorengan

Xabier Urzelai ARRASATE

Pedrusko futbol taldea Arrasateko San Andres auzora lotuta egon da beti, baina ez bertako jokalaria auzo horretakoak zirelako. Bai, ordea, klubeko fundatzaileetako bat, Antonio Bastida *Toñin* (Leintz Gatzaga, 1955) bertakoa zelako.

Gaztetan saskibaloia jokalaria izan eta gero, Pedrusko Futbol Taldea sortzeri pasa zinen. Zer dela eta?

Bada, oso sinplea da. Hasteko, Arrasateko saskibaloia taldea ere guk jarri genuen martxan, Zabarte, Bittor Arantzabal, Arruti, Mendizabal... Hainbat lagun batu ginen saskibaloian jokatzeko. Baina, saskibaloian hasi aurretik nik Zaldibarko futbol txapelketan ere jokatzeko nuen, San Andres auzoko –eta horrela jar dezakezu– beste maketo batzuekin taldea osatuta. Talde hark Roca zuen izena, eta bertan zeuden Carabias, Dueñas, Hernandez, Familiar eta beste hainbat [1968]. Ondoren Almenara hasi ginen joaten, eta 06:00etarako futbol zelaian egon behar izaten genuen futboleko egiteko.

Horren goiz, zertarako?

Lekua hartzeko! Atzetik jende gehiago etortzen zelako. Hiru urtez-edo Estrella Roja izenarekin jokatu genuen, orduan 14 urte izango nituen, baina gure artean



'Toñin' Pedruskoko txaparekin. X.U.

haserretu eta taldeko ordezkari batzuek alde egin genuen, eta hor sortu genuen Pedrusko.

Nondik dator taldearen izena?

Badu bere istorioa. Taldea sortzen genuen guztion izen eta abizenekin egindako hitz-joko batetik sortu genuen. Orduan taldean geunden Serapi Hurtado, Manolo Bachiller, Familiar, Carlos Fernandez, Zangitu, Portu, Unamuno, Davila, Ramiro Gomez Gomez... Hitz jokoaren emaitza ez zen Pedrusko, baina antzerako zerbaitekin zen, eta sasoi hartan bazen komiki bat [*Pepe el hinch*] eta bi futbol talde azaltzen ziren bertan, Pedrusko eta Menisco; hortik hartu genuen izena. Hala,

futbol txapelketa antolatzen hasi nintzen Almenen, gogoan dut 2.200 pezeta ordaintzen genizkiola orduko Almeni zelaia erabiltzen uztearren. 42 taldeko txapelketa izatera iritsi ginen, ia 1.000 lagun jokatzeko! Hamar urtez antolatu genuen txapelketa, baina jendearen kexuak entzuteaz nekatuta amaitu nuen. Eta, hor erabaki nuen txapelketa antolatzeari utzi eta Pedrusko federatutako talde bilakatzea.

Zelan izan ziren hastapenak?

Ramiro Gomez Gomezek eta biok sortu genuen Pedrusko, inolako laguntza barik, eta Angel Espinosa izan zen lehen entrenatzailea. Orduko Juventud Deportivakoekin eta ondoren Mondra-koekin ez genuen harreman onik izan, gauzak diren moduan. Trabak baino ez genituen, futbol zelai barik... Eta, UDak Ibarra-ko anexoa alokatzen zigun, partiduko 3.500 pezeta ordainduta. Pentsa, aldagelak garbitu eta epaileari aparte ordaindu behar izaten genion [1.200 pezeta]. Lehenengo partidua Otxandioaren kontra jokatu genuen, eta lehen minuturako 0-1 galtzen gindoen, Muñozek bere atean gola

sartu eta gero [Barre]. Baina partidu hura 4-2 irabazi genuen. **Eta ondoren Pedruskok 14 urte egin zituen federatu moduan.**

Urte horietan guztietan 300 jokalaria inguru izango zituen Pedruskok, eta ni eurekin izandako harremanarekin geratzen naiz, horrek betetzen nau. Pentsa, azken urteetan denboraldi bat betetzeko ia hiru milioi eta erdi pezeta behar genituen, eta ez genituen diru-laguntzak. Zenbat buruhauste... Errifak, zozketak, gure poltsikotik... Denetarik egin behar izaten genuen. Ondoren, gure jokalaria Eskoriatzara, UDARA edo Mondrara joaten zirenean klub horiekin haserretzen ginen, trukean bota batzuk ere ez zizkigutelako ematen.

Pedruskok jokalaria onak izan ditu.

Bai, talde txukuna izaten genuen. Hirugarren mailara igotzekotan egon ginen [1986-1987], *Copa de Aficiones* delakoan Mondra eta Aloña Mendi kanporatu genituen... Eta, Pedruskon jokatu zuten, esaterako, Alavesen amaitu zuten Gorka Otxoak, Mikel Uribesalgok, Neka Galan eta Alfredo Alonso Eskoriatzara joan ziren, Luengo eta Lazaro UDARA...

Zer antolatu duzue biharko?

Duela 10 urte taldearen 25. urteurrena ospatu genuen, baina ikusten dut auzoa, San Andres, hilda dagoela, ez dela aparteko ezer antolatzen. Eta, auzoa apur bat girotzeko aitzakiarekin, eta osterara ere Pedruskoko familia osoa elkartzeko asmoaz antolatu dugu bazkaria. Horregatik egin dugu hitzordua Cordoba y Oro kaleko parkean. Eguerdian elkartuko gara, potea egiteko, eta ondoren bertan bazkalduko dugu guztiok. Ez gara gonbidapenak bidaltzen hasi, Pedrusko bihotzean duena etorriko da.



1988-1989 denboraldiko Pedrusko, Atxabalpen egindako erretratuan. TOÑIN

Julen Bilbao arrasatearra bederatzigarren Hiru Haundietan

Jokin Garai oñatiarra izan da lasterketako protagonista, baina Bilbao hamar onenen artean helmugaratu zen

Xabier Urzelai ARRASATE

Hiru Haundiak lasterketak hainbat sorpresa utzi ditu. Gizonezkoetan Jokin Garai oñatiarra gailendu izana ez da ezustekoa izan, duela bi urte ere podiumera igo ze-

lako. Podiumera igotako Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak bai eman zuen eguneko ezusteetako bat, eta maila apalagoan, Julen Bilbao arrasatearrak sekulako lasterketa egin zuen, hamar

onenen artean helmugaratu zen-eta (12.20.03).

Guztira 25 arrasatear batu ziren Gopegiko irteera puntuan, bakoitza erronka eta helburu propioekin, baina nabarmentzekoa da Iker Zabarteren kasua ere, Australian bizi den arrasatear horrek hainbat lagunekin munduaren beste puntatik bidaia egin eta helburua bete zuelako; lasterketako helmuga gurutzatzea, alegia.

Ford Mugarri Arrasate, Oñatin bizi izandakoa ahazteko asmoz

Joan den astekoa ahaztu, baina ikasgaia ikasi eta gero, helburu hori dute Ford Mugarri Arrasateko ordezkariak Izarraitz Muñozen kontra 33-20 galdu eta gero. Garaipen bat lehenbailehen eskuratzeko asko lagunduko luke zapora txar hori uxatzen; hala, Donibanen bisita izango dute zapatuan (19:00) Iturripen.

Bigarren dagoen Mondratek Legorreta hartuko du bihar

Jokatutako lau partiduetatik hiru irabazi ostean, hiru talde dira sailkapenaren lehen postuetatik borrokan dabiltzanak, puntu kopuru berbera batuta. Eta, talde horietako bat da Mondrate. Zaldibi eta Egarrri taldeak dira beste biak. Hala, zapatuan 18:00etan Musakolan, atzealdean dagoen Legorretaren bisita izango dute arrasatearrek.

'Zabor zuria' erakusketa azaroaren 16 arte ikusgai

Bost artista gazteren sorkuntza artistiko eta berritzaileak Kulturateko klaustroan erakutsiko dituzte, eta argazkiak dira ardatz nagusi; urriaren 27an topaketa egingo dute, eta bertan, erakusketako artistak egongo dira

Ibon Carmona ARRASATE

Pasa den ostiralean inauguratu zen erakusketa bost artistaren lanak daude ikusgai, eta, bestelako osagaiak aurki daitezkeen arren, argazkiak dira ardatz. Erakusketaren harira, datorren ostegunean topaketa egingo dute Kulturaten, obrak dauden tokian. Topaketan erakusketako egileak egongo dira: Ana Arsuaga Aranbarri (Tolosa, 1994), Mainer Gonzalo Salceda (Erandio, 1994), Maria Muriedas Diez (Mungia, 1994), Estitxu Otermin Mariñelarena (Leitza, 1994) eta Iñigo Pastrana (Hendaia, 1993).



Bost artista gazteak erakusketan. JULEN IRIONDO

Mespretxuzko esamoldea

Zabor zuria ingelesezko *white trash* esamoldearen itzulpena da eta beti erabili izan da mespretxu bezala. Ana Arsuaga artista tolosarraren esanetan, errealitatera edo euren ingurura argazkien bidez nola gerturaten diren erakusten du erakusketak.

Urriaren 27an topaketa

Bost artistak Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean graduatu berriak dira, eta argazkigintza eta bideo gintza dituzte zaletasun. Ostegunean arratsaldeko zazpietan egingo den topaketan bertan egongo dira guztiak.

Kulturateko klaustroa bertaraten direnek topaketan parte hartzeko aukera izango dute. Horrela, lanen jatorria, haien arteko harremana eta muntatze erabakiak azaltzeaz gain, publikoari otutzen zaion beste edozein galderari erantzungo diote artistek.

'Harriak' programa barruan

Arte bitartekaritza, erakusketarako eta dibulgaziorako espazio berriak sortzea helburu duen Jaurlaritzaren *Harriak* izeneko arte garaikideko programa barruko erakusketa da

BESTELAKO OSAGIAK AURKI DAITEZKEEN ARREN, ARGAZKIAK DIRA ARDATZ

Arrasatekoa. Programa hainbat kultura-aretoan jorratuko da, gorabidean datozen artista eta bitartekarien bitartekaritzarekin. Aldi berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren *Eremuak* izeneko ekimenaren barruan dago, eta herri txikietan sorkuntza garai-kidearekiko sentiberatasuna bultzatzera eta artearen inguruko lan eta bitartekaritza prozesuak ikusaraztera bideratuta dago. "Horrelako ekimenak beharrezkoak dira, ekoizpen kopurua handiagoa delako horiek erakusteko aukera ematen duten lekuena baino", adierazi zuen Jon Otamendik, erakusketako komisarioak, inaugurazio egunean.

Erakusketaz gain, ekitaldi ugari Ostegunean egingo den topaketa erakusketarekin loturiko az-

ken ekintza izango da. Urriaren 5ean Ohiana Garrok eta Lorea Alfarok intimitate kontzeptuaren gaineko *Bizitzaren argazkia: pertsonaletik orokorrera* izeneko hitzaldia eman zuten. Urriaren 14an, inaugurazio egunean, Serpiente musika taldeak kontzertua eskaini zuen.

Erakusketak, berriz, azaroaren 26 arte jarraituko du irekita; astelehenetik ostiralera 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era eta zapatuetan arratsaldez bakarrik egongo da irekita, 17:00etatik 20:30era.



IBON CARMONA

Operak erantzun ezin hobea

Pasa den martitzenean, Gioachino Rossiniren *El barbero de Sevilla* opera eskaini zuten Amaia antzokian. Ozenki elkarteko kideak oso pozik azaldu dira emanaldiarekin, eta baita jendeak izan zuen erantzunarekin. Antzokia jendez bete zen Rosina eta Figaro pertsonaien arteko amodio istorioaz gozatzeko.

Arrasate Musikaleko bazkideentzat, zarzuela merkeago

Azaroako azken bi asteburuetan ohikoa den moduan, zarzuela ikuskizuna egongo da Amaia antzokian. Aurten, Reveriano Soutullo eta Juan Vertek konposatutako *La del Soto del Parral* zarzuela ikusteko aukera egongo da. Ikuskizun egunak azaroaren 19a, 20a, 25a eta 26a izango dira. Arrasate Musikaleko bazkideek 15 eurotan lortu ahal izango dituzte azaroaren 25eko emanaldirako sarrerak -sarrera arruntak 18 euroko prezioa dauka-. Bazkideek Monterron jauregian eskuratu ahal izango dituzte sarrerak urriaren 24an, 25ean eta 26an, 16:30etik 19:30era. Bakoitzak, gehienez, lau sarrera erosteko aukera izango du.

Rebeka Lane rap kantaria, hurrengo Kooltur Ostegunetan

Rap doinuak izango dira nagusi datorren asteko Kooltur Ostegunetan. Rebeka Lane rap kantari guatemaltarra kontzertuak ematen ari da Espainiako Estatuko hainbat herri eta hiritan, eta datorren ostegunean Gaztetxean izango da.

Rebeca Eunice Vargas Guatemalako Hirian bizi den rap kantari feminista eta anarkista da, Ultima Dosis hip hop kolektiboaren parte dena. Bere kanteetan emakumeen egoera salatzen du, beraien autonomia eta askatasuna aldarrikatuta.

Kontzertua, betiko moduan, gaueko hamarretan izango da, eta sarrerak 5 euroko prezioa izango du.

UDALATX MINTEGI EKOLOGIKOA



URRITIK aurrera eten egingo ditugu Mintegiko jarduerak, **LEKUZ ALDATUKO GARELAKO.**

Eskerrik asko gudan jarri duzuen konfiantzagatik. Espero dugu datorren urtean berriz elkar ikustea.

690 61 08 22 (Nerea)
626 15 25 10 (Idurre)

Helbide berria:
Gesalibar auzoa 15. Arrasate.

Terrazak: zirriborroa, ekarpenak jasotzeko zain

Aramaioko Udalak webgunean ikusgai jarri du terrazak arautzeko zirriborroa, herritarrek eta tabernariak euren ekarpenak egin ditzaten. Hainbat hobekuntza proposatzen ditu eta gaur, egubakoitza, izango da ekarpenak egiteko azken eguna.

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Aramaioko Udalak tabernetako terrazak arautzen dituen ordenantza berriaren zirriborroa diseinatu berri du. Gaur egun indarrean dagoen araudia 2002. urtekoa da, eta terrazako mahai bakoitzeko urtero 15 euroko kanona ezartzera mugatzen da. Ez ditu kontuan hartzen mahaien kokapenerako irizpideak, oinezkoentzako pasabideak eta terrazak jartzen dituzten tabernariaren eginbeharrak. 15 euroko kuota bere horretan mantentzen du, baina baliteke etorkizunean igotzea.

Berrikuntzak

Hainbat berrikuntza jasotzen ditu Aramaioko Udalak prestatutako zirriborroak.

Lehenik eta behin, terraza jarri nahi dutenentzat, kokapen planoan definitzea beharrezkoa izango da. Bertan, jarriko diren mahai eta aulki kopurua, hauen kokaleku finkoa, elementu gehigarriak eta oinezkoek bertatik igarotzeko errespetatu beharreko tartea zehaztu beharko dira. Horrekin lotuta, gutxienez 1,5 metroko tartea utzi beharko da oinezkoak pasa daitezten eta, adibidez, debekatuta egongo da terrazak atartearen parean kokatzea.

Horretaz gain, terrazen ordutegia ere errespetatu beharko da. 09:00etatik tabernen itxiera ordura arte mahaiak eta aulkiak jarri ahal izango dira, baina ordutegitik kanpo, taberna itxita dagoenean, tabernariaren ardura izan beharko da hauek batu eta lurzoru publikotik kentzea.

Leku faltagatik elementuak taberna barruan gorde ezin ditzaizketen kokapen planoan adierazi beharko dute hauek batzeko erabiliko duten txokoa zein den, eta zenbat espazio hartuko dien. Terrazak garbi mantentzea ere tabernariaren ardura izango da, eta ez egitea arau-haustea arina izango da.



Aramaioko plazan kokatutako terraza bat. XABI GOROSTIDI

Zer iruditzen zaizu zirriborroa?



IGOR AYASTUY
TABERNARIA

"Legea berritzea ondo iruditzen zait, baina taberna bakoitzak bere istorioa dauka. Nire kasuan, uda partean hamar mahai jartzen ditut, baina urte osoan mahai bakarra dut. Beraz, hamar ordaindu behar ditut? Eta mahaien kokapena ezin da hain itxia izan. Jendeak lekuz aldatzen jarraituko du".



ARKAITZ BENGOA
IKASLEA

"Ba, hutsuneak dituela uste dut. Batzuek sasoi batean bakarrik dauzkate mahaiak, beste batzuek urte osoan... Oinezkoentzako pasabideak errespetatzea ondo iruditzen zait, baina badaude espaloi osoa eurentzako hartzen duten tabernak. Legea askeagoa izan beharko litzateke".

Hauen erabilpenerako ere hainbat irizpide zehazten dira. Hasteko, ekintza puntualak egiteko lurzoru horren beharra izanez gero, Udalak terrazako lurrak erabiltzeko eskumena izango du. Bestalde, debekatuta dago terrazetan telebistak edo audio bozgorailuak jartzea eta derri gorrezkoa izango da bertako aulkien eta mahaien hanketan gomazko babesak jartzea, zarak saihesteko.

Zentzu horretan kale berogailu homologatuak ere jarri ahalko dira.

Arau-haustekak

Zirriborroan tarte zabala eskaintzen zaio arau hausteei, eta hauen ondorioei.

Hasteko hiru arau hauste mota zehazten dira; arinak, larriak eta oso larriak. Arinen multzoan sartzen dira egunero modu egokian okupazio esparrua ez garbitzea, Udal baimenik gabe terraza jartzea, ezarritako ordutegia gainditzea ordubete arte, baimenean zehaztutako espazioa baino gehiago okupatzea eta bai-

mendutako altzariak zehaztutako espazioetatik kanpo biltzea.

Arau hauste larritzat joko dira, Urtebeteko epean hiru arau hauste arin egitea, terrazan baimendu gabeko edozein elementu instalatzea, terrazako edozein elementu publikitate jartzea, baimenean ezarritako instalazio guztiak egunero ez biltzea, ezarritako ordutegia gainditzea bi ordura arte, baimenik gabeko obrak egitea, eta espazio publikoan kalteak eragitea.

Arau hauste oso larrien izaera izango dute urtebeteko epean hiru arau hauste larri egitea, espazio publikoa baimenik gabe okupatzea, Hiri altzariak aldatzea, edo erabiltzea, dagokion berarriazko baimena izan gabe, okupazio tasak edo fidantza epean ez ordaintzea eta espazio publikoan kalte konponezinak eragitea.

Arinek 100 eta 500 arteko isunak jasoko dituzte, larriek 501 eta 1.000 artekoa, eta oso larriek, aldiz, 1.001 eta 1.500 artekoa. Arau hauste arin bakoitzeko 100 eta 500 euro arteko zigorrak ezarriko dira.

Plazako konponketa lanak

Herriko plazan egiten ari diren konponketa lanak ur depositu berriekin lotuta daude.

Plazan hasi aurretik, Zalgo inguruan aritu dira ur biltegi berriaren instalazio lanak egiten. Aramaioko Udalaren aurreikuspenen arabera, lanek ez dute luze iraungo, eta laster amaitzea espero dute.



XABI GOROSTIDI

Hiru haundietako lasterkari bat Jarindon zaurituta

Joan den zapatuan Hiru Haundiak mendi lasterketa jokatu zen, eta bertako zati bat Jarindotik pasatzen zen. Primerako hego haizea zebilenez, ehiztari ugari ibili ziren Jarindo inguruan, eta horietako baten perdigoiak korrikalari baten hanka jo zuen. Zorionez, ez zion kalte larrikeria eragin eta proba amaitu zuen.



Lehenago eta oraingo dantzariekin zapatuan ateratako talde argazkia. JULEN IRIONDO



Jende ugari batu zen kiroldegian. J.I.



Dantzari gazteak J.I.

60 urteak ospatuta gehiago betetzearen bila

Uztailean hasitako entseguek fruituak eman zituzten zapatuan. Ekitaldi jendetsua eta hunkigarria antolatu zuten Lagun Artean dantza taldekoek lehengo eta gaur egungo dantzariekin, eta aramaiorrek bat egin zuten urteurreneko ospakizun jaialdiarekin

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Hunkigarria, jendetsua, parte hartzailea eta ikusgarria izan zen Lagun Artean dantza taldekoek joan den zapatuan antolatutako jaialdia.

60 urte hauetan zehar dantza taldean aritu diren belaunaldi ezberdinetako kideek parte hartu zuten, eta entsegu gogorrei esker dena primeran atera zen.

"Taldearen hastapenetan aritu zirenek ere egin dute dantza gaur, eta, guretako, ohorea izan da. Kosta zaie, baina ondo atera da. Eurak gustura geratu dira eta gu ere bai", adierazi du Ainara Inuntziagak, Lagun Artean taldeko arduradunak.

"Iazko erretiratuen egunerako, mutilekin osatutako talde berriarekin dantza bat egin genuen,

eta horren eraginez mutil gazte gehiago hurbildu dira taldean sartzeko. Pozgarria da guretako, eta gustura gaude orain daukagun taldearekin. Badago jendea dantzarako zaletasunarekin eta gogoarekin, eta Aramaio bezalako herri batendako pozgarria da hori. Hori dagoen bitartean, herriko jaiak alaitzen jarraituko dugu, zalantzarik gabe".

"Inoiz hartu dudan onddorik handiena dela esango nuke"

EUGENIO ERRASTI ERRETIRATUA

Jarindo inguruan aurkitu zuen 1,2 kiloko onddoa

X.G. ARAMAIO

Pasa den zapatuan, irudian ageri den 1,2 kiloko onddo zuria batu zuen Eugenio Errastik. 77 urteko aramaiarra, goizero bezala, mendi bueltatxo egitera irten zen eta han egin zuen topo onddo puskarrekin.

Non batu zenuen?

Jarindo inguruan dakidan ondoleku batean.

Hartu duzun handiena al da?

Bai, handiena dela esango nuke. Hala ere, bere alboan 400 gramo bueltako beste onddo eder batzuk zituen.

Jende askok zoriondu zaitu?

Bueno! Jende guztiak deitu dit zoriontzeko. Aramaiora heldu eta kalean erakutsi nuenean ere ikusmin handia piztu zuen, eta hainbat argazki atera zizkidaten.

Zer egin zenuen onddoarekin?

Etxera heltzerakoan, garbitu eta hozkailura sartu nuen. Egoera



Eugenio Errasti. GOIENA

onean zegoen, baina sukaldeko giroan segituan usteltzen dira. **Zein da sekretua zure adinarekin hain sasoi onean mantentzeko?**

Sekreturik ez dago. Mendi bueltak egitea gustatzen zait. Ekainean kiste bat kendu zidaten eta pixka bat makaldu nintzen, baina orain hobeto nago, eta horrela jarrai dezala!

'Searching for Sugar Man' dokumentala domekan

Sixto Rodriguez musikariari buruzko ikus-entzunezkoa egongo da ikusgai domeka honetan, musikarekin lotutako zine zikloaren baitan. Amerikar musikaria ezezaguntasunean desagertu zen, Hego Afrikan arrakasta komertzial eta miresmen izugarria zuen artista zela konturatu gabe. 2012an dokumental onenaren Oscar saria jaso zuen.

Bertso bazkaria Sebastian Lizasorekin eta Julio Sotorekin

Arabako bertso agendaren barruan, bertso bazkaria egingo dute bihar Aramaion.

14:00etan izango da Kasatxoko bordan eta Sebastian Lizaso eta Julio Soto izango dira bertsolari gonbidatuak. Azpeitiarraren esperientziarekin eta nafarraren ofizioarekin, ikuskizuna bermatuta egongo da, bertaratzen diren bertsozaleen gozamenerako.

Albinan zaborrik ez uzteko deia Aramaioko Udaletik

Asko dira bertan egun pasa egin eta zaborrak eramaten ez dituztenak, eta ohikoa da etxeetako hondakinak bertan ikustea.

Albinako hondakinaren kudeaketa Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta Aramaio Udaletik adierazi du animalia asko dauden ingurua izanik, zaborra horrela uztea oso arriskutsua dela, eta zentzuz jokatzeko dei egin du.

Ibargoia kalean gaizki aparkatzearen eraginak

Zabor edukiontzien ondoan aparkatzen dutenek arazoa handiak sortzen dizkiote zaborrak jasotzera doan kamioiari. Sarritan kamioia ezin izaten da edukiontzietara iritsi eta beste askotan ezin ditu hauek hustu.

Hori dela eta, behin baino gehiago geratu dira zabor edukiontzia hustu gabe, horrek dakartzan higie arazoekin.



UDAKo talde guztiak iazko familia argazkian. GOIENA

"Karateak Estatu mailan behera egin du"

ODILO VAZQUEZ KARATE SAILA



GOIENA

Odilo Vazquez, UDAko karate sailaren arduraduna. Eskola bezala 1998an hasi ziren, eta 2007a ezker UDA klubaren barruan daude egituratuta. **Zenbat talde zarete gaur egun?**

Bi taldetan antolatuta gaude. 14 urtetik gorako taldea eta 5 urtetik 12 edo 13 urtera artekoa. Baldintza fisikoen arabera, batzuek lehenago egiten dugu salto talde nagusira.

Zein osasun maila du karateak?

Gaur egun da ez dago sasoirik onenean. Duela hiru urte 40 lagunetik gora ginen, baina orain gutxiago gara. Hala ere, ez da Aretxabaleto kasua, Gipuzkoa eta Espainia mailan ere behera egin du azkenaldian. Futbolaren kompetentzia handiegia da.

Domekarako mezuren bat?

Kiroldegitik pasa daitezela karatea hobeto ezagutzera.

UDAren asteburu mundiala ekintzaz beteta

Gaur, egubakoitza, talde guztien aurkezpena eta familia argazkia egingo dituzte, eta 70. urteurrenaren harira Aitor Ziardegik sortutako ereserki berria aurkeztuko dute; zapatuko sailheski janak eta domekako karate txapelketak osatzen dute egitaraua

Xabi Gorostidi ARETXABALETA

UDA elkarteak asteburu mundiala prestatu du, gaurtik hasi eta domekara arte. Klubaren 70. urteurrena da aurten, eta denboraldi berezia izango UDAko familiarentzat.

Gaur, egubakoitza, 17:30ean, 23 taldeen aurkezpena egingo dute. Emakumezko eta gizonen futbol taldeek, areto futbole-

koek, gimnasia erritmikokoek, eskupilotakoek eta karatekoek argazki ofiziala atera ostean, familia argazkia egingo dute.

Ondoren, 19:00etan, Aitor Ziardegi musikariaren ereserki berria plazaratuko dute. Orain arteko ereserkia bere aitona Demetrio Iriartek konposatu zuen, eta, hori oinarri hartuta, doinu modernoagoa sortu du.

Euskadiko Karate txapelketa

Domekako Euskadiko kadete, junior eta 21 azpiko 2016ko karate txapelketa da klubaren asteburuko beste osagai bat. Autonomia mailako dominak jokoan egoteaz gain, lehiaketa honek azaroaren 25ean, 26an eta 27an Tenerifen jokatu den estatu txapelketarako sailkapena lortzeko ere balioko du. UDAko

taldetik, Joanna Perez eta Alex Benitez (kadete), Eneko Calvo eta Andoni Martin (junior) eta Oxel Vazquezek (21 azpi) hartuko dute parte, kumitean.

Antolakuntzaren erronka

"Aurtengo erronka nagusia kirol arloan baino gehiago antolaketara arloan izango dugu", adierazi du Agurtzane Elkorok, UDAko lehendakariak. Arizmendi-ekin egindako elkarlan hitzarmenagatik, emakumeen hiru futbol talde izango dira klubaren barruan, Arizmendi-UDA izenarekin. Horri, plan estrategikoan onartutako *Parte Hartu* egitasmoa ere gehitu behar zaio. "Futboleko jokatu nahi duen bailarako edozein gaztek, ona edo txarra izan, gure klubean jokatzeke aukera izatea adostu genuen plan estrategikoan. Jartzen

dugun baldintza bakarra asistentziarekin eta jokabidearekin lotutako diziplina arauak betetzea da. Horretarako, gutxienez, errendimenduko eta parte hartzeko talde bat egongo da alebin, infantil eta kadete mailetan. Horrek talde gehiago edukitzea eragiten du, eta emakumeen hiru taldeak gehitu gero, antolaketara lan handia eskatuko digu."

Futboleko emakumezkoen talde nagusiak lautik lau garai-pen lortu ditu eta gizonenak, aldiz, seitik sei. Hala ere, Elkorok ez du helburu konkreturik finkatu. "Gure taldeetan 500 haur inguru ari dira; beraz, gure helburu nagusia ahalik eta aretxabaleto gehienek kirola egitea da. Lehen taldeak hirugarren mailara edo euskal ligara igotzea gustatuko litzazuke, baina ez diegu helburu izaerarik ematen".

Gaur amaitu da Kurtzebarri eskolako elkarruke astea

Aurten, Herbehereetatik etorritako bi ikastetxetako kideak izan dira Aretxabaletoan astebetetz

X.G. ARETXABALETA

Urtero legez, Kurtzebarri Eskolako DBHko laugarren mailako kideek elkarruke astea egin dute. Iaz bezala, Cuijk herriko Merletcollege ikastetxeko kideak astebetetz izan dira Aretxabale-

tara, baina, aurten, laugarren mailan dagoen ikasle kopuru altuak eraginda, Oss hiriko Maaslandcollege ikastetxeko kideak ere etorri dira.

Zapatuan egin zieten ongietorria Azbeko geltokian bertan,

eta domekan familia eguna egin zuten.

Astelehenean harrera ofiziala egin zieten lehen hezkuntzako aretoan, eta ondoren Lastur eta Mendaro ingurura irteera egin zuten.

Asteartean, Erdizka Lauetan dantzaldia egin zuten Aretxabaletoan, bertako ikasleekin batera. Asteazkenean Sopelan surf ikastaroa egin ondoren Guggenheim museoa bisitatu zuten, eta atzo, osteguna, Donostiara joan ziren egun pasan.



Herbehereetako ikasleak Herriko Plazan dantzan. KURTZEBERRI ESKOLA

Udal zergak eta tasak %0,3 igoko dituzte

Euskal Autonomia Erkidegoko iraileko KPIa hartzea oinarritzat orokorrean 2017rako erabaki zuen udalbatzarrak osoko bilkuran, baina hainbatek ez du izango igoerarik; salbuespena da Ibarra kiroldegiko zerbitzua, hori %1,5 igoko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzarrak 2017ko ordenantza fiskalak, hau da, Udal zergak eta tasak. Udal gobernuak proposatu zuen %0,3ko igoera, EAEko iraileko KPIa, hain zuzen, aplikatzea hainbati, besteak beste, ibilgailuen zergari, Udal guneen alokairuari eta kanposantuko zerbitzuari. Beste hainbatek ez du izango igoerarik; urak, hondakinek eta etxeko obregatik ordaindu beharreko tasek, esaterako. Eta salbuespena da kiroldegiko zerbitzua, horri %1,5eko igoera aplikatzea proposatu zuen ordutegia luzatzeko asmoa dagoelako.



Udalbatzarreko kideak asteleheneko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

EH Bilduren babesa

EH Bilduk hainbat emendakin aurkeztu zituen egindako proposamenari, besteak beste, hutsik dauden etxebizitzengatik ordaintzen den %100eko erre-kargutik jasotakoa inbertitzea etxe horiek alokairuan jartzeko, eta ibilgailu handiei zerga handiagoa ezarri eta diru hori zerbabideak berritzeko erabiltzea. Ez zituzten onartu horiek, bai, ostera, alokairuan jarriko diren etxeetan berritze lanak egiterakoan %95eko hobaria aplikatzea.

Hondakinen kasuan, 123.000 euro inguruko defizita sortu dutela jakinik, EH Bilduk eskatu zuen sarrerak eta gastuak orekatzera jotzeko. Alkatea bat etorri zen proposamen horrekin, eta hori "lantzeko konpromisoa hartu" zuen: "Zalantza barik, kostuak estali behar dira. Datorren urtean helduko diogu horri, eta, hurrengo bi urteetan finkatuta izango denez zerbitzua, plangintza bat egin". Gainera, ordainagirian bereizita zehaztea hondakin bilketaren, kudeaketaren eta tratamenduaren kostuak erabaki zuten.

Hala, EH Bilduk babestu egin zuen Udal gobernuak proposa-

tutakoa: "Emendakin batzuk onartu dizkigute eta beste batzuk aurrekontuetan landuko ditugu, horregatik baietza eman diegu ordenantza fiskalei; gainera, kiroldegia gaia jorratzeko borondatea antzeman dugu".

Irabaziko zinegotzi Luis Mariano Gomezek, ostera, abstentziora jo zuen: "Gure ustez, errenta kontuan hartuta egin behar da; ez da zuzena gehiago dutenek eta gutxiago dutenek berdin ordaintzea".

Bi kontrataziotarako pleguak

Irabaziko zinegotziak bi mozio aurkeztu zituen: bata, Udalen kompetentzien murrizketaren aurkakoa, eta bestea, etxeko langileendako lan duinak eskatzeko. Biak ala biak aho batez onartu zituzten.

Bi kontrataziotarako pleguak ere onartu zituzten: batetik, Ibarra kiroldegiko kirol zerbitzuak kontratatzeke bi urterako –beste bi urtetara luzagarria–. Horren harira, EH Bilduk eskatu zuen ereduaren gaineko azterketa sakona. Eta bestetik, etxerik etxeko laguntza zerbitzua lau urterako kontratatzeke pleguak –beste bi urtetara luzagarria–.

Zerga eta tasa aipagarrien aldaketak

KPI, %0,3ko, igoera

- Ibilgailuak
- Kanposantuko zerbitzua
- Kirol guneen errenta
- Udal guneen errenta
- Udalen materiala alokatzea
- Tabernetako terrazak
- Ikastaroak
- Pausoka

5 euroko igoera

- Ludoteka
- Udaleku irekiak
- Pintura eskolak

%1,5eko igoera

- Kiroldegiko zerbitzua

Igoerarik ez

- Hondakinak
- Ura
- Obra txikiak
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga
- Hirigintza baimenak

Abian da edukiontzi bidezko hondakin bilketa sistema

Eguaztenaz geroztik dabilta erabiltzen edukiontziak herritarrak eta ez da egon inolako ezustekorik

M.A. ARETXABALETA

Astelehen eta martitzenean jarri zituzten edukiontziak kaleetan eta eguaztenean hasi ziren horiek erabiltzen. Esandakoa baino beranduago etorri da sistema aldaketa, baina "normaltasun osoz". "Edukiontzien kokapenagatik bizilagun batzuen kezak iritsi zaizkigu. Horiek aztertuko ditugu, baina aldaketa handirik ezingo da egin. Gainerakoan, ez da egon arazorik", adierazi du Unai Elkoro alkateak.

Industrialdeetan, ostera, ez da izango aldaketarik; orain arte legez pasatuko dira hondakinak jasotzera. Eta komertzioetan kartoia eta hondakin organikoak atez ate jasoko dituzte.

Birziklatze-tasari utsi

Elkororen esanetan, sistema berriarekin "birziklatze-tasei utsi" egingo diete herritarrek:



Edukiontziak Loramendi kalean. M.A.

"Gainerako herrietan emaitza onak dituzte; hortaz, gurean zergatik ez?". EH Bilduk ere "%80tik gorako sailkatze-tasari eusteko helburua" gogorarazi du, eta sozialistek "birziklatze-maila hobetzeko" dei egin die herritarrei.

Gurasoendako heziketa saioetarako izenematea zabalik

Nerabezaroan, 12 eta 17 urte bitartean, seme-alabak dituzten gurasoendako antolatutako heziketa saioak atzeratu egin dituzte; hona data berriak: azaroak 12 eta 26 eta abenduak 15. Oraindik zabalik dago izena emateko epea eta horretarako Arkupera jo behar da edo Gazteria Zerbitzura: gazteria@aretxabaleta.eus edo 943 71 18 62 (Maidar).

Bizikletak konpondu eta GPSa erabiltzen ikasteko eskolak

Loramendik ikastaro bi antolatu ditu. Bizikletak konpontzen irakatsiko dute urriaren 26an eta azaroaren 2an eta 9an, udal-letxe zaharrean (18:30). Eta GPSa erabiltzen erakutsiko dute azaroaren 4an, 5ean eta 19an (egubakoitzean, 18:30ean eta zapa-tuetan, 09:00etan). Izena emateko: 685 75 67 29 eta loramendielkartea@gmail.com.

Ibilgailu klasikoekin beteko da Herriko Plaza domekan

25 urtetik gora dituzten ibilgailuen topaketa egingo dute Herriko Plazan datorren domekan, hilaren 23an. Harrera egingo diete 11:00etan, eta mokadutxoia izango dute gero partaideek 12:30ean. Ibilgailuekin herriari buelta emango diote 13:00etan eta zozketak egingo dituzte 14:00etan. [Zabalago *Puntua* aldizkarian *Motorrak* sailean].



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Parte hartze ordenantza definitzeko bilerak abian

Ibon Carmona ARETXABALETA

Aretxabaleko Udalak parte hartze ordenantza definitzeko prozesua hasi zuen pasa den udan. Hala, Udalak parte hartzea sustatzeko eta arautzeko marko teoriko-praktikoa zehaztu eta adostu nahi du, bide batez, aretxabaletarren artean gaiaren gaineko gogoeta pizteko.

Bada, prozesua lehenengo fasean dago; fase horretan, prozesuaren aurkezpena eta parte hartzearen gaineko gogoeta egingo dituzte. Ordezkarri politikoeekin eginiko

aurkezpen eta eztabaiden ostean, urriaren 10ean talde eragileak lehenengo batzarra egin zuen. Hain zuzen ere, talde hori prozesuaren antolaketaz, koordinazioaz eta jarraipenaz arduratuko da.

Herritarrekin bilera

Bigarren fasera pasatu aurretik, herritarrek ere prozesuan parte hartuko dute. Horretarako, datoren asteartean bilera egongo da Arkupe aretoan, 18:30ean. Bertan, aretxabaletarrek gaiaren gaineko proposamenak egingo dituzte.

Hiru fase

Prozesua aurrera eramateko, hiru fase zehaztu dituzte; gogetari dagokion lehenengo faseaz gain, bigarrenean, araudiaren gaineko proposamenak landuko dituzte; hirugarrenean, berriz, behin behinoko testuaren oinarriak adostuko dituzte. Unai Elkoro alkatearen esanetan, prozesua zabor biltzetaren gaineko kontsultarekin batera etorri zen; "Kontsulta hori aurrera eramateko, udal ordenantza bat behar genuen egin; izan ere, ez zegoen kontsulta au-

rrera eramatea ahalbidetzen zuen udal legerik. Prozesu horrek luze joko zuela ikusita, EH Bildurekin akordio batera iristea pentsatu genuen, kontsulta aurrera eramanez eta ordenantza prozesua martxan jarritz".

EH Bilduko Jon Albizuren esanetan "kostata" izan den arren, baikor azaldu da prozesuak hartu duen norabidearekin. "Oinarritzakoa ez da mekanismo edo baliabidea, parte hartzea Udalaren egunerokotasunean sartzeko bai-zik", gehitu du. Irabaziko Luis Mariano Gomezen ustez, berriz, prozesua "tramite hutsa da", jendearen parte hartzea sustatzeko baino gehiago, legea betetzeko bakarrik balio duelako. Azkenik, PSOEko Miren Lanari "ideia paregabea" iruditzen zaio udalak aurrera eramanez duen ekimena.



NIRE USTEZ

YERA SANCHEZ
MU-KO IRAKASLEA

Zain

Ilustrazioari buruzko ikastaro batean izan naiz irailan. Album ilustratuak aztertu ditugu eta, gehienbat, emakumearen irudiari erreparatu diogu.

Eztabaida handia piztu du aurten album horietan azaldu den irudi jakin batek. Istorioak kontatzen zuen emakume bat zain zegoela etxeko logelan, zain noiz iritsiko ote zitzaion eskutitz bat etxera, zain ere agian bere laranja-erdia helduko zen. Emakumea, leihotik begira, postariaren zain zegoen.

Bestalde, irudian zera azaltzen zen: emakumea ohean etzana, zain, Goyaren Maja margolanaren pose-moduko batekin eta puntillazko kamisoi tiranteduna soinean. Lurrean, zera, zapatila borladunak, bonboi-kaxa bat, egunerokoa, ispilua eta musika entzuteko gailua zituen. Esan gabe doa guztia arrosa-tonu pastelezkoan azaltzen zela.

Irudiak sekulako iskanbila sortu zuen. Nola da posible emakumea horrela irudikatzea? Eta, are larriago, nola da posible, gainera, emakume ilustratzaile batek emakumea horrela irudikatzea?

"Eta zuek nola irudikatuko zenukete zain dagoen emakume bat?", galdetu zigun, orduan, irakasleak. Horrelakoak bota genituen: Ordenagailu parean lanean! Mahai baten atzean! Pintura eta koaderno artean! Whatsappekin jo eta su! Twitterren! Tesia egiten, liburuz inguraturik! Irakurtzen, edo idazten! Telesail bat ikusten!

Proposamen alternatibo ugari eman genituen, baina, egia esateko, ez genuen inork irudikatzen gure burua printze urdinaren zain... Auzia hortxe zegoen, istorioak adierazten zuenarekin, hain zuzen, emakumeok ez dugula inoren zain gelditu behar etxeko logelan.

Elkarteetako ordezkarriak prozesuaren gainean



IDOIA ELEXPURU ARETXARTEKO PRESIDENTEA

"Herritarri arreta zerbitzu bat falta zaiola pentsatzen dugu; izan ere, jende askok ez daki nora jo herriko kontu edo zalantza ezberdinen aurrean. Modu horretan, aukera sorta handi bat irekiko litzateke, herritarra gai ezberdinen gainean informatuko lukeena".




MARTIN BERRIZBEITIA LORAMENDIKO DINAMIZATZAILEA

"Lehen bilera gaien kokatzeko izan zen, eta oraindik ez daukagu parte hartze prozesuaren gaineko iritzi sendorik. Hasierako kontaktu bat izan zen. Hurrengo bileretarako, Loramendi elkartetik proposamen ezberdinak eramateko intentzioa daukagu".



AGURTZANE ELKORO UDA-KO PRESIDENTEA

"Oraingoz, diagnostiko fasean gaude. Hasiere batean, azaldu zigutenak oso itxura ona dauka, baina oraindik ez dakigu ongi prozesua zertan gauzatuko den. Hurrengo bileretan, herriko elkarte handienak bilduko gara berriro, eta pauso finkoak ematen hasiko gara".



JOSE INAZIO ISASMENDI BASOTXOKO PRESIDENTEA

"Taldea eragilea herriko elkarte ezberdinek eta udaleko hainbat kidek osatzen dugu. Azaroan berriro elkartuko gara, eta, Basotxoren partetik, oraindik ez ditugu erabaki mahai gainean jarriko ditugun proposamenak, baina herritarrek eguneratuago mantentzea izango dute oinarri".

Basotxokoak Galizia aldean

Basotxo erretiratu elkarteak Galizian izan ziren urriaren 2tik 8ra. Elkartearantz, egun bat baino gehiagoko urteko azken irteera izan da, aurretik Benidorm eta Normandia inguruak bisitatu ostean.

Guztira 54 lagun joan ziren, eta bertako hainbat paraje ezagutu zituzten; tartean, Ezaroko ur-jauzia.



BASOTXO ELKARTEA

"Jendearen arretarekin jolasten dugu magooko"

IMANOL ITUIÑO MAGOA

Magia ez da umeentzako; umeek ikusi dezakete, noski, baina magiak, fundamentu logikoak hausten dituen unetik, helduei zuzenduta dago erabat

Imanol Beloki **ESKORIATZA**

Domekan Eskoriatza magiaz beteko da. Izan ere, Imanol Ituiño magoa kultura etxean izango da 12:00etan, magiari buruzko tailerra ematen. Umeentzako izango da, eta bertara joateko izena ematea beharrezkoa izango da. Arratsaldean, aldiz, 17:00etan, *Magia Parrastan* ikuskizuna eskainiko du Zaldibar antzokian, eta hau adin guztiei zuzendutakoa izango da.

Zer erakutsiko duzu tailerlean?

Domeka goizeko tailerra umeentzako izango da. Bertan, trikimailu errazak ikasiko dituzte gerturatzen diren gaztetxoek. Espero dut euren anai-arreba zein gurasoak txundituta utziko dituztela trikimailu horiekin...

Edonork egin dezake magia?

Edonork egin dezake trikimailu bat, edonork abesti bat abestu dezakeen bezala. Trikimailuak tranpa duela ahaztean publikoak izaten duen sentsazioa da magia. Beraz, edonork egin dezake trikimailu bat. Eta, nire ustez, nahikoa praktikatuta eta funtsak ondo ikasiz eta ulertuz gero, gogoia duen edonork egin dezake magia.

Halako tailer asko ematen dituzu, ala ikuskizunak gehiago?

Nire lan printzipala ikuskizunak egitea da, baina noizbehinka



Imanol Ituiño magoa. IMANOL ITUIÑO

tailerrak emateko aukera ere izaten dut, eta pozik egiten dut hau ere. Magia tailerrak egiteak hurrengo belaunaldietan ere magiarenganako interesa izango duenik egotea bermatzen duela pentsatzea gustatzen zait. **Nolako esperientzia da haurrei magia egiten irakastea?**

Oso zaila da haur bati magiak tranpa duela azaltzea. Magian, azken finean, gezurtxoak esan behar dira, eta gezurrak helduon gauzak dira. Askotan ez dira gai oso ondo bereizteko trikimailuaren zein parte erakutsi behar

duen eta zein sekretuan gorde. Honek oso ondo erakusten du zein oker dauden magia umeentzako dela uste duten horiek. Magia ez da umeentzako; umeek ikusi dezakete, noski, baina magiak, fundamentu logikoak hausten dituen unetik, helduei zuzenduta dago erabat.

Tailerraz gain, ikuskizuna eskainiko duzu. Nolako saioa izango da?

Magia parrastan-en horixe bera ikusten da, magia etengabe, parrastan, *a tutiplen...* Ez da argumentua duen ikuskizuna, magia baino ez da. Adin guztie-

takoentzat egokia. Ez da umeentzako bereziki pentsatutako saioa, familiarra baizik. Umeek eta helduek parte hartuko dute eta magiaren zati inportante bilakatuko dira.

Ze ezberdintasun dago mago baten eta aktore baten artean? Ezberdintasun handia dago?

Badago magoen munduan esatera bat zeinak dioten magoa aktore bat baino ez dela botereak dituen tipo baten paperean sartzen. Ni ez nago oso ados horrekin. Aktoreak asko miresten ditut, hainbat paper ezberdinetan eta egoera ezberdinetan sartzen dute euren buru eta gorputza eta istorio bat sinesgarri egiten dute euren ahots, keinu eta gorputzarekin. Hori bai magia. Mago bat, ordea, paper bakarra egiteko gai da, magoarena. Noski, ondo dago magoak errekurtsio aktoralak izatea, publiko aurrean egiten duelako lan, baina aktoreak magoaz gehiago duela uste dut magoak aktoreaz baino.

Lagunak erabiltzen dituzu trukuak egiteko, konpintxeak?

Magian badago sinatu gabeko paktu bat ikusleekin. Ni ikuskizun baten zehar engainatzen saiatuko naiz tranpak erabiliz, noski, eta zuk, tranpa hori bilatu beharrean, ikuskizunaz gozatuko duzu eta ez diozu zure buruari galdetuko nola egin dudun, hori baita magiaren funtsa, ezinezkoa egia bihurtzea. Baina konpintxe bat erabiltzea gehiegizko tranpa litzateke. Ikusleak espero du eskuen bizkortasuna, atentzioa bideratzea eta horrelako estrategiak erabiltzea. Dena konpintxe batekin egingo balitz, ni baino tipo goapoago bat ekarriko lukete ikuskizuna ematera... Beraz, ez, ez ditut gogoko konpintxeak, eta ez, ez

ditut erabiltzen. Garesti ateratzen dira, gainera...

Beti esan ohi da publikoak despistatu egin behar dela; nola egiten da hori? Hitz eginez? Askok mugituz?

Despistatu baino gehiago, jendearen arretarekin jolasten gara askotan, guk nahi dugun lekura guk nahi dugunean begiratu dezan. Orrialde honetan adibide bat jarri dugu, orrialde zenbakiaren ondoan, begiratu. Oso txikia da, baina zenbakiaren ondoan ikurtxo bat dago, ea ikusten duzuen... Antzoki batean antzeko zer edo zer egiten dugu, ikur horren antzera. Agertokian beste teknika batzuk erabili daitezke: gorputzaren mugimenduak, hitzak... Zailena, askotan, umeen atentzioa bereganatzea izaten da, ez baitute heldu batek izan dezakeen arreta berbera. Bide batez, lehen, zenbakiaren ondoan begiratu duzu? Horrela bada, zure atentzioa desbideratu dut, modu oso zuzen eta zakarrean, behar bada, baina ezer ez zegoen toki batean ikur bat bilatzen ibili zara. Barkatu.

Honen harira, sari bat irabazitakoa zara hitz egin gabeko magia pieza batekin. Konta egiguzu esperientzia?

2014. urtean bigarren sari nazionala eman zidaten. Niretzako, erronka bat zen hitzik gabeko pieza bat sortzea, nik beti asko hitz egiten baitut saioetan. Horrenbestez, hori sortu nuen, batez ere, eszenan isilik egoten ikasteko eta amari isilik 10 minutu egoteko kapaza nintzela erakusteko.

"PRAKTIKATUTA ETA FUNTSAK ONDO IKASIZ ETA ULERTUZ, EDONORK EGIN DEZAKE MAGIA"

Izaro Andres Zelaietaren kontzertua Inkernu tabernan

Folk estatubatuarrez bustitako pop doinuak entzuteko aukera izango da gaur gaueko kontzertuan

Imanol Beloki **ESKORIATZA**

Izaro Andres Zelaieta mallabitar musikari gazteak Inkernu tabernan kontzertua eskainiko du gaur, 23:00etan. Atxorrotx Kultur Elkartek antolatutako emanaldian, folk estatubatuarrez

bustitako pop doinuak entzuteko aukera izango da. Ahots fin eta pertsonala ekarriko du ohol-tza gainera, Lauroba taldekoek lagunduta.

Om izeneko bere lehen disko hamahiru kantuz osatutako

bilduma ekarriko du Eskoriatzara. Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez abestutako erreperitorioan, hainbat kantu eder daude. *Paradise* da horietako bat. Kantu hori Ben Sharrock eskoziarraren *Pikadero* filmaren soinu bandan erabili zen, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zena. Bestalde, Youtubean ia 41.000 ikustaldi izan ditu abestiak, eta, kantu horretaz gain, *Honey* kantuak ere bere arrakasta izan du, Gaztea irratiko zerrendetan izan da eta.



Udazkenari ongietorria egiteko, Ezkurtxo

Duela hogeit hamar urte hasi zen Jose Arana ikastolaren ekimen hau martxan, nahiz eta bi urtetan geldiuena egin zen berrikuntza batzuk egiteko; urtero elizate ezberdin batean egin izan da eta aurtengoa Apotzaga elizatean bikain ospatu dute jaiak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Badira hogeit hamar urte Ezkurtxo jaiak asmatu zela Eskoriatzan. Batez ere, Eskoriatzako elizateak herriarrei eta, bereziki, haurrei ezagutarazteko abiatu zen egitasmoa da. Duela hogeit hamar urte hasi bazen ere, bi urtez etenaldia egin da, berrikuntza batzuk egiteko, eta aurtengoa hemezortzigarren aldiz egin da jaiak Apotzaga auzoan. Aurtengoa, gainera, hirugarren itzuleraren hasiera izan da. Apotzagan bertan azkeneko 2007an egin zen.

Urriaren hirugarren zapatuan egin ohi den Arizmendik antolatutako jaietan, urtero huts egin ez duen ipuin kontaketa, antzinako jokoak, tiragomekin jolasak, eski jolasa, harriekin petanka, goitibeherak, txokolate-jana eta beste hainbat ekintza izan ohi dira. Zapatuan, 15:30etan, Intxaurtxuetatik autobusean abiatu ziren Apotzaga elizatera Jose Arana eta Almeneko ikasleak –bi urtetik gorakoak eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailara artekoak– eta arratsalde pasa ederra egin ostean, 19:00etan bueltatu ziren Eskoriatzara. Eguraldia lagun izanda, giro aparta izan zen bertan, eta Ezkurtxo maskotarekin gus-tura aritu ziren haurrak jolasean. Guztira, 300 pertsona inguru batu ziren bertan, haur, senitarteko, irakasle eta herritarrak barne.

Helburuak beteta

Eskoriatzako zazpi elizateak ezagutzeko –Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutz–, euskara eta irakurzaletasuna bultzatzeko eta lagun artean eta familiarekin batera egun ona pasatzeko helburuarekin antolatutako jaiak bere fruituak eman zituen, gainera. Jose Arana ikastolako irakasle Lierni Altunaren esanetan: "Gure zuhaitz bat haritza da, eta Jose Aranaren zigilua



Ezkurtxo Eguna, Apotzaga elizatean. JOSE ARANA IKASTOLA

ELIZATEAK EZAGUTU, IRAKURZALETASUNA SUSTATU ETA EUSKARA BULTZATU NAHI DA

edo marrazkia ezkur bat zen, eta da. Hortik abiatuta ezkurtxo sortu genuen, udazkenarekin lotu eta ikastolaren identitatearekin lotuz. Horrez gain, euskarari eta irakurzaletasunari bultzada ematea du oinarri jaiak".

Egun aparta, ekintzaz beteta

Apotzaga auzora iritsi berri, San Bernabe ermita bisitatu zuten bertaratu zirenek, eta ondoren denetarik ekintzak izan ziren haurrentzako. Beste urte batzuetako edizioekin alderatuta, parte-hartzea handiagoa izan zen. Izan ere, autobusak hiru buelta eman behar izan zituen autobus geltokian zeudenak elizatera eramateko, beste edizio batzuetan ez bezala. Gainera, duela hamar urte inguru Arantzazu Idigoras gurasoak sortutako *Ezkurtxo* abestia ere ikasita eraman zuten txikiak, eta

Jose Arana ikastolakoek ezkurtxoren irudiaren maskarekin abestia kantatzen pasa zuten arratsalde osoa. Hona hemen kanta: *–Ezkur bat, ezkur bi / udazkena etorri / Ezkur bat, ezkur bi / saltoka zu eta ni / aurtengo neguan / elurra ugari / ezkur bat, ezkur bi / zuhaitzetik erori–*. Amaitzeko, txokolate-jana egin zuten eta Eskoriatzara 19:00etan bueltatu ziren, autobusez, egun ederra pasa ostean.

Jose Arana guneko arduradun Amaia Arrietak egunaren balorazio positiboa egin du: "Giro aparta izan zen Apotzagako elizatean, eta, autobusak hiru buelta egiteaz gain, oinez eta autoetan igo ziren eskoriatzar eta aretxabaletar ugari. Ea datorren urtean ere halako arrakastatsua izaten den".

Elizateez gain, Ezkurtxo herrian

Zazpi elizate daude Eskoriatzan, baina inoiz Gatzaga ere sartu dute Ezkurtxo jaiaren barruan, nahiz eta herria izan, eta ez elizatea, bertako haurren gurasoen eskaerei erantzunez bigarren itzuleran egin zen eta bertan egiten jarraitzea ere adostu dute antolatzaileek.

Orokorrean ez dute igoerarik izango zerga eta tasek

Ordenantza fiskalen barruan, kirol zerbitzuan eta uraren kostuaren kobrantzan aldaketak izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako urriko ezohiko osoko bilkuran hainbat puntu landu ziren, baina azpimarratzekoa 2017rako ordenantza fiskalak aldatzeko hasierako onarpena izan zen. Orokorrean ez da igoerarik izango, baina aldaketa batzuk egongo dira. Bederatzi baiezko eta bi abstentzio-rekin –Bildurena eta Irabazirena– onartuak geratu ziren ordenantza fiskalak.

Honen aurretik, aldiz, Kuartuena parean udal lurrak Diputazioari uzteko sinatu zuela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak. Eta esan zuen Diputazioak laster hasiko dituela lanak bertan. "Oinezkoentzat zebra-bide bat eta semaforoa jarriko da, oinezkoak alde batetik bestera pasa daitezten".

Ordenantza fiskalei dagokionez, orokorrean ez da igoerarik egongo, baina hiru tasatan aldaketak egongo dira. IBian, esaterako, baina aurretik tratatu zen gaia eta Diputaziotik jakinaraziko die herritarrei. Bestetik, kirol zerbitzuen kostuak %1,4ko igoera izango du eta hainbat arrazoi eman zituen Joserra Zubizarreta alkateak:

"Duela lau urtetik ez ditugu igo, eta zerbitzu aldetik hobetu egin dugu; ordu gehiago jarritz...".

Kontsumo arduratsua sustatu

Uraren kostuaren kobrantzan ere aldaketa egongo da. Ur agintziatik %2,74ko igoera izan da, eta, beraz, etxebizitzetan ere aldaketa egongo da. Orain arte, etxebizitzetako erabiltzaileek gastu finko bat izan dute, eta orain baxuagoa ordaindu behar da: 18 euroko gastu finkoa, hain zuzen ere. Hortik aurrera, herritarrek gastatzen dutenaren arabera izango da. Horrez gain, "tramuka kobratuko da kontsumo zuzena. Hor ere aldaketa izan da; kontsumo baxua dutenek gutxiago ordainduko dute eta gehiago gastatzen dutenek gehiago, kontsumo arduratsu baten alde", adierazi zuen alkateak.

Amaitzeko, hainbat gai atera zituzten EH Bildukoek mahai gainera: Eskoriatzako zerbitzuen hondakin sistemaren aldaketa egin dela, batzordeetan eztabaidatu barik. Merkataritzaren egoera ez dela ona, eta Udalarekin elkarlanean sustatu behar dela... besteak beste.

Martxan da Auzoko egitasmoaren ikasturte berria Eskoriatzan

Zalantzak argitzeko 661 74 63 76 telefonora deitu daiteke eta Asier de la Flor arduradunagatik galdetu

Goiena komunitatea

AUZOKO / ESKORIATZA

Batzuentzat ezaguna izan daitekeen arren, beste batzuentzat ez. Hortaz, Auzoko egitasmoak Eskoriatzan duen eragina gehiago ezagutarazteko asmoz, tarte hau ekarri dugu zuengana. Euskara, aniztasuna eta herritarrak batzen dituen egitasmoa da Auzoko, elkarbizitza euskaraz bideratzeko asmoa duena: auzokideen –euskaratik urrun bizi direnak– eta auzotarren –euskaratik gertu bizi direnak– arteko harremana erraztea da

helburua. Izan ere, guztiok gara eskoriatzarrak. Hori guztia oinarri izanik, hiru dira egitasmoaren helburu nagusiak: euskaratik urrun daudenak euskarara hurbiltzea, herritarrak herriko hizkuntza aniztasunaz jabetzea eta euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza gisa proposatu eta frogatzea. Astero, kultura etxeko lehen solairuan, jatorri ezberdinetako 20 lagun inguru elkartzeko dira, bi talde-tan: martitzen goizetan, 11:00etan, emakume taldea; eta eguenetan, 15:00etan, talde mistoa.

"Zergatik emakumeen saskibaloia?"

Eskoriatza Kirol Elkarteko zuzendari teknikoa da Lander Goikoetxea, eta emakumeen saskibaloian urte askoan ibili da entrenatzaile. Emakumeak entrenatzearen alde onez eta bere esperientzia azalduz hitz egin du hurrengo lerroetan

Goiena komunitatea

Eskoriatza KE / ESKORIATZA

Urte asko daramatzat saskibaloia entrenatzaile, eta beti emakumeen saskibaloian aritu naiz. Hori izan zen Eskoriatzara etortzeko arrazoi handietako bat; izan ere, elkarteko saskibaloia arloa femeninoa da bakarrik. Lehenengo momentutik ez nuen inongo zalantzarik izan, emakumeen saskibaloia entrenatzea zen nire asmoa, horretarako prestatuko nintzen, eta lan honetan ona izatea izango zen nire helburua.

Lehenengo eta behin, niri ez zait fisikoan oinarritutako saskibaloia gustatzen, zentzuzko saskibaloia daukat gustuko. Gizonezkoen gorputzak muskulu-masa gehiago dauka emakumeenak baino, ez daukate gure abiadura, gure indarra, gure jauzi-potentzia, baina badaukate guk, gizonezkook, orokorki ez daukagun gauza bat, euren burmuina gurea baino azkarra-



Lander Goikoetxea. ESKORIATZA K.E.

goa da gauza askotarako. Sentitzen dut hau irakurtzen ari diren gizonezkoengatik, baina emakumeak gu baino hobeak dira arlo horretan, beharbada testosterona dela-eta kutsatuak ez daudelako. Badakit askok zer pentsatuko duzuen: "Bai, burua

argi daukate, baina ez dute gizonek ematen duten espektakulua ematen". Hori pentsatzea askotan ezjakintasunaren ondorioa da. Baina bai, espektakulua ere badago saskibaloia femeni-noan.

Dena den, argi eduki behar dugu entrenatzaile oso gutxi lortzen dutela lan honetaz abarastea, nire helburua ez da dirua irabaztea. Baina nire lanaren sari bezala gauza asko hartzen ditut; esaterako, jokalarien partetik datozen esker oneko keinuak. Honetan ere, emakumeak gu baino sentiberagoak dira, enpatia landuagoa daukate, eta, hortaz, gizonezkoak baino esker hobekoak dira, bai euren entrenamenduetako lanarekin eta bai euren hurbiltasunarekin.

Nire ekarpena egin nahi dut mundu honetan daukagun emakumeen gutxiespenaren kontra, nire energia erabili nahi dut. Beraiek ere guk daukagun aukera berak izan ditzaten.



GOIENA

Urre kolorez margotuta

Aurreko zapatuan, urriaren 15ean, Jose Arana kaleko kono guztiak urre kolorez margotuta agertu ziren goizaldean, herritarren harridurarako. Eta konoez gain, Eskoriatzako Udalari zuzendutako mezua ere ageri zen lurtean idatzita tonu umoretsuan: *Udalak konuak atara zittuen kalera. Behin betiko gainera? Urrezkuak balie sikiera!*

Droga menpekotasunaz aritu dira kultura etxeako saioan

Droga menpekotasunaren prebentzioaren gurasoen esku-hartzea tailerra izan zen eguaztenean Eskoriatzan. Hezkuntza foroak antolatu eta Izar Arregi terapeuta azpeitiarrak gidatutako saioan, kontsumo kezkarria zein den eta gurasoek hartu behar dituzten neurrien inguruko hitzaldia eman zuen kultura etxean.

Bi saiotan banatuta zegoen, 17:30etan euskarazkoa eta 19:00etan gaztelerazkoa, baina soilik saio bakarra egin zen, 19:00etako.

Kasu errealek planteatu zituzten bertan, eta, egoera horiek aurreikusteko, nerabeen bizimodua, ikasketak, aisialdia... aztertu zituzten droga menpekotasuna arriskutsua den edo ez jakiteko. Eskoriatzako hainbat guraso bertaratu ziren, eta euren zalantzak eta egoerak konpartitzeko aukera izan zuten.

LEINTZ GATZAGA

Egitarau zabalarekin ospatuko dute domekan Gatzaren Eguna

Produktu ekologikoen azoka, mendi ibilaldia, ikastaroak eta beste zenbait ekintza izango dira

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA Gatzaren Eguna ospatuko dute etzi, domeka, Leintz Gatzagan.

Izenak berak dioen moduan, gatz izango da egunaren ardatz nagusia, eta, horren bueltan,

zenbait ekintzaz osatutako egitaraua prestatu du udalak.

Goizean, egunari hasiera emateko, gaztainatan mendi ibilaldia egongo da, familiendako, 10:30ean hasita. 12:30ean, gatzetan erreko

dituzte gaztainak danbolinean, ondoren jateko.

11:00etatik 14:00etara bitartean, gatzaren eta baserriko produktu ekologikoen azoka egongo da -barazkiak, gaztak, gozogintza, ezti, eta abar-.

Bestalde, Gatz Museoa ikusgai egongo dira aurten landutako produktu berriak -xaboiak eta esfoliatzaileak-, baita orain arte landu izan diren gatz lorea eta zaporedun gatzak ere -piperrauts eta currya-; 11:00etan,

12:00etan eta 13:00etan izango dira bisita gidatuak.

Horrez gain, gatz xaboiak egiten ikasteko ikastaroa ere egongo da museoan, 11:00etan. Horretarako, baina, aurrez eman beharko da izena.

12:00etatik aurrera, saiheski ekologikoa gatz mota desberdinekin dastatzeko aukera egongo da; izan ere, parrillan erreta pintxoak egongo dituzte.

Plazan, sorkuntza eta parte-hartzea oinarri, tailerrak izango

dira, Garaion elkartearen eskutik. Mural bat margotuko da, gatzarekin eskulturak egingo dira, gatz erabiliz kristal baten gainean marrazkiak egingo dira eta honen grabazioekin ikus-entzunezko laburrak egingo dituzte, besteak beste.

Azkenik, Poza de la Sal eta Añana herrietatik etorriko dira, bertako gatz eta eratorritako produktuak eskaintzera. Izan ere, gatzarekin lotura handia duten herriak dira biak.



Zabaleta Azpikoa baserriko bizilagunak eta senideak, Juan Martin Guevararekin eta saioko beste kideekin. MARIASUN OIANGUREN

Che Guevara eta Angiozar, lotuta

Iraultzaile argentinarraren arbasoetako bat Zabaleta Azpikoa baserritik irten zen XVIII. mendean. Ameriketara joan eta zuhaitz genealogikoan aurrera eginda han ageri da komandantea. Ernestoren anaia Juan Martin jatorrira itzuli da berriki, ETBren eskutik


Julen Iriondo BERGARA

"Jakitea bere arbasoak, bere aurrekoak, non eta ni bizi naizen baserrian jaio zirela! Pozik hartzeko gauza izan zen". Angiozarko Zabaleta Azpikoa baserriko Juan Mari Alberdiren berbak dira. Zabaletatarren ostean beste zenbait jabe ere izan eta gero, azken belaunaldietan albertidarrarena da etxea. Che Guevararekin (Argentina, 1928-Bolivia, 1967) odol loturarik ez, baina haren arbasoetako bat gaur egun euren den etxean jaio zela jakitea harriduraz eta "izugarriko ilusioz" hartu zuten berak eta Mariasun Oianguren emazteak –eta gainerako senideek–.

ETBren Origen saioari esker jakin ahal izan zuten honen guztiaren berri. Ernesto Che Guevararen jatorri euskalduna hartu zuen aztergai programak, eta haren anaia gazteena gonbidatu Euskal Herrira. Ez da

Zabaleta guevaratarren euskal jatorriko abizen bakarra; Guevara bera, noski, eta Llosa ere bai. Arabako herrira eramane zuten Juan Martin, baita Zierbenara ere –amaren bigarren abizen Llosari segika–, eta, nola ez, albertidarraren Angiozarko baserrira.

Beharrak eraginda Ameriketara Arazo ekonomikoak tarteko, 1707an utzi zuten zabaletatarrek Angiozarko baserria. Francisco Antonio Zabaletak ameriketara alde egin zuen. Haren berri bazuten guevaratarren etxean, eta ETBren saiorako egindako aurre-lanketan, Gipuzkoako Pro-



Domingo Zabaletaren testamentua. GIPUZKOAKO PROTOKOLOEN ARTXIBOA



Ernesto Che Guevara. GOIENA

tokoloen Artxiboan, Oñatin, topatu zuten Francisco Antonioren eta haren familiakoen gaineko informazioa. Dokumentuak aztertuta, baieztatu ahal izan zuten guevaratarren arbaso hura zela Angiozarko baserriko bera. Francisco Antonioren ahaide Domingoren testamentua, horren adibide; horrela dio parteetako batean –beheko argazkian nabarmenduta–: ... *Sean cuantos esta escritura de testamento y última voluntad vieren, cómo yo, Domingo de Zabaleta, dueño de la casa y solar de Zabaleta de Abajo...*

Itzultzeko gonbidapena

Martxoan egin zuten saioaren grabaketa –aurreko astean eman zuten–. Kameraz kanpo, nahi beste ezin izan zuten Juan Martinek jardun: "Gizon oso jatorria ikusi genuen". Eta gonbidapena egin zioten, nahi duenean itzultzeko: "Esan genion hemen baduela etxe bat". Bere arbasoetako batena izan zen etxea; eta nork daki etxeak berak ez ote dituen bertakoak, bai lehen eta bai orainago, iraultzara bideratu edo harekin lotu. Orain ia 40 urte, halaxe, Iraultza, deitu baitzuten Juan Marik eta Maria-sunek euren seme-alabetako bat.



Grabaketako unea. M.O.

"Erabat harrিতuta zegoen"

RAMON MARTIN
ARTXIBOZAINA

Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan egiten du lan. Berak eman zion Juan Martin Guevarari ahaide zabaletatarren gaineko informazioa.

Nola hartu zituen zure azalpenak?

Erabat harrিতuta zegoen, ez zuen espero: astebetean bere jatorriari buruzko hainbat informazio berri eman zioten. Oso natural hartu zuen, baina erabat



JULEN IRIONDO

harrিতuta zegoen. Ameriketara zenbait dokumentu zahar gordetzen dira, baina gutxi, eta, gainera, oso eliteko pertsonenak. Hemen oso dokumentu arruntak mantendu dira, notarioaren aurrean egindakoak, eta abar; eta han, berriki, bakarrik gorde dira familia garrantzitsuenak eta. Sustraien gainean oso gutxi jakin ohi dute, eta liluraz hartzen dute.

Ameriketako askok topatuko lukete Oñatin informazioa...

Gurekin harremanetan jartzen diren erabiltzaileen ehuneko polita dira hangoak. Hona etortzen direnean eta dokumentuak ikusten dituztenean, euren jatorria ezagutzen dutenean, hunkitu egiten dira oso. Juan Martin Guevararen kasuan beste era batera izan zen, ziur aski ekimena ez zelako berea izan.

GORBEIAKO Erruleta



3.500€ EROSKETA TXARTELETAN
ETA 2.300 SARI ETA DESKONTU BAINO GEHIAGO
MEDITERRANEOAN ZEHARREKO BIDAIA

PARTE HARTZEKO GORBEIA MERKATARITZA PARKEKO EDOZEIN SALTOKITAN EROSKETA BAT EGIN BEHAR DUZU, STAND-ERA ZURE EROSKETA-TIKETAREKIN HURBILDU ETA BOTOIA SAKATU.

 Parque Comercial Gorbeia

Sustapen honek 2016ko urriaren 21etik azaroaren 19ra balio du.


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Kontsultatu oinarri osoak hemen:
centrocomercialgorbeia.com



DECATHLON

Norauto



merkal
calzados



CIMER
el outlet del electro



ASIAN CENTER

Mr. Wok
asian bistro



Viajes



Rodriguez: "Elkarlana da euskalgintzaren funtsa"

Soziolinguistikan aditua den bizkaitarrak 'Sutondoko kontuak' izeneko bere lehen liburua aurkezteko hitzaldia eskaini du asteon Irizar jauregian, Jardun euskara elkarteak antolatutako 'Hasi etxetik... eta euskaraz mundura' zikloaren baitan.

Maite Txintxurreta BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatutako *Hasi etxetik... eta euskaraz mundura* zikloaren baitan, soziolinguistikan aditua den Txerra Rodriguezek bere lehen liburua aurkeztu zuen eguaztenezan Irizar jauregian: *Sutondoko kontuak*.

Liburu horretan, denetarikoa istorioak, umore ariketak eta pasadizoak bildu ditu autoreak, guztiak ere soziolinguistikarekin eta haren dibulgazioarekin lotuta daudenak. Izan ere, Rodriguezek uste du gai honekin "batzuetan serioegiak eta askotan aspergarriak" direla adituak.

Hala, liburuko zenbait pasarte irakurri eta horiei buruzko hausnarketa egin zuen Rodriguezek, betiere, umore tonua mantenduz. Esaterako, azkenaldian dezente entuzten den euskalgintzaren eta feminismoaren arteko lotura izan zuen hizpide. Ahalduzaren kontzeptua edo "norberarengandik hastea"



Rodriguez, libururekin. M.T.

lantzearen garrantzia azpimarratu zuen, borroka kolektiboekin ere uztartuz, betiere: "Edozein bide da beharrezkoa".

Bertaratutakoak ere itaundu zituen, galdetuz ea nor erabakitzen duen koadrila baten gaztelaraz egitea.

Rodriguezek azaldu zuen euskalgintzaren funtsa "elkarlana" izan behar dela, eta ezinbestekoa dela "sarea osatzea".

Iñigo Asensioren dokumentala

Ziklo beraren baitan, urriaren 26an, eguaztenez, 19:00etan Zabalotegi aretoan Iñigo Asensioren *Euskara Munduan-Bestein ahotan* dokumentalaren emanaldia eta solasaldia izango da.

Munduko hainbat herrialdetan euskaraz ikasteko hautua egin duen jendea da ikus-entzunezko horren protagonista.

Berriketan

Jardunen mintzapraktika egitasmoan izen ematea zabalik dago. Lagunartean euskaraz praktikatu nahi dutenak Jardunen Errotalde jauregiko bulegoan apuntatu daitezke, baita 943763661 telefonoan edo *jardunkultura@topagunea.com* helbidera idatzita ere.

Laboratorium museoak badu Interneteko ataria

'www.laboratorium.eus' webgunea estreinatzeaz gain, sare sozialetan ere presente izango da museoa

Maite Txintxurreta BERGARA

"Mundura zabaltzeko ordua iritsi dela uste dugu, eta zentzu horretan Internetek ematen dituen aukerez baliatuz gara", adierazi du Maite Agirre kultura zinegotziak Laboratoriumen webgunearen aurkezpenean.

www.laboratorium.eus da webgunea, eta Netkam enpresa izan da beraz egiteaz arduratu dena.

Museoko teknikari Rosa Errazkinek azaldu du Parisko Art et Metiers museoaren atariaren diseinuan oinarritu direla. "Di-

seinu erakargarria, bisuala eta, batez ere, erabilerraza" egin nahi izan dutela esan du.

Webguneak eskaintzen duena

Atarian museoaren inguruko denetarikoa informazioa topa daiteke: batetik, informazio praktikoa (ordutegia, agenda...) eta bestalde, aurkezpena, Errege Seminarioari buruzko informazioa edota Laboratoriumeko bilduma osatzen duten piezei buruzkoa, besteak beste.

Ataria euskaraz eta gaztelaraz dago, momentuz, baina azaroa-



Webgune berriaren itxura. GOIENA

ren erdialderako ingelesez eta frantsesez ere izango da.

Webgunea estreinatzeaz bat, Facebook eta Twitter sare sozialetan museoari buruzko kontu bana ireki dute.

Bisita gidatua

Bihar, zapatua, Mikel Alberdik, Laboratoriumen ikusgai dagoen Bergarako Besarkadari buruzko erakusketaren komisarioak, bisita gidatua eskainiko du, euskaraz. 11:00etan izango da hori.

Osintxuko fusilatuei aitortza egingo diete asteburu honetan

Biharko, egubakoitza, goizean, Intxortako lubakietara bisita gidatu antolatu dute. Gauean, berriz, 22:00etan Joseba Tapiaren kontzertua izango da Osintxuko plazan. Eta domekan, omenaldi handia. 12:00etan meza egingo dute, eta ondoren aitortza, beraien omenezko monolitoan. Bost fusilatuen senideak ere bertan izango dira.

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina abian da

Aste honetan jarri dute martxan aurtengo gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Bergarako anbulatorioan 10:00etatik 16:30era bitartean jarri daiteke txertoa, aurrez txanda eskatuta. Txertoa jartzeko kanpaina hau bereziki 65 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago, baita gaixotasun kronikoren bat duten horiei eta haurdunei ere.

San Joxepeko kulturaldia eta Lizarrara irteera

San Joxepe erretiratuen elkarreko Kulturaldia borobiltzeko, gaur, egubakoitza, Oñatiko Iku-si Makusi taldearen *Hospital o manicomio* antzezlanak izango da 17:00etan Ipintza institutuan. Bihar, berriz, bazkaria izango dute 14:00etan elkartean. Azaroaren 10ean erretiratuek irteera egingo dute Lizarrara. Eman izena azaroaren 6a baino lehen.

60koen, 58koen eta 42koen kintadak azaroaren 5ean

1960an jaiotakoek Zumelagan afalduko dute. Izena eman Igarza harategian edo Barrenkaleko estankotan 10 euro aurreratuz, 29a baino lehen. 1958koek Etxagin izango dute kintada. Tiketak Etxagin eta Usoan salgai. 1942koek Azpeitxin bazkaria. Aurreratu 20 euro Laboral Kutxako 0091149888 kontuan, 2a baino lehen.



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

Euskal izenak Espainian

Normalean, oporrak pasatzera iparraldera jo izan dugu, baina azken urteetan (epeltasun bila edo...) bizpahiru aldiz hegoaldera joan izan gara, *España profunda* aldera.

Gauza batek atentzioa eman dit: zenbat euskal izen entzuten diren familia espainolen artean... "Iker, ven paqui"; "parate quieta, Leire", "Ander...", "Nagore..."

Horren zergatia galdetu izan diot sarritan nire buruari. Arrazoiaren bat egon behar da, eta hiru hipotesi bururatzen zaizkit:

1-Euskal Herria exotikoa iruditzen zaielako? Ummm, ez dut uste. Niri Afrika beltza exotikoa iruditzen zait eta ez diet nire alabei *Zunduri* eta *Mandungi* deitu.

2-Espainol askok euskaldun izan nahi dutelako eta beraien seme-alaben izenekin hasten direlako? Ummm, ez dut uste. Hori baino lehen zezenketak txapela eta gerrikoarekin egiten hasiko zirela uste dut.

3-Rajoyren taktika bat da? Euskaldunak gustura sentitu gaitzen Espainia aldean?... Ummm, hipotesi zuzena?

Nik proposamen bat daukat hau konpentsatzeko: gure aitona-amonei derrigortutako izen espainolak hasi gaitzen gure seme-alabei jartzen: Natalio, Katusko, Pancracia, Hermenegildo, Mariano... Marianooooooooo...

Azaroaren 3an hasiko dute ikasturte berria taila eskolan

Datorren azaroaren 3an, eguena, emango diote hasiera 2016-2017 ikasturteari Zabalotegiko taila eskolan. Izena emateko interesa dutenak edo eskolei buruzko argibideak jaso nahi dituztenak egun horretan pasatu daitezke taila eskolatik, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Helbidea honako hau da: Zabalotegi kalea 11, behea.



Bergarako senior mailako talde argazkia, duela bi aste klubak antolatutako aurkezpen ekitaldian. IMANOL SORIANO

Eibar Agorrosindik esku hutsik joan zenekoa

Joan den astean senior mailako emakumezkoek 2-1 hartu zuten mendean Eibar indartsua, eta Bergarako entrenatzaile Manu Diazek sare sozialetan hausnartu du garaipen horrek ekarri duenaz: "Sekulako lana egiten dabilta neska hauek"

Xabier Urzelai BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak apustu estrategikoa egin du emakumezkoen futbola sustatzeko. Klub barruan talde asko dituzte, eta seniorrak poliki-poliki hasi dira emaitzak ematen. Joan den astean, esaterako, Eibar talde indartsua hartu zuten mendean (2-1, golak Olatz Azkaratek eta Irune Errastik). Hala ere, helburua ez da epe motzean emaitza onak batzea: "Benetako helburua da neskek ikustea Bergaran kirol ibilbide osoa egin dezaketela, futboleko jokalariak dezaaketela kategoria txikietatik harago, kanpora joateko beharrik izan barik. Orain arte hutsune hori izan dugu".

Arizmendi, lider

Eibarri irabazita ere, oraingoz beste talde batzuk indartsuagoak dira. Arizmendik urteak daromatza emakumezkoen futbola sustatzen, eta igarri egiten da hori. Lider daude (12 puntu), eta gertu daukate Mondra (10 puntu).



Nesken futbolaz hausnartzen

MANU DIAZ BERGARA KE-KO ENTRENATZAILEA

Momentu gogoangarriak bizi izan ditut entrenatzaile moduan. 90eko hamarkadan kategoriaz igo zen Bergarako bigarren entrenatzaile izateko ohorea izan nuen Lauri Azkargorta, Asier eta Aitor Elortza, Ibarra, Arriola, Etxaniz eta konpainiarekin. Gaur egun lehenengo taldean dauden hainbat jokalarik entrenatu nituen kadete mailan: Mardaras, Macho, Navas edo Arruti, esaterako. Gazte mailan, luzapenean zazpi partidu irabazi zituen Bergara zuzendu nuen, inoiz amore ematen ez zutelako. Talde hartan zeuden Asier Beitia, Aitor de Benito, Josu Diaz, Asier Alberdi, Aitor Elizburu... Bergarak mailaz igo zuen azken taldean izan nintzen, Soto, Otero, Agirre, Cabanillas, Martinez, Alzola, Urteaga, Agirrezabal, Loliola, Oregi eta gainontzeko jokalarik ikusgarriekin, Igor Fernandez laguntzaile neukala. Eta, iaz, nire txikiekin Kopa irabazi genuen penaltien txanda amaigabe baten ostean. Horiekin guztiekin izugarri gozatu dut, eta batez ere ikasi egin dut asko. Uste nuen sentsazio hori ez nuela osterara ere biziko, baina berriro gertatu da, eta oraingoz nesken talde batekin.

Kategoria honetan Eibarri irabaztea da, beste modu batean esateko, R. Madril taldeari irabaztea moduan, eta horretarako oso gogor entrenatu behar da, astean hirutan, eta futbol zelaian sufritzen jakin, talde moduan jokatuz. Mutilen moduan. Esandakoa ulertu ez duenak etor dadila neska hauen partidu bat ikustera, eta hala ere, ulertu barik jarraitzen badu, ahaztu dezala futbola, ez da bere kirola.

Bizikleta Festa egingo du Lokatzak etzi, Seminarioan

Bizikletaren erabilera eta ziklismoa sustatzeko jaien herriko ziklista profesional eta amateurrek hartuko dute esku

Xabier Urzelai BERGARA

Lokatzaren eskutik domekan egingo dute Bizikleta Festaren beste edizio bat. Ekimen nagusiak gaztetxoek zuzenduta egongo dira, eta Lokatzak urtean zehar egiten dituen ekitaldietan ohi moduan, Seminarioko patioan umeek bizikletarekin jolasteko aukera izango dute: "Egunaren programa domeka eguerdian hasiko da, 12:00etan. Bizikletekin ibiltzeko zirkuitu bat egongo da Seminarioan, eta bertan Bolintxo okindegiak eskainitako pintxoak egongo dira. Eta, Jardunek ere jolasak antolatuko ditu", adierazi dute ziklismo eskolatik.

Erreferenteek lagunduta

Festa borobiltzeko, Lokatzako harrobiak emandako hainbat ziklista profesional eta amateur izango dira gaztetxoekin erre-



Gaztetxoa bizikletan. GOIENA

tratuak eta sinadurak egiteko gertu. Hutsune bat izango da; izan ere, Murias-Basque Country taldeko Eneko Lizarralde ez du denboraldia amaitu, eta Chrono des Nations proban lehia-tuko da.

Igeriketa txapelketa bihar goizean Agorrosinen

Bihar, hilak 22, Gipuzkoako Igeriketa Federazioak eta Bergarako Igeriketa Taldeak antolatuta igeriketa txapelketa egingo dute Agorrosinen: "Aukera aparta, horrenbestez, herriko igerilariak zuzenean ikusi ahal izateko", adierazi dute klubetik -ikastaroak berdin mantenduko dituzte-. Txapelketa 09:00etatik 14:00etara egingo dute.

Juan Cruz Mendizabal eta 'Lagun' txakurra txapelkunak Araban

Joan den domekan, hilak 16, ehiza txikiko Euskadiko Txapelketa jokatu zuten Zanbranan (Araba). Beteranoen mailan, Juan Cruz Mendizabal *Xurra* bergararra izan zen irabazlea, *Lagun* txakurrarekin batera. Bergarako ehiztariak bost eper eta fisaia ehizatu zituen eta horri esker lortu zuen, bigarren urtez, txapela janztea.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Koru ahotsak eta organo doinuak Santa Marinan

Organo Erromantikoaren XVII. zikloa ospatzen dihardute Bergaran, Azkoitian eta Azpeitian, eta, horren baitan, bihar, zapatua, Donostiako Koruko Andre Maria Musika Kaperaren kontzertua izango da, Alize Mendizabal organo jolearekin batera

Maite Txintxurreta BERGARA

Bergaran, Azkoitian eta Azpeitian egiten diharduten 17. Organo Erromantikoaren Zikloaren baitan, bihar, zapatua, Donostiatik datorren Koruko Andre Maria Musika Kaperaren kontzertua izango da, 20:00etan hasita, Santa Marina elizan.

2014an sortutako musika kaperara da Bergaran arituko dena, eta musikari profesionalak zein zaleek osatzen dute taldea. Garai desberdinetako erlijio musika jorratzen dute.

Organo Erromantikoaren Zikloa izanik, instrumentu horrek lagunduko die Koruko ahotsei. Alize Mendizabal izango da organo jolea. Abesbatzaren zuzendaria, berriz, Andoni Sierra da, Lucia Gomez mezzosopranoa eta Jesus Gartzia baritonoa.

Bergararrak Loiolan

Beste alde batetik, ziklo beraren baitan, eta kasu honetan ere bihar, zapatua, Azpeitiko eta



Koruko Andre Maria Musika Kaperara. KORUKO ANDRE MARIA MUSIKA KAPERARA

Bergarako organo ikasleek kontzertua eskainiko dute Azpeitiko Loiolako basilikan, 12:00etan.

Bergarako Musika Eskolako ordezkariak izango dira Elena Laka bergararra, Eugenio Etxebeste arrasatearra, Mikel Ansolamarkinarra eta Bergaran bizi den Leo Juaristi azkoitiarra. Euretako bakoitzak pieza bana joko du.

Bergarako ikasleendako ez da Loiolako basilikan joko duten

lehen aldia izango, ziklo beraren baitan beste behin ere egon ziren eta. Beraz, ezagutzen dute. Elena Lakak dio agertoki "berezia" dela, eta bertako organoa jotzea "Ferrari bat gidatzea bezala" dela dio. Izan ere, Cavaille-Coll organoa da, hiru teklaturduna.

Hain zuzen, zapatuko kontzertu hori berezia izango delako, Bergarako organo ikasleak buru-belarri entseatzeko ibili dira azken asteotan.

Santos de la iglesiaren kontzertua

Goiena komunitatea

Stoltz-Frères Organoaren

Lagunak

BERGARA

Domeka honetan, urriak 23, Jose Santos de la Iglesia Ugarte organista entzutetsuaren kontzertua izango da Bergarako Stoltz-Frères Organoaren Lagunen Elkartek antolatuta. Emanaldia 19:00etan izango da Santa Marina elizan.

Elkarte honek antolatutako emanaldi guztietan bezala, kontzerturako sarrerak best euroko prezioa izango du, eta bertatik eskuratutako irabaziak San Pedroko elizan dagoen Stoltz-Frères organoaren konponketara bideratuko ditu elkarteak.



Jose Santos de la Iglesia. S.F.O.L.E.

Organo joleari buruz

Jose Santos de la Iglesia organo azterketak Madrilgo Errege Kontserbatorioan egin zituen, eta estatu mailako organo musikaldi nagusietan hartu du parte. Parte hartu

du, halaber, Euskadiko Orkestrako Auditorioko organo zikloetan eta Valentziako musika jauregiko organo handian. Europan zehar ere hainbat emanaldi egin ditu.

Horrez gain, organoaren aditu bat da; izan ere, instrumentuaren gaineko hainbat liburu kaleratu ditu, eta Arabako, Errioxako zein Gaztela-Leoiko organo historikoak birgaitzeko lanetan aritu da.

Bergarako kontzertuan txakona bariazioak eta *passacagliak* biltzen dituen erreperitorioa joko du Santos de la Iglesia. XVII. mendetik XX. mendera bitartean idatzitako zortzi pieza interpretatuko ditu.

"Jende asko etortzen da filmak ikustera eta parte hartzera"

XABIER SANCHEZ DYNAMO ZINEKLUBEKO KIDEA
Eguaztenero pelikula bat ematen dute gaztetxean

Maite Txintxurreta BERGARA

Martxan da berriro ere Kartzela Zaharreaan Dynamo zinekluba. Eguaztenero, 21:00etan pelikula bat proiektatzen dute. Datorren astean *Donnie Darko* filma izango da ikusgai gaztetxean.

Nola doa ikasturte berria?

Oso ondo. Beste urte batzuekin alderatuz, jende asko ari da filmak ikustera etortzen, eta antolaketa taldean ere inoiz baino jende gehiago bildu gara. 15 pertsona inguru gara, eta arduratzen dago denon artean. **Eguaztenero 21:00etan. Zer dela eta aukeratu duzue ordutegi hori?** Aste barruko egunetan zerbait desberdina egin ahal izateko aukeratu genuen eguaztena. Eta 21:00ak ordu egokia iruditu zitzaigun, aste barruko eguna izanik, filmak ez daitezkeen oso berandu bukatu.



Xabier Sanchez. XABIER SANCHEZ

Zelakoa da antolaketa?

Horizontala da. Bilera gutxi egiten ahalegintzen gara, eta astero kide bana arduratzen da pelikula hautatzeaz eta proiektzioaren hasieran aurkezpen txiki bat egiteaz. Muntai auzolanean egiten dugu, eta bukatzean denon artean jasotzen dugu. Parte hartu nahi duen edonorentzat atek zabalik dauzkagu, jar da dila gurekin harremanetan.

Bertsolariak izango dira eguaztenean Mizpirualde egoitzan

17:30ean hasita, Maider Arregi oñatiarra eta Jexux Mari Irazu arituko dira bertsoaren nagusien egoitzan. Hirugarren urtez Foru Aldundiak eta Lankuk martxan jarri duten *Adin-adin* egitasmoaren baitan kokatzen da Bergarako hitzordua. Bertsolaritzak duen potentzial terapeutikoa zein ludikoa nagusien egoitzetara gerturatzea da helburua,

Kopla Barik helduendako bertso eskola martxan da

Bergarako Kopla Barik bertso eskola martxan da berriro ere honezkero. Kartzela zaharrea egiten dituzte saioak bi astean behin, eguaztenez, 19:30etan hasi eta 21:00ak arte, lagunarteko giroan bertsoaren praktikatzeko. Interesatuak edo informazio gehiago nahi dutenak Jardun euskara elkartearekin jar daitezke harremanetan: 943763661.

Patxi Larrionek 'Feriataileak' liburua aurkeztuko du

Iruñean bizi den Patxi Larrion bergararrak bere lehen liburua argitaratu du: *Feriataileak*. Urriaren 26an, eguaztena, aurkezpene egingo du Irizar jauregian, 19:00etan. 1969an Urbasan eta Iruñean filmatu ziren *Patton* pelikularen zenbait eszena, eta bertako lantaldean ziharduten Martin Galdeano eta Luis Urria dira eleberriarren protagonistak.

Umeentzako eta helduentzako ipuin kontaketa bana

Bi ipuin kontaketa izango dira datorren astean. Martitzenean, hilak 25, Maite Frankok helduentzako saio bat eskainiko du 19:30ean Irizar jauregian. Bestalde, egubakoitzean, urriak 28, 3 urtetik 6-7 urte bitarteko haurrendako beste saio bat izango da, kasu honetan Lupe Lekuonaren eskutik. Saio hori 18:00etan izango da, Udal Liburutegian.



GERTURATU ETA HAMALAU

UDAZKENEAN ERE, GOIENA TELEBISTA

goiena[“]
ZU HEMEN ZAUDE



Goizperrek emandako kamisetekin talde argazkia atera dute 49 neska-mutikok asteen. MAIDER ARREGI

Pilota bihotzean eta historian daukan herria

Antzuolako 49 neska-mutikok abiatu dute Olalde pilota elkartearekin aurtengo denboraldia; asteen, gainera, herriko Goizper enpresak emandako kamiseta berriekin denek elkarrekin atera dute talde argazki masiboa Udal pilotalekuan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aritz Berraondo, Aitor Mendizabal... lehen mailako pilotariak eman dituen herria da Antzuola. Horregatik, herri txikia izan arren, ez da harriztekoa gaur egun pilota zaletasunak daukan dimentsioa eta indarra herrian. "Osasuntsu dago Antzuolako Olalde pilota elkarteak. Geroz eta haur gehiago animatzen da pi-

lotan jokatzera. Pentsa, aurten 49 neska-mutikok abiatu dute denboraldia: 20 alebin, 26 benjamin, bi kadete eta jubencil bat", azaldu du Olalde elkartearen entrenatzaile eta epaile Joseba Azkaratek. Aurten, gainera, bederatzi neska animatu direla esan du: "Iaz neska bakarri animatu zen, baina zaletasuna goraka doa eta aurten bederatzi

neska animatu dira parte hartzera; pozgarria da hori ere".

Pilota elkartearen kideak oso pozik daude pilota zaletasuna haziz doalako urtero herrian: "Pilotarekiko harreman oso estua izan dugu antzularrok. Betiche egon da zaletasuna herrian. Izan ere, lehen, herri txikiengan ez zegoen aukera askorik kirola egiteko eta nugu-

49 NESKA-MUTIKO ANTZULARREK ABIATU DUTE PILOTA DENBORALDIA

siki pilotan jokatzeko ohitura egoten zen".

Disfrutatzea helburu

Ondo pasatzea, harremanak estutzea eta lagunak egitea ere badela helburua diote elkartearen kideek. "Alebinetan eta benjaminetan, helburua ondo pasatzea da; horretarako, jokoak egiten ditugu euren arteko elkarlana edo konfiantza lantzeko, besteak beste", argitu du Azkaratek.

"Gehien gustatzen zaiguna jokoak egitea da. Taldetxo bat elkartzeko gara eta sakeak ere entrenatzen ditugu", kontatu dute aurten hasi berriak diren gaztetxoek.

Denboraldi hasiera

Oñatin abiatuko du Olalde elkarteak bihar, zapatua, denboraldia. Ilusioz entrenatzen dabilta biharko. Gaztetxoek, ordea, oraindik ez dutela txapelketetan parte hartzen argitu du Azkaratek.

Antzuolako Udalen Olalderen lana azpimarratu eta txalotu gura izan du. Balorazio positiboa egin dute. "Antzuolan lehenengo mailan jokatu duten eta jokatzeko pilotariak ditugu eta horrek eragina izan duela uste dugu. Pilota elkartearen aurten dagoen parte-hartze kopurua oso positiboa da. Azpimarratu eta zoriondu egin gura dugu Olalderen lana", dio Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

Herriko gaztetxo pilotazaleak



AIORA LEGORBURU ANTZUOLA

"Aurten pilotan jokatzeko ikastera animatu naiz. Asko gustatzen zait eta lagun taldearekin izena ematea pentsatu dut. Eta lagun asko egin ditut. Partiduren bat edo beste ikustera ere animatzen naiz. Urtero Aitor Mendizabalek herriko jaietan jokatzeko duena, esaterako".



OÑATZ PEÑAGARIKANO ANTZUOLA

"Aurten hasi naiz lehen aldiz jokatzeko. Partiduak jokatzeko asko gustatzen zait, baita entrenamenduan egiten ditugun lagun arteko jolasak ere. Mendizabal, gainera, nire bizilaguna da eta nire erreferentea da jokoan. Ondo jokatzeko du eta bere jarraitzaile naiz".



NIRE USTEZ

MARIJO DEOGRACIAS 'MARIJODEO@GMAIL.COM'

Kontuak hola!

Kontuak egiten ibili naiz eta niri bai "kontuak ateratzen zaizkit ongi": 19 urte. Hala dira bada kontuak; *Kontuola* sortu genuela, alegia (1997ko irailaren 12an atera zen lehenengoa). Antzuolan hola erabaki genuen esatea kontuak: hasieratik alboko herriko notizietan batera kontatuko genituen Antzuolakoak. Ez genekien artean, eskualdera ere zabalduko zirela gerora! Harrezkero ere joan dira urte batzuk: Goienkaria atera zela, 16 urte (2000ko abenduaren 1ean). Eta hola joan dira ia bi hamarkada, kontuola-kontuola hamabostero eta Antzuola-Antzuola astero, gero. Bi orri izango dituzte atzera ere Antzuolako kontuek Goiena berrituan. Eta asko poztu naiz hori jakitean; beti baita atsegina antzularrek

esateko dituzten kontuak irakurtzea, eta orri bik ematen dute baita elkarrizketak egiteko parada!

Gogoan dauzkate oraindik *Kontuola*-n agertu zirenak: gure zaharren memoria astintzen ibili nintzeneko sasoikoak: haien gaztarokoak, auzoetako ohiturak eta jaietakoak. Ez zen hasieran behintzat erraza izan protagonistek baietz esatea, baina joan ziren ohitzen haiek ere inportanteak zirela herriko berrietan. Izan ere, herriko aldizkaria notizia berriekin osatzen den eran, gerora herritarren memoria bihurtzen da. Hala eta hola, bada, kontuak; hasieratik gehiago, gainera, Antzuolan: *Kontuola!*

"Margotzen dudanean negar egiten dut"

KOLDO MADARIAGA MARGOLARIA

Erakusketari esker margolaria dela jakin dute herritar askok eta harritu egin dira; olio teknikaz eginiko 53 margolan ikusgai izan dira jendaurrean Olanen etxean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Koldo Madariagak (Antzuola, 1933) betidanik izan du pintura, musika eta arterako zaletasuna. Gaztetatik gustatu izan zaio margotzea. Ez da inoiz pintura klastetara joan; baina etxeko ganbaran emandako orduak uzta oparoa eman dute. Orain, herriri ganbaran daukan altxorra erakustera animatu da.

Ezkutuan marraztu izan duzu beti.

Bai; ganbaran dut nire txokoa. Erakusketa herriarendako deskubrimendua izan dela diote. Askok ez zekiten margotu egiten nuenik. Baina, niretako, gozarena izan da. Musika entzunez margotzen dut. Bakarleriak gustatzen zaizkit: Lertxundi, Laboa... horiek entzutean, negarrez hasten naiz. Asko hunkitzen naiz. **Zer marraztea gustatzen zaizu?** Argazkietan edo aldizkarietan ikusten ditudan paisaiak. Lan koloretsuak egiten ditut.

Zenbat lan dituzu?

Auskalo! Erakusketan 53 bat lan ditugu. Baina etxean ia beste horrenbeste ditut. Lan asko, ordea, botata ditut. Hasieran ikatzarekin margotzen nuen eta erretratuak egiten nituen. Garbiketa egin genuen ganbaran eta bota egin genituen, pena! **Gaztetan ez zen horren erraza izango margotzeko materiala lortzea, ezta?**

Markoak saltzen zituzten lekuetara joaten nintzen; Donostiara, esaterako. Beti nenbilen galdezka; zaila zen materiala lortzea. Olatan egiten nituen nire lehen lanak. Maristetan maisu batek laguntzen zidan. Baina nire kasa ikasi nuen.

Zergatik erabaki duzu orain erakusketa jartzea?

Etxekoek, lagunek eta Kultura teknikari Jone Larrañagak animatu ninduten. Egia esan, orain arte ez nuen intentziorik eta erreparoa ematen zidan; baina orain, pozten naiz animatu izanagatik. Margotzen jarraitzeko



Madariaga lanik kutunena esku artean daukala, Olanen. MAIDER ARREGI

indarra eman dit erakusketak eta jendearen harrera ezin hobea izan da. Asko poztu nau, bene-benetan. Eskerrik asko denoi! **Zein artista duzu erreferente?** Joaquín Sorolla dut gustukoan. Hark erabiltzen duen kolorea

eta paisaiak –emakumeak eta hondartza nagusiki– asko gustatzen zaizkit. Horregatik, gurutuen dudana lana itsasertzean itsasontziak jolasean dabilen neskatilarena da (ikusiko argazkia).



Antzuolako txokoak presente

"Erakusketari esker, Antzuolako txokoaren gaineko margolan gehiago egiten hasiko naiz. Erakusketan Antiguako errotako margolana soilik jarri dut ikusgai, baina ea animatzen naizen eta txoko gehiagoren erretratuak ateratzen ditudan", dio Madariagak.



Egubakoitzean dokumentala estreinatzen zuten, Olanen etxean. MAITE TELLERIA

Auzoko, errotuta dagoen herriko ekimen integratzailea

Auzokideak eta auzotarrak eguenetan elkartuko dira Olanen etxeko lehen solairuko lehen gelan, 17:30ean

M. A. ANTZUOLA

Pasa den egubakoitzean aurkeztu zuten herrian Auzoko proiektuaren gaineko dokumentala: *Auzokoak: Elkarrekin eta euskaraz bizitzea lortu daitekeelako*.

Izan ere, egun herrietan bizi dugun aniztasuna kontuan hartuz, askotariko jatorrietako herritarrak euskarara gerturatzeke hainbat egitasmo jarri ditu martxan Euskaltzaleen Topaguneak azken urteetan. "Elkarrekin eta euskaraz bizitzea posiblea dela erakusten diguten proiektuak dira, eta horretarako ezinbestekoa da euskaldunon ekarpena. Mezu hori zabaltzen laguntzeko egin da dokumentala", azaldu dute.

Olarango emanaldian 40 pertsona inguru batu zen. "Dokumentala ikustera etorri ziren herritar guztiei eskerrik asko. Giro goxoan elkartu ginen, eta guztiek dokumentala hunkigatzen zuten; bidaltzen duen mezua oso positiboa dela ere komentatu zuten", azaldu du Auzoko ekimeneko dinamizatzailea Maite Telleriak. "Egitasmoan parte hartzen duten auzotarren borondatezko lana eskertu gura dut. Haietako gabe Auzoko egitasmoa ez litzateke existituko. 20 pertsona inguru dira zuzenean parte hartu dutenak eta beste horrenbeste zeharkako modu baten Auzokora hurbildu direnak: haurrak, gazteak, helduak, emakumeak eta gizonak. Herritarren artean ezaguna den proiektua da, Antzuola herri solidarioa dela argi geratu da, beste behin", nabarmendu gura izan du Telleriak.

Eguenero saioak

Auzoko ikasturtea hasi da. Urriaren eguenetan egingo dira saioak Olango lehen solairuko lehen gelan, 17:30ean.

Barrua hobeto ezagutzeko doako ikastaroa egingo dute

Nigan: Barnetasunaren heziketa gurasoendako eta helduendako izeneko ikastaroa eskainiko du Jesus Matak hilaren 25ean, 18:00etan. Ikastaroaren helburua da norberaren barrena zelakoa den ikustea eta hobeto egoteko zer egin dezakegun aztertzea. Izena emateko: nigan@yahoo.com edo 669 132 900 telefonora deitu. Doako ikastaroa da.

Gai libreko argazki lehiaketa abian da antzuolarrendako

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez, hiru argazki aurkeztuko ditu. Lanak koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke. Antzuolakoendako edo herrian bizi direnendako da. Lanak udalategian aurkeztu behar dira; azken eguna azaroaren 21a. Lanak baloratzekoan, kalitate tekniko, artistikoa eta originaltasuna hartuko dira kontuan.



lazo Arimen Gaueko ikuskizuna egin zuten gazteetako bi hilerrri inguruan zain. LARRAITZ ZEBERIO

Aurten ere beldurgarri dator Arimen Gaua

Laugarren urtez ospatuko dute herriko neska-mutikoeak, eta seigarren mailako ikasleak ari dira 'Karlismen altxorraren bila' ikuskizuna prestatzen. Antzinatik dator kalabazak edo arbiak hustu eta bide bazterretan ipintzeko usadioa, Elgetan

Larraitz Zuberio ELGETA

Aurten ere Arimen Gauerako iratzarriko dira Mikelen eta Maritxuren hilotzak. Badira hiru urte ez dutela hutsik egiten, eta, ordutik, urtero gogoratzen dute beraien zorizaiztoko maitasun istorioa, Elgetan. Aurten ere seigarren mailako ikasleek eskutik etorriko da ikuskizuna,

eta hasita daude prestatzen. Iluntasunak herriko kaleak hartuko dituen abiaraziko da kontakizuna, urriaren 28an, barikua. "Urriko bigarren aste bukaeran hasi ginen elkartzeko, eta berehala egin genuen pertsonaien banaketa. Hamaika neska-mutikok hartuko dute parte ikuskizunean. Orain, nor bere papera ikasten

ari da, eta adierazmena lantzen ari gara", azaldu du arduradun lanak egiten diharduen Nerea Villa elgetarrak. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da.

Kondairak gonbidatuko ditu herriko neska-mutiko gazteagoak karlistaren altxorra bilatzera. "Zortzi geldialdi egingo ditugu. Herriko plazatik abiatuko gara

eta geldituko gara elizako arkupean, Maialde hotelean, Uruburuko txaboletan, San Roke kaleko atean, frontoi zaharrea, frontoi zaharreko gaineko plazatxoan, eta hilerrian. "Herriko plazan amaituko dugu; izan ere, bertan erreko ditugu Mikelen txapela eta Maritxuren buruko zapia".

Gozokiak denendako

Gozoki banaketarekin amaitu ohi da Arimen Gaueko ikuskizun berezia Elgetan, eta aurten ere horrela izango da. Antolatzailerak jakinarazi dute denendako egongo direla, baina ez direla bukaerara arte banatuko.

Gomendatzen dute argia egiteko linterna eramateko. "Frontoi zaharrea ez dago argirik eta hilerrian ere ez. Linterna beharrezkoa izango da altxorra topatzeko", esan du Villak. "Garantzitsua da baita ere eskatu ezan protagonistak ez jarraitzea, eta kontuz batez ere hilerrirako igoeran. Aurten edonor ikartzeko moduko ezusteak izango dira tarte horretan. Adi ibili!". Erraz ikaritzen diren hurrekin kontuan hartzeko gomendioa da honakoa. Ibilbideko gainerako tarteetan ez dela horrelakorik egongo jakinarazi dute.

Arimen Gaua laugarrenez

Laugarren urtea da herriko neska-mutikoendako Arimen Gaua antolatzen dutela, Elgetan. "Halloween indartsu dator, baina

Euskal Herrian bazegoen ohi-tura arbiak hustu eta bide bazterretan ipintzeko. Horrela kontatzen dute herriko nagusienek", azaltzen du Villak. "Herriko neska-mutikoeak jakin behar dute hemen Arimen Gaua ospatzen dela, eta uste dut apurka-apurka hasi direla ulertzen. Horrelako kontuek, gainera, arrakasta handia dute umeen artean eta hori nabaria da urtetik urtera egiten den ikuskizunak arrakasta polita izaten duelako".

Kalabazak prestatzen

Aurten ere auzolanean hustuko dituzte, Elgetan, Arimen Gauerako kalabazak. Eguenerako, hilak 27, egin dute hitzordua Herri Eskolako ganbaran, 19:30ean. Xabier Sabajanes gurasoaren laguntzarekin hustuko dituzte kalabazak. "Komeni da ume bakoitzak bere koilara ekartzea hustuketa lana egiteko. Labanak behar dira begiak eta ahoak perfilatzeko, baina helduek egingo dute lan hori", esan du guraso elkartetik. Kalabazak herrian ipintzeko dira.

Izen-abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina berezia

Elgetarrek udal bake epaitegitik bidera dezakete eskaera martitzenetan 09:00etatik 14:00etara

L.Z. ELGETA

Zerbitzua ez da berria. Urteak dira Elgetako udal bake epaitegitik izen-abizenak euskal grafia aldatzeko eskaerak bideratzen dituztela. "Herritar asko etorri izan dira", azaldu du epaitegitiko Ricardo Mirandak. Tramitea herrian bertan egin daitekeela gogorarazteko, Elgetako Udalak bat egin du Uemaren *Euskaraz naiz* kanpainarekin. "Dokumentu ofizialetan norbere abizenak euskal grafiaz idazteko zailtasunak eta debekuak izan genituen. Denborarekin euska-

rak bideak ireki ditu. Herritarrek beren abizenak euskal grafiaz jartzera gonbidatu nahi ditugu", adierazi du euskara zinegotzi Janire Lazkanok.

Eskatzaileek jakin behar dute errolatuta dauden herriko bake epaitegian egin behar dutela eskaera. "Ekarri behar dituzte nortasun agiria, errolda agiria eta jaiotze agiria", azaldu du Mirandak. "Ezkonduta egonez gero edo seme-alabak izanez gero, familia liburua ere bai".

Elgetako bake epaitegitik Bergarako erregistro zibilera bide-

ratzen dute eskaera, eta prozesuak bizpahiru hilabete irauten du, gutxienez.

"Epaileak aldaketa onartutakoan jasotzen dugu guk izen-abizenen grafia jaiotze agirian aldatzeko baimena. Hortik aurrera, interesatuak nortasun agiri berria eskatu behar du", azaldu du Mirandak.

Adingabeak

Grafia aldaketa seme-alabendako eskatu nahi izanez gero, bi gurasoen baimena eskatzen dute bake epaitegian. "Guraso batek hartzen duenean izen-abizenak euskal grafia aldatzeko erabakia eta nahi badu seme-alaben kasuan ere aldaketa aplikatzea, prozesu hori espediente bakarretik bidera daiteke, baina bi gurasoen baimena behar dugu", azaldu du Mirandak.

Domeka goizerako mendi irteera Andraitzera

Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak uda osteko lehenengo irteera antolatuta du domekarako, urriak 23. "Andraitzera igoko gara Zegamako geralekutik. Bide polita da Aizkorriko mendietara beste leku batetik igotzeko", adierazi dute. Lau edo bost bat orduko mendi ibilbidea dela adierazi dute, eta eskatu dute parte hartzaileak adinez nagusi izatea.

Parte hartzea herritar guztiei dago zabalik. Taldea 08:00etan abiatuko da herriko plazatik automobiletan. Garraio gastuak ordaintzeko prezioa hamar euro da. Interesatuak kantsateke@gmail.com jasoko dituzte argibide gehiago.

Elgetan emango diote amaiera Euskadiko bolo txapelketari

Zapatuan eman zioten hasiera 2016ko Euskadiko bolo txapelketari, Markinan. Lau jardunaldi izango ditu aurten, eta Elgetan jokatu da azkena azaroaren 12an.

Azkenaldian moduan Elgetako bolariak taldea osatu dute txapelketarako. Partaideak dira Xabier Ortuzar, Geaxi Ezpeleta, Gorka Bereziartua, Sebas Aranzabal eta Pedro Guenaga. Markinan jokatu du jardunaldiari buruz esan dute: "Hasiera nahiko txarra izan genuen hiru joan ginen, eta gehienok huts egin genuen". Zapatuan jokatu dute txapelketako bigarren jardunaldia. Soraluzeko Ezoziko bolatokia izango da, 17:00etan.

Ipuinez beteta dator Liburutegiaren Eguna

Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekintza gertatu ditu udal liburutegiak. Gaur, esaterako, bi urtetik gorako neska-mutikoendako ipuin kontaketa saio berezia egingo du Geaxi Ezpeletak, 17:20an

Larraitz Zeberio ELGETA

Errotuta daude, Elgetan, herriko boluntario talde baten eskutik udal liburutegian hamabostean behin egiten diren Ipuinen Ordua izeneko saioak. Ikasturte berria martxan da, eta aste honetako saioa berezia izango da, Liburutegiaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta.

Liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak gidatuko du. Haurrak adinaren arabera banatu beharrez, saio bakarra izango da bi urtetik gorako neska-mutiko guztiendako, eta 17:20etik 18:00etara izango da. "Liburutegiarekin zerikusia duen ipuinen bat egongo da modu berezian kontatuta, pare bat liburu zozketatuko ditugu, eta irakur puntu txiki bat egingo dugu", azaldu du Ezpeletak.

Erabiltzaileendako opariak

Astelehenean, urriak 24, bost liburu zozketatuko dituzte liburutegian. Zozketa horretan sartuko dira urrian zehar Elgetako liburutegian maileguren bat egin duten erabiltzaileak. Bost taldetan banatu dituzte erabiltzaileak: 0-4 urte, 5-8 urte, 9-11 urte, 12-16 urte eta 16 urtetik gorakoak. Talde bakoitzeko liburu bat zozketatuko dute. Zozketa 18:00etan egingo dute.

Liburutegiko irakurrienak

Egun berean, Liburutegiaren Nazioarteko Egunean, emango dituzte liburutegiko liburu irakurrienak asmatzeko lehiaketarako azken pista.

Lehiaketa martxan da urriaren 3tik, eta 10 urtetik gorako erabiltzaileei dago zabalik. Helburua da asmatzea zeintzuk diren azken hamabi hilabeteotan liburutegian mailegu gehien izan dituzten liburuak. Lau izenburu eman behar dira: helduendako euskarazko eleberrietan mailegatuena, helduendako gazteleharazko eleberrietan mailegatuena,



Herriko neska-mutikoak ipuin kontalari saio batean. ELGETAKO LIBURUTEGIA

gazte literaturan euskarazko eleberri mailegatuena eta gazte literaturan gazteleharazko eleberri mailegatuena. Astelehenean emango dituzte azken pista liburutegitik, eta barikua izango da erantzunak bidaltzeko

azken eguna. Pista guztiak udal liburutegiko blogean daude ikusgai. Asmatzaileak liburu elektronikoko bat irabazteko aukera izango dute. Bat baino gehiago egonez gero zozketatu egingo dute saria.



Eneritz Artetxe ipuin kontalaria. BIGSENSEMAMMA TALDEA

Eneritz Artetxeren saioa laster

Hurrengo barikuan Eneritz Artetxek egingo du ipuin kontalari saioa Elgetan. 4 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendutako *Zenbat gurari!* ikuskizuna egingo du. Amaieran umeez, beraien nahiak margotu edo idatzi ahal izango dituzte eta kutxa magikoan sartu.

Gaur emango diote hasiera herri mailako pilota txapelketari

Eskola kirolari dagokionez jaitsi egin da izen-ematea, eta zalantzan daude Bergarako txapelketarako taldeak

L.Z. ELGETA

Hamabi bikoterekin abiatuko da lau terdiko pilota txapelketa. Zazpi bikote lehiatuko dira 40 urtetik azpiko txapelketan, eta bost 40 urtetik gorakoenean. Gaur, barikua, jokatuko dute lehen jardunaldia, eta lau norgehiagoka daude iragarrita. 18:30ean hasiko da Oxel Erosarbe-Gorka Arizmendiarieta eta Josu Mañarikua-Beñat Arabolaza bikoteen arteko partidua. Ondorengoak izango dira: Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar eta Iban Retolaza-Mikel Elkoro; Andoni Elorza-Oskar Sarasua eta Diego Cantabrana-Txomin de Vega; Iñaki Ugarteburu-Sergio Bouzas eta Jose Mari Zubiaurre-Pello Larrea.

Eskola kirola

Eskola kirolari dagokionez, martitzen iluntzean egin zuten ikas-

turte hasierako batzarra Udalak eta gurasoek. Ikasturte honetan nabarmen jaitsi da jarduera horretan izena eman duten neska-mutikoen kopurua. "Iaz 31 gaztek eman zuten izena, eta aurten hamazortzi dira, sei talde bakoitzeko", esan zuen kirol zinegotzi Mikel Elkoro. "Mutilen kopurua mantendu egin da, ez horrela neskena. Neska bakarrak eman du izena". Gauzak horrela zalantzan daude eskualde mailako eskola kirola txapelketan parte hartzeko taldeak. Hamabostean behin egiten diren topaketetara jaisteko arazorik ez da egongo, baina txapelketarako taldea osatzea ez da erraza izango.

Kirolerako zinegotzi Mikel Elkoro jakinarazi du kontsulta egingo duela jakiteko ea egoera honetan badagoen taldea osatzeko bestelako aukerarik.

Txakur bat hil da, pozoituta

Txakurrak gertutik zaintzeko gomendioa egin dute, asteen, Elgetan. Aurreko asteen txakur bat hil zen, pozoituta, eta txakur jabe batzuek susmoa hartuta daude zenbait lekutan agertutako pentsuarekin. Ezohiko lekuetan agertu dela adierazi dute; esate baterako, Pagatzako industrialdeko parkearen ondoan. Tentuz ibiltzeko mezua zabaldu dute.



GOIENA

Euskararen Eguna prestatzen hasteko batzarra deitu dute

Sei aste barru izango da Euskararen Eguna, eta dei hau egin du euskara batzordeak: "Abenduaren 3a, Euskararen Eguna, gerturatzen doala ohartuta, egun hori antolatzeko deitu dugun batzar irekiaren berri eman nahi genizueke". Batzarra herriar guztiei dago zabalik. Eguaztenean, hilak 26, egingo dute, 19:00etan, udaletxean.

Elgetako jeltzaleen Gabonetako loteria eskuragarri

Urtero moduan, Elgetako jeltzaleek Gabonetako loteria aterako dute. EAJtik jakinarazi dute alde zuzenetik eskatu beharra dagoela loteria, eta interesatuak Maria Jesus Leterekin eta Begoña Ardanzarekin jarri behar direla harremanetan. Hiru aste epea dago eskaera egiteko. Azken eguna azaroaren 14a da, astelehena.



Basozaina, Foruen Aldundiko teknikaria eta Aranzadiko aditua Iturrigorriko putzuetako batean. AMAIA TXINTXURRETA

Anfibioek eta narrastiek beste hiru bizileku dituzte

Espezie horiendako hiru putzu egokitu dituzte Iturrigorrin eta txantxiuak, apoak eta uhandreak laster joango dira hara errutera. Txoriak, sorgin-orratzak edo burrunziak ere gustuko izango dituzte putzu horiek, Aranzadiko Jon Garinen esanetan

Oihana Elortza OÑATI

Iturrigorriko hainbat zuhaitz moztu eta egur hori herritarrek su-egur moduan erabiltzeko moduan jarri ditu aurten ere udalak. Bada, mozteka horiek egiteko makineria han dagoela aprobetxatu, eta anfibioak eta narrastiek gustura egoteko eta ugaltzeko moduko hiru putzu egokitu dituzte inguru horretan udalak, Foru Aldundiak eta Aranzadiko teknikariek elkar-lanean.

Aniztasuna

"Gehienbat, anfibioendako pres-tatu ohi dira horrelako putzuak, baina habitat edo biotopo horiek oso egokiak dira bestelako bizidunendako ere. Espezie askok aprobetxatuko dute inguru hori", adierazi du Jon Garinek, Aranzadi zientzia elkarteko biologoak.

Putzuak egokitu eta era naturalean joaten dira bertara anfibioak, Garinen esanetan. "Inguruko anfibioek ugaltzeko beste leku batzuk erabiltzen dituzte

eta horrelako hezeguneak egokituz, poliki-poliki, egonkortu egiten dira eta etortzen hasten dira. Esaten da espezie arruntak, udalerrri osoan zabaltzen direnak, izaten direla etortzen lehenak eta habitat bereziagoa behar dutenak, ondoren. Beraz, espezie ezberdinen topaleku izan ahal dira hauek; oso gune aberasgarriak".

Erruteak

Garinek azaldu duen moduan, Iturrigorriko putzuak ingurune natural batean egin dituzte, baina orokorrean era askotakoak izan daitezke: izan daitezke naturalak edo artifizialak, handiak edo txikiak edo iraunkorrak edo iraupen laburrekoak. Ze espeziezietara begira egin gura diren jakin behar da putzua modu batekoa edo bestekoa egiteko. Kontuan hartu behar dira putzuaren ertzak, horiek dute garrantzia. "Ertzak ahalik eta lausoena izan behar dira. Modu horretara ahalbideratzen da

landaretza egotea, eta hor erruten dute igelek, apoek zein uhandreek", azaldu du Aranzadiko kideak.

Duela hilabete batzuk egin dituzte putzuak eta uste dute hilabete barru arrautzak ikusiko direla, "animaliek horrelako ekintzei azkar erantzuten diete eta". Irudi polita izango dela uste du Garinek: "Tamalez, anfibioak dira ornodun taldeetan mundu mailan mehatxu handien dutenak, eta horren arrazoietako bat da, besteak beste, horrelako hezeguneak gutxitu edo galdu egin direla. Orain, horrelako ekintzekin, putzuak berreskuratzen ari gara, eta hori garrantzitsua da".

ANFIBIOAK ETA NARRASTIAK EUREN KASA JOANGO DIRA PUTZUETARA, ERA NATURALEAN



AMAIA TXINTXURRETA

"Araotz ikertu behar dugu, berezia da"

JON GARIN ARANZADI

Oñatiko Udalak atera duen ingurumen bekarekin anfibioen eta narrastien ikerketa ari da egiten Aranzadiko Jon Garin. **Zelan doa ikerketa?** Ondo. Datuak biltzen eta aztertzen jarraitzen dugu, baina urtea bukatu orduko txostena aurkeztea da gura asmoa.

Ikusi dituzue muskerrak Araotzen?

Bai. EAEn ornodun espezie mehatxatuen zerrendan dauden Schriber muskerra eta suge berde-horia ikusi ditugu. Dena dela, uste dugu beste toki batzuetan ere bizi daitezkeela.

Toki berezia da Araotz?

Oso. Klima atlantikoko espezieak eta trantsizioak elkarrekin ikusi ditugu, eta hori oso arraroa da. Gehiago ikertu behar dugu Araotz ingurua eta irteera gehiago egingo ditugu hara.

Iturrigorriko hezeguneak anfibioendako eta narrastiendako egokitu arren, beste animalia batzuek ere inguruaz disfrutatuko dutela dio Garinek; txoriak eta sorgin-orratzak ere ikusiko direla. Hori bai, putzuetara joandakoan animaliei jaten ez emateko aholkatu du Garinek.

Inguru horretako erreka txiki batean ere presa moduko bat egin zuten hostoak denbora luzeagoan egon daitezkeen uretan, eta horrek aberastu egiten du bioaniztasuna.

30 euroko txartelak zozkatuko ditu Txandak egunotan

Txanda Eguna ospatuko du herriko merkatarien elkarteak gaur, egubakoitza, eta bihar, eta ekintza bat baino gehiago antolatuko ditu. Txorimaloak eta Amaia DJ egongo dira gaur, adibidez, eta bihar, tailerrak eta txaranga. Elkarteko dendetan bezeroak saritzeko zozketak egingo dituzte, gainera; 30 euroko 65 txartel zozkatuko dituzte.

Harrobiari buruzko informazio bilera dago martitzenean

Arantzazuko harrobia handitu gura duela esan du kudeatzen duen enpresak eta egungo egoerari eta proiektu berri horrek izango lituzkeen ondorioei buruzko informazio bilera egingo dute martitzenean, urriak 25, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Bihar, handitzearen aurkako iritzia emango du Arantzazu Defenda Dezagun! taldeak.

Emakumea eta baserria dikotomia aztergai egunean

Nekazaritza munduan bizi diren herriko emakumeen egoerari buruz berba egiteko saioa egingo dute urriaren 27an Euskaldun Berria gelan, 16:00etan. Errealitate hori jasotzen duen Usurbilgo emakumeekin egindako dokumentala botako dute lehen-dabizi eta Hitzek elkarteko ordezkariekin mahai-ingurua egingo da gero.

BiziPoz programan parte hartzeko izena eman daiteke

Zahartze aktiboa sustatzeko, 55 urtetik gorakoendako, BiziPoz egitasmoaren bigarren ikasturtea azaroan hasiko da. Bi hilabetez bi gai nagusi landuko dituzte: osasuna eta gizarte zerbitzuak, batetik, eta adimen emozionala, bestetik. Hilaren 28a baino lehen eman beharko da izena bertan parte hartzeko.



Zubiko kiroldegiaren sarrera. OIHANA ELORTZA

Talde eragilea behar da Zubikoako proiekturako

Kirol planean jasotako beharrei erantzuteko ze lan eta azterketa egin duen erakutsi gura die Udal Gobernuak herritarrei, eta, horretarako, bilera irekia egingo dute bihar, zapatua, 11:00etan, gaztelekuan. Proiektuen arkitektoak ere egongo dira.

OIHANA ELORTZA OÑATI

Zubikoa kiroldegia berritzeko proiektuaren inguruan herritarrek osatutako talde eragile bat sortu gura du udalak. "Orain arte egin diren proiektuak aztertuko ditu talde horrek, bai, baina batez ere herrian dauden beharrak eta aukerak aztertuko ditu. Beraz, posible da orain arteko proiektuak ondo ez ikustea talde eragile horrek eta hirugarren edo laugarren bat proposatzea", dio Borja Moiuak, kirol zinegotziak.

Arkitektoak

Talde horretako kideak ahalik eta esparru, adin edo ohitura ezberdinetakoak izatea gurako luke udalak, "lanketa aberatsagoa" izateko. Bihar gaztelekuan euskaraz egingo den informazio bileran aukera egongo da talde horretan izena emateko.

Orain arte egindako lana erakutsi gura die Udal Gobernuak herritarrei. Chocarro eta Herranz arkitektoen laguntzarekin egin-

dako proiektuak bistan izango dituzte herritarrek. Arkitektoak eurak ere, Alfonso Herranz eta Javier Chocarro, hantxe izango dira azalpenak ematen. "Gaiak badu interesa herritarrengan eta ziur aski izango dituzte galderak eta zalantzak. Horiei zuzenean erantzuteko egongo gara. Alde teknikoak, gainera, arkitektoek eurek erantzungo dituzte, orain arte egindako proiektuak eurek egindakoak dira-eta", dio Moiuak.

Kirol diagnosiak utzitako ondorioetako bat da Zubiko kiroldegia eraberritu beharra dela. Eraberritze hori, baina, integrala, osoa, izan behar dela ikusten du Udal Gobernuak, eta hori jasotzen dute Chocarro eta

HERRITARREK ETA TEKNIKARIEK OSATUKO DUTE TALDEA ETA ADOSTUKO DINAMIKA

Herranz arkitektoek egindako proiektuek. Baina proiektu horiek landu, aztertu eta egokitu egin behar dira eta horretarako sortu gura da talde eragilea.

Izena

Talde eragile horretan ez dira herritarrik bakarrik egongo. "Gehienak herritarrik izango dira, bai, baina eurekin batera egongo dira kirol teknikaria, parte-hartze teknikaria, esaterako. Beharrezkoa ikusten duten laguntza teknikoak izango dute", dio kirol zinegotziak.

Taldeak nola lan egingo duen kideek eurek erabakiko du. Hau da, kideek adostuko dute bilerak egiteko maiztasuna, lekua eta ordua. Lehen erabakiak noizko hartuko dituzten ezin da jakin oraindik; taldearen lan martxak berak ere finkatuko ditu epeak.

Bihar gaztelekuan egingo den saio irekian aukera egongo da izena emateko. Bihar joaterik ez duenak Zubikoako bulegoetara joanda eman dezake.

"Errauskailuaren parte-hartze prozesuan egon gura dugu"

JOSE MARI IZETA GURASOS EKIMENEN PRESIDENTEA Plataformaren helburua zein den azaldu du

O.E. OÑATI

Maiatzean sortu zen GuraSOS herri plataforma, "errauskailuak haurrengan, osasunean, etorkizunean izan ditzakeen ondorioez kezkatuta".

Erraustegiaren gaia gizarteratu gura duzuela diozue. Zergatik?

Osasunean izan ditzakeen kalteak ikusita, uste dugu politikarien esku gelditu zen gaia gizarteratu egin behar dela. Eztabaida gizartera itzultzea eta prozesu parte-hartzailea egitea eskatu gura dugu, eta benetako informazioa izatea guztiok prozesu horretan.

Ze informazio duzu orain arte?

Uste dugu informazio oso interesatua ematen digutela, eta garrantzitsua ikusten dugu batekin eta bestearekin berba egitea beharrezkoa den informazioa lortzeko. Guk orain arte jaso dugunak dio osasunarendako ez dela ona erraustegia, eta ez dugu onartuko osasunarendako kaltegarria den ezer. Nahi duguna da mahai gainean jartzea politikariak, zientzialariak eta behar diren aditu edo herritar guztiak osasunarendako kaltegarriak ez diren kudeaketak lantzeko lana egiteko.



Jose Mari Izeta. ENEKO AZURMENDI

Zein da lan ildoak?

Prozesu parte-hartzailea lortu gura dugu. Herritarrei esaten diogu jaso dezala informazioa eta egin dezala bere irakurketa, baina ez bata haur edo besteak hori diolako, arduratsua izateko bakarrik.

Zer eskatuko duzue azaroaren 26ko manifestazioan?

Erraustegiaren inguruko informazio guztia lantzeko, emateko, eta hori eskuetan dugula hondakin kudeaketan parte hartu gura dugula. Prozesu horren aldekoa izango da.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Mundua izerditan

Jakin badakigu jasagarria ez den garapen-eredua praktikatzeko dugula gurean ere, eta ondorioz, naturaren baliabideak hondatzen eta agortzen ari garela eta hondakinak ugazitzen. Mundua berotuta izerditan daukagu, gure bizimodua dela eta!

Arazoak jabetuta, alderdi politiko guztiak idatzia dute ingurumen-programa bat, eta batez ere hauteskunde garaian, asmo oneko helburuak plazaratzen dituzte. Hitz eta ametsetatik, emaitzetara bidea egitea izango da kontua! Goi-mailako politika eta teknologiak behar ditugu horretarako, eta baita ere, nire ustez, gizaki berritua, kontsumismoaren atzaparretatik askatuta pozik bizitzen asmatuko duena.

Sare ekonomiko-sozialak, merkatu zoroaren esanetara, mugagabe hazteko planak ditu, eta aitortu behar da, ingurumenarekiko kezka oraingo ez dela azaltzen lehenetsun zerrandean. Bistan da ez dela konponbide errazik, baina etorkizuneko belaunaldien ogia jokoan da eta mundu zuzenago baten aldeko proiektua ate-joka dugu... Entzun al duzu zure etxean aldaba-hotsa?

Luxuzko gonbidatuak II. Literatur Topaketetan

Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano etorriko dira Bibliotekaren Eguneko euskarazko topaketa saiora, eguaztenean, eta Bruno Montane, gaztelaniazko saiora, egubakoitzean; publiko guztiari irekitako topaketak dira

Leire Kortabarria OÑATI

Egitarau oparoarekin dator aurtengo Bibliotekaren Eguna, Udal Liburutegiaren ekimenez. Astelehena, hilak 24, da egun hori, baina aste osoan zehar izango dira ekintzak.

Egitarauko izarra Oñatiko II. Literatura Topaketak izango dira. Aurten euskarazko saio bat eta gaztelaniazko beste bat antolatu ditu liburutegiak; iaz saio elebidun bakarra izan zen. Euskarazkoa, *Irakurlea ez da izaki bakartia* izenburua izango duena, hilaren 26an, eguaztena, izango da, 19:00etan; Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano dira gonbidatuak, eta dinamizatzaile



Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano. GOIENA



lea Danele Sarriugarte izango da, euskarazko literatur solasaldietako dinamizatzailea. Gaztelaniazkoa egubakoitzean, hilak 28, izango da, eta Bruno Montane (Santiago de Chile, 1957) poeta izango da gonbidatua; Ruben Ariasek, liburutegiko gaztelaniazko solasaldietako dinamizatzaileak, gidatuko du saioa. Izan ere, saio bakoitzeko gaia eta gonbidatuak dinamizatzaile bakoitzak pentsatu eta ekarri ditu.

Galdu ezineko hitzorduak

Udal liburutegiko arduradunek oñatiar guztiak animatzen dituzte bertara joatera; izan ere, luxuzko gonbidatuak dira guztiak ere. Lujanbio eta Cano aski ezagunak dira euskal irakurleondako; Montane ere lehen mailako pertsonaia da literatur munduan. Besteak beste, Anagrama argitaletxeko zuzentzailea izan da, poeta da eta Roberto Bolañoren lagun eta lankidea.

Bestetik, Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano egon izan dira Oñatin, baina ez biok elkarrekin, eta are gutxiago Danele Sarriugarte idazlearekin batera.

Oñatiarrondako eta debagoien-dar guztiondako galdu ezineko hitzordua da datorren eguaztenekoa, beraz.

Txokolatea eta literatura

Egitaraua hilaren 24an, astelehena, hasten da: 17:00etan, Iraungorriko marimi izeneko itzal titereen antzezlan izango da 5 eta 12 urte artekoendako, eta 19:00etan, dastatze literarioa: *El sabor de la literatura: chocolate y libro* izenburuarekin, Carles Garcia adituak literaturarekin zerikusia duten bost txokolate mota aurkeztu eta eskainiko ditu dastatzeko, txokolate mota bakoitza irakurketa edo genero batekin lotuaz. Iaz, perfumeekin egin zuen Oñatiko Liburutegiak antzeko ekintza bat, eta oso gustura geratu ziren antolatzaileak zein parte-hartzaileak.

Datorren egubakoitzean, 17:00etan, beldurrezko efektu bereziak sortzeko makillaje tailerra izango da 9 eta 12 urte artekoendako, 17:00etan. Eta hilaren 29an, zapatua, herriko kaleetan zehar *Olerki xuxurlatua* izeneko ekintza.

Kilometroetako leloa eta irudia, azaroaren 11n

Irailaren 24an izango da datorren urteko Kilometroak festa Oñatin eta izango duen irudia eta leloa azaroaren 11n egingo duten aurkezpen ekitaldian jakinaraziko dituzte; arropa ere festa horretan erakutsiko dute

Oihana Elortza OÑATI

Txantxiku Ikastolaren ardura izango da datorren urteko Kilometroak festa antolatzea, eta joan den zapatuan jaso zuen lan horren lekukoa Bergarako Aranzadi ikastolaren eskutik. Bizikletan ekarri zuten lekukoa eta dagoeneko Oñatin dago.

Datorren urteko irailaren 24an egingo da Kilometroak festa Oñatin, baina urte guztiko lana izaten da. Hamazazpi talde eratu dituzte, azkena, parekidetasunarena, dagokion pisua eman gura diote-eta gai horri. Talde horiek osatuta daude, baina urtean zehar suertatuko dira egin beharreko bestelako lanak ere,



Lekukoa Oñatiko kaleetan. GOIENA

eta egunean bertan ere jende asko beharko da. Horietarako, izena eman dezake edozein herritarrek ikastolara joanda edo hara deituta. "Oso eskertuta gaude herritarrek orain arte izan duten harrera onarekin", dio Zigor Ibarzabalek.

Denda

Noiz izango den jakinekora da, baina festa horren leloa eta irudia zeintzuk izango diren azaroaren 11n egingo duten aurkezpen ekitaldian jakinaraziko dute. Arropa ere erakutsiko dute. Denda Hankaluzenian jarriko dute aurkezpena egin eta hurrengo egunetan.

Burgosen irabazi dugu; Toursera goaz orain

Goiena komunitatea

Miren Arregi / Ganbara abesbatza

OÑATI

Egin dugu Burgostik buelta eta lehenengo sariarekin itzuli gara. Ederrena, Antonio Jose lehiaketaren XV. edizioa irabazi eta, gainera, lehiaketaren historian abesbatza batek lortu duen puntuaziorik altuena eskuratu

dugula. Polita izan zen lehenengo saria eskuratu genuela jakin genuen unea. Hala-koak beti hartzen dira gustura.

38 lagunek egin dugu Burgoserako bidaia. 19 emakume eta 19 gizezokok. Tartean Ganbarako ohiko kideak eta baita errefortzuak ere. Ezin lerro hauek bukatu kanpotik gu laguntzera etorri direnei eskerrak eman gabe. Ateak zabalik dituzue, Tourserako bidean.

Azaroaren 5ean egingo da herriko film laburren rallya

Azaroaren 5ean egingo da aurtengo Oñatiko film laburren rallya, gaztelekuan, eta astelehenen zabalduko da izena emateko epea. Taldekide kopurua, gehienez, zortzi lagunekoa izango da aurten eta 20 talde izango da muga. Parte hartu gura dutenek helbide honetara bidali behar dute mezua hori adieraziz: olr.antolakuntza@gmail.com.

The Kagas-en bertsioak gaur eta Izaki Gardenak bihar

Aitor Reguero bakarlariak eta Oñatiko hainbat taldek The Kagas taldearen bertsioak joko dituzte gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan. Batutako dirua ikas bidaiarako izango da. Bihar, zapatua, bestalde, Izaki Gardenak taldeak eta Juan Valls bakarlariak kontzertua egingo dute gaztelekuan 22:30ean. Sarrera bost euro izango da.

"Niretako, ohore handia da sari hau jasotzea"

CAYETANO PEREZ ZIKLOTURISTA

Pedaleo.com enpresa espainiarrak aitortpen bat egin dio oñatiarrari, zikloturismoari egindako ekarpenagatik, urriaren 15ean Benaventen (Zamora) ospatutako ekitaldian

Eneko Azurmendi OÑATI

Bizitza guztia darama Cayetano Perez oñatiarrak zikloturismo munduan murgilduta. Hori dela eta, Pedaleo.com enpresak aitortpen bat egin dio.

Zer sentitzen da horrelako sari bat jasotzean?

Hasiera batean, harrিতuta gelditu nintzen, ez nuelako espero. Aurrez ezagutzen nituen, Eduardo Chozasen campus batetik. Beraz, deitu egin zidaten, ea sari hau eman ahal zidaten galdetuz. Nik zalantzarik gabe onartu nuen, noski. Niretako, ohore handia da sari hau jasotzea, gustatzen zaidan zerbait egiteagatik jaso dut eta. Emozio handia sentitzen dut eta saria eman didatenei eskerrak ematea baino ez zait geratzen.

Estatu mailako enpresa bat izanda, are handiagoa da aitortpena, ezta?

Hala da; sari hauek urtean behin ematen dituzte eta estatu mailako sariak dira. Beste hainbat pertsona ere saritu dituzte; horien artean, Chico Perez, txirrindularitza munduan dagoen kazetaririk ezagunenetakoa. Beraz, plazera da niretzat.

Sari hau zergatik eman dizutela uste duzu?

Haien filosofiarekin bat egiten dudalako. Hau da, enpresa honek txirrindularitza mundua sustatzen duen jendea saritzen du, ez bakarrik maila profesionaleko txirrindularitza, baita herri mailakoa ere. Beraz, bizikletan afizioz eta gustatzen zaigulako ibiltzen garenoi eta mundu honetan murgilduta gaudenoi horrelako aitortpenak egiten dizkigute. Nire ustez, behintzat, horregatik da.

Noiztik zara zikloturista?

Zehazki, 39 urte daramatzat zikloturista moduan; Aloña Mendin hasi nintzen, bertako zikloturismo saila sortu genuenean. Hasi gineneko oso gutxi gelditzen gara dagoeneko, baina niri bizikleta asko gustatzen zait eta



Cayetano Perez. ENEKO AZURMENDI

"PASIO HUTSA DA BIZIKLETAN IBILTzea ETA LEKU ETA JENDE BERRIA EZAGUTzea"

orain erretiroa hartuta denbora luzeagoa dudanez, asko ibiltzen naiz. Pasio bat da, niretako, bizikletan ibiltzea eta leku eta jende berria ezagutzea.

Beraz, Aloña Mendirekin federatuta zaude?

Hala da. Gaur egun ez gara dela urte batzuk bezainbeste ibiltzen. Lehen, astero egiten genituen irteerak; orain, gutxiago. Hala ere, federatuta egotea garrantzitsua dela uste dut; ardu-ra zibila, aseguruak eta beste hainbat gai direla eta.

Gaur egun, ze martxa egiten dituzu?

Lehen, Gipuzkoako Federazioko martxa guztiak egiten nituen. Orain, Quebrantahuesos-gehien disfrutatzen dudana-, Rompepiernas, Eduardo Chozasen campusak -otsailean eta abuztuan egiten direnak- eta mendiko bizikletarekin ere martxa bat edo beste egin izan dut.

Lehenengo horri helduta, 26 edizioetatik 24 egin dituzu.

Bai, eta beste biak, lesio baten ondorioz, ezin izan nituen egin; bestela, guztiak egingo nituen. Nire ustez, saria hau jaso izanaren arrazoi nagusia hori da. Esaten didate adin honekin -63 urte- horrenbeste aldiz martxa hori egitea asko dela eta horretarako fisikoki prestatuta egon behar zarela. Eta, egia esan, aitzakia hona da Quebrantahuesos martxan izena ematea, urte guztian zehar bizikletan ibili ahal izateko. Azken finean, horrek egiten nau zoriontsu.

Horrelako martxa bat nola planteatzen duzu? Lehiatzera ala disfrutatzen joaten zara?

Ni disfrutatzen joaten naiz, oso argi daukat 63 urterekin ez dudala lehiatuko. Nire ustez, martxak bakoitzak nahi duen modura hartzen ditu eta norberarekiko lehiaketa moduko bat da: motibazioa, martxa bera bukatzea, lagun berriak egitea, lagun zaharrekin elkartzea... Finean, martxa bakoitza festa bat da guretako. Bizikleta bizitzeko modu bat da, pasio bat da. Nik urte asko daramatzat eta gero eta gehiago gustatzen zait.



Aitor Otamendi, proban zehar. BASQUE EXPEDITION RACE

Aitor Otamendi garaile 'Basque Expedition Race' lasterketan

Hiru kataluniarrekin batera irabazi du, taldekako lasterketa da eta; 65 ordu inguru behar izan dituzte

E.A. OÑATI

Aitor Otamendi oñatiarrak Getxon jokatu den *Basque Expedition Race* lasterketaren lehenengo edizioa irabazi du, hiru eguneko proba luzea eta gogorra. "Desnibel handiko lasterketa izan da, oso gogorra. Gainera, euria eta lokatz asko zegoen bidean", adierazi du Otamendik. Orientazioa oinarritzat hartuta, hainbat diziplina uztartzen dituen lasterketa da hau: bizikleta, trekkinga, kayaka, oinez ere bai tarte batzuk...

Hainbat kontrolgune daude bidean zehar, eta, horietatik

pasatzean, puntuazio bat eskuratzen da. Bukaeran, egindako denboraz gain, puntuazio hori ere kontuan hartzen da. "35 taldek hartu dugu parte eta bik bakarrik lortu dugu kontrolgune guztietatik igarotzea", dio.

Lorik ez

65 ordu inguru behar izan ditu laukoteak proba burutzeko, eta atsedean gutxiarekin, gainera. "Taldea bakoitzak bere estrategia aukeratzen du eta lehenetara gauza bati edo beste bati ematen dio. Guk lorik ere ez dugu egin proba guztian zehar", azaldu du.

Kili-Kolo, Herriko Futbol Txapelketako lehenengo liderra

Hasi da 12 taldez osatutako Herriko Futbol Txapelketa, eta, lehen lau partiduak jokatu -bi partidu falta dira jardunaldia osatzeko; izan ere, lau partidu jokatzen dira asteburu bakoitzean, gehienez-, Kili-Kolo taldea da sailkapeneko lehen postuan, Txuskos-i 6-1 irabazi ostean.

Asteburu honetan, lehenengo jardunalditik geratzen diren bi partidu eta bigarren jardunaldiko beste bat jokatu dira.

Lehenengo jardunaldiko bi partiduak Joxely-Kalañataray -13:00etan- eta Zalaparta-Sasquatch -14:30ean- izango dira eta bigarren jardunaldiko partidua, berriz, Txuskos-Handola izango da -18:30ean-.

Ziklismo sailaren urteurrenko liburua aurkeztuko dute

Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren 50 urteak batzen dituen liburua aurkeztuko dute datorren egubakoitzean, hilaren 28an, 19:00etan, udaletxean. Izan ere, aurten betetzen du mende erdia sail honek, eta, hori ospatzeko, liburu batean bildu dituzte denbora horretan zehar gertatutako lasterketa, bizipen -sailatik igarotako zenbait txirrindulari eta presidenteri egindako elkarrizketak ere batzen ditu liburua- eta gorabeherak.

Bestalde, ekitaldi hori baliatuko dute aurtengo ziklo-kros taldeen aurkezpena egiteko.

Horrez gain, datorren zapatuan, hilaren 29an, bazkaria egingo dute, kiroldegian.



Iokin Garai oñatiarra, San Martin parkean, aste barruan. XABIER URZELAI

"Lasterketan momentu gutxi daude benetan gozatzekoak"

MENDI LASTERKETA IOKIN GARAI MENDI LASTERKARIA

Duela bi urte podiumera igo ostean, Hiru Haundiak proba irabazi duen lehenengo debagoiendarra da oñatiarra (11.18.25); oso indartsu amaitu du urtea

Xabier Urzelai OÑATI

Zapatuan Hiru Haundiak mendi lasterketa irabazi izanak ez dio fisikoki aparteko oinazetik sortu Iokin Garairi (Oñati, 1983). Aurreko edizioan (2014) hustuta iritsi zen helmugara; bigarren sailkatu zen Pedro Etxeberria bi minutura zeukan, eta hura harrapatzeko egindako ahaleginean ondo sufritu zuen. Zapatuan, ostera, 15 minutuko abantailarekin, gozatu ederra hartu zuen Aizkorritik Araiara, helmugara.

Mendian horrenbeste denbora egin ostean, perretxikotan joateko gogorik bai?

Bai, gogoz nago, baina beste martxa batean. Familiarekin, lagunekin, eta lasaiago. Perretxikoak bilatzeko poliki ibili

"DENBORALDIA AMAITZEKO GOGOZ NENGOEN, URTE OSOA EGIN DUDALAKO ENTRENATZEN"

behar da mendian, eta badut horretarako gogoia.

Gopegi, egubakoitz gauerdia, lasterketa hasteko minutu gutxi geratzen dira eta ehun kilometro dituzue aurretik. Zer pasatzen zaizu burutik?

Gogoan dut musika oso altu zegoela, deigarria irudituzitadan. Oso giro ona zegoen irteeran, eta lasterketa hasteko gogoz nengoen. Baina aldi berean, proba amaitu eta denboraldia amaitzeko gogoia ere banuen. Hiru Haundiak probaren data

aldaketarekin asko luzatu zait denboraldia, eta nekatuta amaitu dut.

Zuk esan duzu, urte luzea izan da. Bai; iaz sasoi honetan hasi nintzen entrenatzen, gutxi gorabehera. Neguan mendiko eskiko lasterketa batzuetan hartu nuen parte lehenengo, Arrasateko lagun batekin, esperientzia berria izan da niretako eta gustura ibili naiz. Ondoren, Arrasate-Udalatx lasterketan hasi nuen mendiko lasterketen denboraldia, eta ondoren etorri ziren beste proba batzuk, Euskal Herriko selekzioarekin ere oso gustura jardun nuen, eta proba horiek ultra lasterketarako entrenamendu moduan erabili ditut. Eta, udazkenean denboraldia borobildu dut Avilan –Gredos mendi zerran– eta Hiru Haundiak proban garaipena lortuta. **Duela bi urte podiumera igo zinen 2 minutu gutxiago erabilita (11.16.46). Aurten irabazi egin duzu. 100 kilometroko proba izateko, ikustekoa da ze denbora tarte txikian ibiltzen zareten.**

Bai, baina lasterketa bakoitza oso ezberdina da. Erlojua eramateko ohitura dut, baina elikadura zaintzeko, ez ze denbora eginen nabilen ikusteko. Oraingoan, esaterako, lasterketa udazkenean izan denez, ordu gehiago egin ditugu gauzez, eta horrek eragina izan du, polikiago joaten gara eta. Eta ez da gauza bera, lehenengo postuan joan daukazu abantaila kudeatzen, edo bigarrena harrapatzeko topera ibiltzea. Lasterketa bakoitzak istorio propioa du, eta egindako denborari baino lasterketan bizi izandako momentuei ematen diet garrantzi handiagoa.

Aurrean ibiltzen zaretenok baduzue gozamenerako tarterik? Hartzen duzue segundo bat horretarako?

Hur ere lasterketaren arabera. Oraingoan bai, Elgean momentu txarrenak eta onenak, denak izan nituen bertan. Egunsentia ederra izan zen, zerua gorri-gorri zegoen, baina banuen denbora apur bat horrekin gozatzeko, burua apur bat altxatzeko. Baina ez dut gezurrik esango, aurrean ibiltzeko borrokan ga-

"EGINDAKO DENBORARI BAINO GEHIAGO, PROBAN BIZITAKOARI EMATEN DIOT GARRANTZIA"

biltzanok lasterketan momentu gutxi izaten ditugu benetan gozatzekoak, ezin dugu eta denborarik galdu. Azkarrenak irabazten du hemen. Landan lau minutuko aldea nuen, bi minutu egingo nituen etxekoekin, ez nuen gura eta atzetik zetorrenak ni ikustea, erreferentziarik izatea. Elgean, berriz, aldea handitu nuen; Aizkorritik Araiara ere gustura egin nuen. **Hiru Haundiak oinez egiten dituenak 18 ordu behar ditu, gutxienez. Korrika egiten duzuenok, 100 kilometroak egiten dituzue korrika?** Ez, jendeak uste duena baino gehiago egiten dugu oinez. Hiru tontoretara igotzeko aldapa tenteenak oinez egiten ditugu, eta jaisten tarte batzuk ere bai. Baina bai, ondoren korrika egin behar da.

Ze luzea egin behar den Elgea gurutzatzea.

Oso luzea egiten da. 78 eoliko daude [Barre] eta ordurako orduak daramatzagu lasterketan. Baina, Elgeako mendilerroan denbora asko irabaz daiteke, edo galdu.

Azken hamar-hamabost urteotan asko hazi dira ultra lasterketak. Baina irabazi berri duzuna ez da nolanhiko proba.

Hiru Haundiak irabaztea oso berezia da, estatuko ultra herrikoiena da. Hogeia lagun inguru egongo gara irabazteko helburuarekin goazenak, eta gainontzeko guztiek beste asmo batekin hasten dute proba, eta 1.700 lagun gara, samur esaten da. Pentsa, nire aitak egin izan du lasterketa hau. Gu txikiak ginenean bera laguntzen ibiltzen ginen, eta orain bera da ni laguntzen nauena.

Eta ederto gozatuko du, gainera.

Egia esateko urduri jartzen da, uste dut proba amaitzen dudanean gozatzen duela gehiago, baina bai, pasioz bizi du kirol hau.

Araian helmuga dago, jendea, zarrata... Baina kilometro bat lehenago zer zeneukan buruan?

Abantaila polita neukanez Aizkorritik nentorren gozatzen. Azkenean momentu horiek dira geratzen direnak, eta posible bada gozatzen ahalegintzen naiz. Denbora badut, normalean helmuga zeharkatu aurretik gusatzen zait helmuga dauden inguruko eskerrak ematea, besarkada batzuk ematea, eta horretarako tarte hartu nuen. Momentu berezia izan zen.

A3 autoa A+Gas taldeak 2014an antolatutako *motorshow*-an; orain, lehenengoz antolatuko dute Udalako Igoera. IMANOL SORIANO

"Osagai guztiak ditu Udalako Auto Igoerak"

MOTORRA Datorren zapatuan egingo dute, urriak 29, Udalako Auto Igoera. A+Gas taldeko lagunak dabilta antolatzaile lanetan, eta igoera ikusgarria izango dela aurreikusten dute; denboraldia amaitzeaz, hainbat kategoriatan txapela egongo da jokoan

Xabier Urzelai ARRASATE

Astebete geratzen da Udalako Auto Igoerako lehenengo edizio-rako, eta A+Gas taldeko lagunak egun handirako azken detailak lotzen dabilta: "Datorren astean jakingo dugu zenbat pilotu etorriko diren. Lehenengo lasterketa da, eta denboraldia amaitzeaz dago. Hori, batetik, ona da, eta bestetik, ez horren ona. Hau da, kategoria batzuetan irabazleak dagoeneko erabakita daude, eta baliteke pilotu batzuek kale egitea, baina beste kategoria batzuetan txapela erabakitzeak dago, eta hor lehia handia egongo da", adierazi du Asier Amu-txastegik.

Zaletasuna sustatzeko asmoz

A+Gas taldekoak ez ditu ezustean harrapatu halako lasterketa bat antolatzeak daukan lanak, badute-eta esperientzia: "Egia da lehenengo aldiz antolatuko dugula Udalako Igoera, baina 2014an *motorshow*-a antolatu genuen, eta iaz Garaian egin genuena

igoera txiki bat izan zen. Horrekin batera, aurten Leintz Gatzagako Igoera ere Eskomotorrekoekin batera antolatu dugu, eta halakoetan asko ikasten da. Hori bai, sei lagun gaude antolaketa taldean, eta datorren urterako taldea indartzea ezinbestekoa da. Hala, automobilismoa gustuko duenak, konpromisoa hartzeko prest dagoenak eta taldean lan egiten dakienak zabalik ditu ateak". Iker Suinaga, Asier Amu-txastegi, Asier Zubillaga, Oxel Etxebarria eta Aitor Pagaldai arrasatearrak eta Joseba Arroia-be eskoriatzarra daude taldean.

Igoera laburra, baina ikusgarria
Udalako Igoera Gorostiza auzoan hasiko dute -Malvinak- eta 2,8

"IGOERA LABURRA DA BAINA PAELLAK DITU, KURBA MOTEL ETA AZKARRAK, ABIADURA HANDIKO ZONAK..."

kilometroko igoera da. Ohikoa baino laburragoa denez, bost txanda egingo dituzte. Ia hiru kilometro horiek, baina, askorako emango dute: "Denetarik du, bi paella itxi, kurba motel eta azkarrak, abiadura handiko zonan... Jendeak gustuen arabera aukeratu du non ikusi lasterketa. Niri, tramu azkarretan pilotuek chicaneak zelan gainditzen dituzten ikustea gustatzen zait, eta igoera erdi inguruan bada chicane natural bat, guk ez ditugu jarriko. Beste batzuek paellak gurago dituzte, eta monjetakoa edo Udala auzokoa aukeratu dituzte. Alde horretatik, uste dugu igoerak denetarik izango duela".

Asfaltoa egoera oso onean dago
Federazioak azpimarratu zituen gauzen artean daude asfaltoaren egoera ona, eta ikusleak jartzeko leku aproposak daudela: "Herrian zaletasun handia dago, eta uste dugu jendeak ondo erantzungo duela".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	Zestoa-Aloña Mendi	SASKIBALOA
OHOREZKO ERREG.	Zapatua. 18:00. Zestoa.	EBA
Hernani-Aretxabaleta	EMAKUMEZKOAK	Venta de Baños-MU
Domekan. 17:00. Zubipe.	Arizmendi-Amaikak	Zapatua. 20:15. V.Baños.
Vasconia-Mondra	Zapatua. 11:00. Ibarra.	EUSKADIKO BIG. MAI.
Zapatua. 18:00. Martuten.	Anaitasuna-Bergara	Rod. Arizti- Natra Oñati
Aloña-Amaikak Bat	Zapatua. 15:30. Azkoitia.	Zapatua. 18:30. Gasteiz.
Domeka. 16:30. Azkoagai.	Mondra-Eibar	SENIORRAK LEHEN MAI.
E. PREFERENTEA	Zapatua. 18:00. Mojategi.	Soraluce BKE-Añorga
Mondra-Urola	ARETO FUTBOLA	Zapatua. 18:30. Labegar.
Zapatua. 16:00. Mojategi.	EUSKADIKO TXAPEL.	SENIORRAK 3. MAILA
Aretxabale.-Intxurre	Erando.-Aretx. UDA	Aloña Mendi-Ostadar
Domeka. 16:30. Ibarra.	Zapatua. 16:45. Erandio.	Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Bergara-Beasain	Eskoriatza-Atxurre	ESKUBALOA
Zapatua. 16:30. Agorros.	Zapatua. 17:50. M. Muñoz.	EUSKADIKO TXAPELKETA
LEHEN ERREGION.	GIPUZKOAKO TXAP.	Muskiz-Izarraitz Muñoz
Eibartarrak-Aloña	Mondrate-Bilkoin	Domeka. 12:00. Muskiz.
Domeka. 17:30. Unbe.	Zapatua. 18:00. Musakola.	Ford Mugarri-Donibane
Urki-Arizmendi	GAZTEAK	Zapatua. 19:00. Iturripe
Zapatua. 15:30. Unbe.	Aloña Mendi-Goierri	EUSKADIK. T. NESKAK
Soraluce-Bergara	Domeka. 12:00. Zarautz.	Elgoibar-Iturritxo Aloña
Zapatua. 16:30. Ezozia.	KADETEAK	Domeka. 12:45. Elgoibar.
OHOREZKO GAZTEAK	Mondrate-Arizmendi E.	GIPUZKOAKO TXAPELK.
Billabona-Aretxabaleta	Domeka. 12:00. Iturripe.	Urnietta-Soraluce BKE
Zapatua. 15:30. Villabona.	Deba.-Arizmendi Torre.	Zapatua. 19:00. Urnietta.
Eibar-Bergara	Zapatua. 10:30. Eibar.	
Domeka. 13:30. Unbe.	Goierri-Aloña Mendi	
Elgoibar-Mondra	Zapatua. 11:00. Urretxu.	
Zapatua. 18:30. Mintxeta.		

Contadorren fundaziora

Iker Eskibel eskoriatzarrek 23 urtez azpikoan kategorian lehian jarraituko du, Alberto Contador fundazioak fitxatu du eta.

Infisport proiektu arabarrak agur esan eta gero bazirudien bertako ziklista askok, gura ala ez, ziklismoa alde batera utzi beharko zutela, baina Madrildo taldeak taldeko hiru ziklista fitxatu ditu, tartean eskoriatzarra.



IKER ESKIBEL

MENDI LASTERKETA

Osintxuko Lasterketa hilaren 30ean

Txuringo Kultur Elkarteak antolatuta Osintxuko lehenengo mendi lasterketa egingo dute hilaren 30ean. Ibilbideak 10 kilometro izango ditu, eta izenematea zabalik dago www.lasterketak.com webgunean. Guztira 160 lagunendako tokia dago, eta Internetez betetzen ez diren dortsalak goizean jarriko dituzte salgai (15 eurotan).

FUTBOLA

Aloña Mendik liga hasiera zuzendu gura du domekan

Gotzon Urzelaireren mutilek berandu baino lehen erakutsi behar dute erreakzionatzeko gaitasuna, oraindik ez dute-eta partidurik irabazi. Hala, Amaikak Baten bisita (Domeka, 16:30, Azkoagain) baliatu gura dute horretarako. Maila berean Mondrak eta UDAR kanpoan jokatu dute. Erregional preferentean Bergarak Beasain hartuko du bihar (16:30).

Objektuei bizitza emanez, Mostra

Taun Taun Teatroak Udalaren laguntzarekin Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen Mostraren XIII. edizioa antolatu du asteburu honetarako. Panpinekin egindako ikuskizunez gainera, 'Stop-Motion' tailerra eta film laburren emanaldia izango dira

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Panpinekin bizitza dutela erakutsiko dute Bergarara etorriko diren askotariko jatorri eta ezauzgarriak dituzten txotxongilo taldeek. Mostraren izenak adierazten duen moduan, helduentzako saioak dira gehienak, nahiz eta familientzako eskaintza ere badagoen; edozelan ere, haurrak helduekin joateko eskaera egin dute antolatzaileek.

Kaleko ikuskizunak eta tailerra doan izango dira, baina ordaindutako sarrera izango dute Zabalotegi aretoan eta gaztetxean egingo dituztenek. Zabalotegirako sarrerak zortzi eurotan salduko dituzte -leihatila emanaldiak hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute- eta hiru eurotan, berriz, gaztetxeak. Era berean, Cal Y Canto taldeak San Martin plazan ko-

katu duen txabola itxurako erai-kienean egingo dituzten saioak doan diren arren, edukiera mugatua izango dute; hain zuzen, saio bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago banatuko dituzte gonbidapenak.

Nazioarteko sariak dituztenak
Deabru Beltzak taldearen perkusioak, musikak eta pirotekniak zabaldu zuen, atzo, aurtengo edizioa, baina nazioarteko jaialdietan parte hartzen duten eta sari asko eskuratu dituzten artistak gonbidatu dituztela azaldu du Taun Taun Teatro taldeko Itsaso Azkaratek: "Jaialdi askotara joaten gara eta horietan ikusten ditugun proposamen bitxiak ekartzen saiatzen gara. Oraingoan ere teknika ezberdinak erabiltzen dituzten lanak aukeratu ditugu. Istorio ganbe-

roak dira batzuk eta serioagoak edo hausnarketarako bidea zabalitzen dutenak beste batzuk. Hitzak edo elkarrizketak dituzte batzuek, baina mutuak ere badaude. Askotariko objektuak manipulatzeko ikusteaz gainera, zuzeneko musika eta efektuak entzungo ditugu. Pertsona bakarrak egindakoak dira batzuk, baina bikoteka eta taldean jarduten dutenak ere badaude".

Sortzaileen topagunea ere bai
Euren lanak erakustez gainera, artistek elkar ezagutzeko helburua ere badu Mostrak. "Elkarrekin hotel berean daude, bazkaldu eta afaldu elkarrekin egiten dute, batak bestearen lana ikusi eta aztertzeak aukera dute. Gurea moduko Mostra txikiak lagunarteko giroa asko eskertzen dugu guztiok".

'Stop-Motion' tailerra, bihar

Animaziozko filmetako *Stop-Motion* teknika ikasteko aukera izango da, UBIK Tabakalerako Ibai Aizpuruarekin. "Panpinekin lan egiteko aukera hori erakutsi gura dugu. Parte hartzaile bakoitzak, lana egiteko, telefonoa edo tableta ekarri beharko du", dio Itsaso Azkaratek.

12 lagunendako toki dago, eta Aroztegi aretoan izango da (10:00). Izena emateko 670 224 209 zenbakira deitu edo idatzi tauntaunteatro@gmail.com helbidera. Zapatu goizera arte dago epea zabalik.


'Animatu', film laburren emanaldia

Zinema aretoetako eskaintzan ez dira ohikoak izaten animaziozko film laburrak; hori horrela, panpinak eta bestelako objektuak protagonista dituzten lanak ekarri dituzte aurtengo Mostrara. "Guretako, garrantzitsua zen erakustea oso modu sinplean zelako lan onak egin daitezkeen. Lan horiek ikusita, akaso, bat baino gehiago animatuko da era horretako lanak egiten", azaldu du Taun Taun Teatro taldeko Azkaratek. Emanaldia Bergarako gaztetxean izango da, gaur, egubakoitza, 22:30ean, Roberto Whitek egingo duen *Variete White* ikuskizunaren ostean.

Eskainiko dituzten lanak

- **Ballon** Zuz.: Satinder. Singh. Txapekin egindako panpinarekin eta marrazkiekin kontatutako istorio gozoa.
- **Síndrome de línea blanca** Zuz.: Lourdes Villagomez. Klarion batekin marraztutako pertsonaian oinarritutako film bitxia.
- **El Viaje de Said** Zuz.: Coke Rioboo. Goya saria du eta etorkinei buruzko lana da; plastilinez egindako mutikoa da protagonista.
- **Made in Spain** Zuz.: Coke Rioboo. Arkitektura arloan erabiltzen den moduko panpina txikia egoera ezberdinetan erakusten du.
- **El ruido del mundo** Zuz.: Coke Rioboo. Plastilina erabiltzen du oraingoan ere, baina kristalaren gaineko teknikaren bitartez.

Estilo askotako ikuskizunak



'BANG!'

- **Nork** Volpinex (Frantzia).
- **Non** Zabalotegi aretoa.
- **Noiz** Egubakoitza, 20:00.
- **Sinopsia** Musikari batek eta manipulazailer batek egiten duten western bat da. Oso umoretsua eta originala. Film baten grabaketa ikusteko aukera ematen du, eta baita grabatutakoaren emaitza ere.



'PERRO PERDIDO'

- **Nork** Cal Y Canto (Gaztela eta Leon).
- **Non** San Martin plazan.
- **Noiz** Zapatua eta domeka, 13:00; 18:00; 19:30.
- **Sinopsia** Txakur baten ikuspegitik kontatutako istorioan, aktoreen zapatak eta bestelako objektuak dira lan horretako txotxongiloak.



'NAUFRAGOS'

- **Nork** La Industrial Teatrera. (Katalunia / Madril).
- **Non** San Martin plazan (euria egiten badu frontoian).
- **Noiz** Zapatua, 22:30.
- **Sinopsia** Bi clown-ek egindako kaleko ikuskizuna da. Askotariko teknikak eta objektuak nahastuta, edozer txotxongilo bihurtzen dute.



'VARIETE WHITE'

- **Nork** Roberto White (Argentina).
- **Non** Gaztetxea.
- **Noiz** Egubakoitza, 22:30.
- **Sinopsia** Mostran aurrez egondakoa da White; umorezko kabareta eskainiko du. Gorputzeko atalak eta eguneroko objektu txikiak erabiltzen ditu.



'FAUNO'

- **Nork** Compañía In-pulso (Madril).
- **Non** Zabalotegi aretoa.
- **Noiz** Zapatua, 20:00.
- **Sinopsia** Dantza, antzerkia eta txotxongiloak bateratzen dituen lan estreinatu berria da. Panpinaren eta Mari Cruz Planchuelo dantzariaren bidaia sentimental da.



'A MANO'

- **Nork** El Patio Teatro (Errioxa).
- **Non** Zabalotegi aretoan.
- **Noiz** Domeka, 18:00 (guztontzako), 20:00 (helduentzako).
- **Sinopsia** Nazioarteko sari esanguratsuak dituzte; Australiatik datoz Bergarara. Buztinarekin kontatutako amodiozko istorioa da.

Txistua elkarrekin jo eta taldeak batzeko topaketa

Leintz bailarako VII. txistulari eguna egingo dute bihar, zapatua. Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako taldekoek gainera, Soroluzetik, Abetxukotik eta Oñatitik ere etorriko dira. Kalejirak eta Herriko Plazan bi kontzertu egingo dituzte

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 2010ean egin zuten Eskoriatzan Leintz bailarako lehenengo topaketa; eta Aretxabaletakoei lekukoa hartuta -iaz han egin zuten-, Arrasateko taldeari egokitu zaio biharkoa antolatzea. "Txistulari elkarten arteko harrimana sendotzeko asmoarekin abiatu genuen. Ekitaldi ofizialetan bakarrik elkartu beharrean, horren serioa ez den beste batzuetan ere batzeko gogoak bultzatuta", azaldu du Junkal Perezek, Arrasateko txistulariak.

Biharkoak, baina, bailara gainditu egingo du. 50 lagun inguru batuko dira. "Plazentziakoekin eta Oñatikoekin aspaldiko harrimana dugu. Abetxukokoekin Aretxabaletakoak hainbatetan izan dira, eta gustura asko hartu zuten gonbidapena".

Kalejirak eta kontzertuak

Zaldibar frontoitik abiatuta (11:30) erdiguneko kaleetan zehar kalejira eginda, Herriko Plazan



Iaz Aretxabaletan egin zuten Leintz bailarako txistularien topaketa. IMANOL SORIANO

egingo dute kontzertua, 13:00etan. "Bi kontzertu egingo ditugu: eguerdikoan, askotariko estilokoak, pasodobleak... Arratsaldekoan (18:30), berriz, kaleko dantzak izango dira, bereziki".

Belaunaldi aldaketaz kezkatuta Perezek jende berria datorrela dio, baina bultzada bat eman beharko litzatekeela uste du. "Betikoak gaude; gazte gogotsuak ditugu, baina denbora behar dute gure martxa hartzeko".

Pio Baroja idazlearen omenez, mahai-inguruak eta hitzaldiak

'Pio Barojaren testamentua' berbaldia egingo du Angel Erro idazleak, martitzenean, Kulturaten, 19:00etan

A. A. ARRASATE

Pio Barojaren heriotzaren 60. urteurrena dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Sailak idazlea omenduko du. Donostian izango dira ekitaldi gehienak, baina Arrasateraino ere hurbildu gura izan dute Barojaren figura eta ekarpena.

Notario paperean sartuta

Luisa Etxenike idazleak egin zion proposamena harriduraz hartu zuela aitortu du Errok. "Barojista eta Barojazale asko daude Euskal Herrian, nire au-

rreko belaunaldikoak badira ere gehienak. Gaur egungo idazleoi zerbait esaten digun Barojak galdetu nion nire buruari. Nik badut teoria bat, eta espero dut Kulturateko entzuleekin ondorio batera heltzea. *Best-seller*-aren ezaugarri batzuk eraman zituen Barojak bere eleberrietara: akzioa eta indar handiko pertsonaiak sartzea", azaldu du Errok.

Testamentu baten irakurketa baten itxurako berbaldia egiteko asmoa duela dio idazleak. "Saiatuko naiz bere benetako testamentutik hasten, baina



Angel Erro idazlea. A. E.

oraindik tratutan ari naiz hori lortzeko. Horrela egitea pentsatu nuen burura ekartzen duela ondarearen ideia modu metaforikoan; hau da, zer utzi digun, eta baita modu fisikoan ere, haren liburuei begiratuta".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubean, hilero sariak!



IRAILEKO SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA:
Ana Maria Ruiz Santos (Eskoriatza)

Irabazi bi lagunendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntuak* aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Aretxabaletako Udalari esker

Txalo taldearen 'Heroiak' antzezlanerako sarrerak ditugu.

Zaraia aretoan. Aretxabaletan. | Urriaren 29an, 22:00etan.

Aretxabaletako Udalari esker

Txalo taldearen 'Magia Lapurra' ikusteko sarrerak ditugu.

Zaraia aretoan. Aretxabaletan. | Urriaren 30ean, 17:00etan.

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "ikusizunaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Santa Marina kalean 55 metro koadroko etxebizitza salgai. Hirugarren solairuan. Gela guztiak kalera begira. Egonzela, sukaldia, koma eta bi logelakoa. Sotoa ere badu. Harrematarako: 605 70 98 60 edo santamaina10@gmail.com

Bergara. Etxebizitza salgai Fraiskozerin. Hiru logela, egongela, sukaldia eta nagusienak egokitutako koma. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. Dena kanpora begira. Argitsua. 687 57 84 23

103. ERRENTAN EMAN

Aramio. Etxebizitza ematen da errentan. Leku onean. Ikuspegi politak. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela eta bainugela. 665 72 28 46

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Juan Carlos Guerran plazan. 80 metro koadrokoa. Hiru logela eta komun bat. Igogailuarekin. 679 25 72 46

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uribe Auzoan. 105 metro koadro, 4 logela, 2 komun oso, balkoia, sukaldia etxetresna guztiak. Altxariak dauka. Garajea plaza ere aukeran. 657 72 51 65

Eskoriatza. Etxebizitza gutxi jantzia ematen da errentan Eduardo Gorosari enparantzan. Sukaldia, bi bainugela, egongela eta hiru logela. Garajearekin. 605 77 51 65

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasateko bikote gazte bat gara eta etxebizitza bila gabiltza errentan hartzeko. Aitor eta Ane. 610 62 48 12 edo 688 62 87 24

Bergara. Kaixo, bikote gazte bat gara eta etxebizitza txiki baten bila gabiltza Bergaran. Logela bat izatearekin nahiko. Kokalekuaren inguruan malguak gara. Deitu telefono honetara: 671 92 06 49

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldia, egongela eta koma erabilizko aukerarekin. Logelak sarriala dauka eta wifia ere badago. Kontakua: 603 14 28 89

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai Boni Laskurainen. 687 57 84 23

Oñati. Garajea saldu edo errentan ematen da. Ugarkalde 14an, 1. solairuan. 22,50 metro koadrokoa. Ate automatikoarekin. 666 44 23 98

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia Santa Kurtz 24an. Errentan 60 euro hilean edo salgai 15.000 euroan. 647 08 00 16

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Oñatin garajea hartuko nuke errentan. Olatua auzoaren inguruan. 678 80 83 00

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Okindegi-kafetegirako langileak behar dira. Txukun eta arduratsuenak. Euskara. Bidali curriculumak: tahona. arrasate@gmail.com

BERGARA

Esperientziadun zerbitzaria behar da asteburuertarako.

625 53 69 37

Oñati. Goizetan edo arratsaldetan, orduka, etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 653 01 41 37 edo 657 73 10 42

402. ESKAERAK

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Arrasate. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka, astelehenean ostiralera. 622 24 86 64

Bergara edo inguruak. Neska euskalduna lanerako prest umeak edo pertsona nagusiak zain-

tzen edo etxeko lanak egiten. Esperientziarekin, arduratsua eta disponibilitate osoarekin. Deitu zenbaki honetara: 618 92 40 53 edo 943 76 25 85

Bergara, Arrasate, Antzuola. Eskarmentu handiko emakume euskalduna eskaintzen da etxerentan, tabernetan eta atarrietan orduka garbiketarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 86 46 80

Bergara. Kaixo! Irakasle gradu duen neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Goizez zein arratsalde. Esperientzia dut haurrak zaintzen eta partikularrak ematen. Interes duenak deitu telefono honetara: 659 29 14 63

Debagoiena. Esperientziadun emakumea, pertsona nagusiak edo haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 93 38 29

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko edo tabernako sukaldian aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, jardun osoz eta baita orduka ere. 697 20 00 86 edo 612 56 65 27

Debagoiena. Emakumea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

Debagoiena. Gizona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. 631 40 81 98 (Junior)

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen edo garbiketarako lanetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientziaduna. 673 90 69 74

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke gauean edo egunean zehar orduka. 672 98 20 91

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketara edota etxeko lanak egiten aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. 610 99 70 46

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketara edota sukaldia laguntzaile moduan lan egingo nuke. 691 03 25 02

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzen eta garbiketara lan egiteko. Orduka eta baita asteburuetan ere. 652 50 77 68

Debagoiena. Neska gertu zaintza eta garbiketara lanetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Lege agiriak daukat. 653 31 95 61

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen, baita asteburuetan ere. 603 29 94 29 (Soraya)

Debagoiena. Sukalde lanetan esperientzia dut eta lan bila nabil. 615 50 54 18

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Ingeleseko eskolak jasoko nituzke. 646 36 68 02

502. EMAN

Bergara. Kimikan Doktoarek eskola partikularrak,

lan eta aurkezpen presaketak. ematen ditut, batez ere, zientzietako irakasgaietan. Maila guztietan dut esperientzia: lehen hezkuntzatik unibertsitate mailara. 615 71 02 08

Ingeleseko eskolak Oñatin. Ingeles filologia-ko 4. mailako ikasleak ingeleseko eskolak ematen ditu: errefortzuak, partikularrak, banaka zein taldeka. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 37 72 12

6. MOTORRA

602. EROSI

Mendirako motorra. Mendirako motorra erosi nuke. Dokumentazioarekin. Deitu telefono honetara: 656 75 76 98

Scoterra. Scoterra erosi nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. 656 75 76 98

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Bi Border Collie salgai Oñatin. Biak arrak. Gris-zuri-urdin eta marroi-zuri kolorekoak. Bi hilabete eta erdi daukate eta parasitoen aurkako tratamendua emanda daukate. Telefonoa: 653 71 38 15 (Joseba)

703. EMAN

Katakumeak. Katakume txikiak ematen dira opari. Beltzak, zuriak eta zuri-beltzak. 629 09 63 46

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursaila Arabako lautada. Arriolan, Asparrenan, lursail urbanizatua salgai. 1500 metro koadro. Ur, gas eta argindar instalazioak dauka. Interesatuok deitu edo bidali Whatsapp mezua zenbaki honetara: 652 76 00 16

INMOBILIARIA

ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Martoka, 70 m²; 2 log. igogailua, trasteleku, ez du obra beharrik. 108.000€.
- Aranerrek, 90 m²; 3 log. igogailua, trasteleku eta garaje itxia. 175.000€.
- Simon Arrieta, 78 m²; 2 log. berriak. Bizitzera sartzeko. 130.000€. AUKERA ONA.
- Zubiurre, 50 m²; 2 logela, BERRITZEKO. 24.000€. AUKERA ONA.
- Madura, 57 m²; 2 log. Berriak. Bizitzera sartzeko. 110.000€. AUKERA OSO ONA.
- Urteaga, 92 m²; 3 logela, terraza 40m²; garajea aukeran. Eraikuntza berria. 280.000€.
- Emai, 162 m²; atikoa. 4 log. Tximinia, 28m²ko terraza. 350.000€.
- Zubiurre, 86 m²; 3 log. trasteleku eta garajea barne. 100.000€. AUKERA BIKAINA.
- Artzamendi, 74 m²; 3 logela, berriak, garajea barne. 210.000€.
- Aranerrek, 85 m²; 3 logela, Berriak. Ez du obra beharrik. 145.000€.
- Paseo Irizar, 87 m²; 3 logela, igogailua eta trasteleku. 170.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Matxategi, 72 m²; 3 logela, igogailua eta trasteleku. 170.000€. Ez du obrarik behar.
- Zabaltegi, 79 m²; 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 75 m²; 3 logela, trasteleku eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Madura, 65 m²; 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130m²; 4 log. 320.000€. Terraza, igogailua, patioa.
- Emai, 52 m²; atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza lasotua. 175.000€.
- Espoia, 95 m²; 3 logela. Trasteleku. 200.000€. Garajea aukeran. 25.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m²; 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Simon Arrieta, 82 m²; 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125 m²; terraza eta 2 orturkin. Bi etxe egiteko aukera. 192.000€.
- San Antonio, 86 m²; 3 logela, trasteleku eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiurre, 60 m²; 2 logela, trasteleku eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m²; 3 logela. Trasteleku. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.
- Askarruntz, 60 m²; 2 logela. Lasaia eta eguzkitsua. 100.000€. AUKERA ONA.
- Zubiurre, 104 m²; 2 log. terraza, trasteleku eta garajea. 165.000€. Eraikuntza berria.

ANGIOZAR:

- Etxebizitza 60 m²; 2 logela, erabat berriak. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria, 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Erretea alokagailu. Erretea bezala erabilizko dena hornitua eta martxan.

OSINTXU:

- Osintxu, 92 m²; 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berria. 165.000€.
- Osintxu 85 m²; 3 logela. Igogailua. Berriak. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61 m²; 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m²; 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

ANTZUOLA:

- Buzin-zuri, 65 m²; 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde 78 m²; 3 logela, Berriak. 130.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrodo, 90 m²; 3 logela. Trasteleku, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m²; 3 logela, igogailua. 180.000€.

ELGETA:

- Gudarien Bidea, 75 m²; berritzea. 72.000€. AUKERA BIKAINA
- Torrealdea, 77 m²; 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUA

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

UDA-REN 70. URTEEN ERREPASOA EGINGO DUTE

'Harmailatik' Astelehena 22:00



MIREN ARREGI

EKONOMIARI BURUZ BERBETAN

'Ekonomia Gurean' Eguaztena 22:00

EGUBAKOITZA, 21	ZAPATUA, 22	DOMEKA, 23
12:00 Debagoiena zuzenean	09:00 Kantari 1	09:00 Kantari 1
12:30 Bota erroka	09:30 Platonin	09:30 Platonin
14:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo
14:30 Berriak	10:30 Kantari 2	10:30 Kantari 2
15:00 Bota erroka	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Tripa zorri
15:30 Erreportajea: Fagor	11:55 Astea iruditzen	11:30 Bota erroka
16:00 Amaia DJ	12:00 Erreportajea: Fagor	12:00 Erreportajea: Fagor
16:30 Berriak	12:30 Aizanki: sare sozialak	12:30 Debagoiena zuzenean
17:00 Tripa zorri	13:00 Debagoiena zuzenean	13:25 Astea iruditzen
17:20 Ertzak: Feminismoa	13:55 Astea iruditzen	13:30 Bat-batean
18:00 Ur eta lur	14:00 Erreportajea: Fagor	14:30 Sasoi onean: Mizpialde
18:30 Berriak	14:30 Bota erroka	15:00 Amaia DJ
19:00 Kantari 40	15:55 Astea iruditzen	15:30 Korapilo
19:30 Bota erroka	16:00 Platonin	16:00 Platonin
20:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Kantari 2	17:00 Kantari 1
20:30 Berriak	17:00 Korapilo	17:00 Korapilo
21:00 Debagoiena zuzenean	17:30 Amaia DJ	17:30 Kantari 2
21:30 Berriak	18:00 Bota erroka	18:00 Sasoi onean: Mizpialde
22:00 Amaia DJ	18:30 Erreportajea: Fagor	18:30 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	19:00 Debagoiena zuzenean	19:25 Astea iruditzen
23:00 Berriak	19:55 Astea iruditzen	19:30 Erreportajea: Fagor
23:30 Bota erroka	20:00 Kantari 1	20:00 Debagoiena zuzenean
00:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Erreportajea: Fagor	20:55 Astea iruditzen
	21:00 Bat-batean	21:00 Amaia DJ
	22:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Erreportajea: Fagor
	22:55 Astea iruditzen	22:55 Astea iruditzen
	23:00 Amaia DJ	23:00 Bota erroka
	23:30 Erreportajea: Fagor	
	00:00 Erreportajea: Juana Josefa Goñi	

ASTELEHENA, 24

OSINTXUKO ERREFUXIATUAK

'Debagoiena Zuzenean'

Astelehena, 20:00

MARTITZENA, 25

JUANA JOSEFA GOÑIRI BURUZKOAK

'Erreportajea'

Martitzena, 22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 26



GOIENA

BIDEOKLIPAK NAGUSI

'Amaia DJ'

Eguaztena, 17:30.

EGUENA, 27

BAILARAKO ALBISTE NAGUSIENAK

'Berriak'

Eguena, 14:30

ZORION AGURRAK



BERGARA
Alaitz eta Uxue Gonzalez Lete
Urriaren 25ean, 2 urte. Zorionak, printzesa parea! 2 urte ja, ze azkar pasatzen dan denbora. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetzean. Muxu potolo-potolo bat danon partetik. Bereziki, Ane, Leire, Aiora eta Libe.



ARETXABALET
Maren Lazpiur Eraña
Urriaren 25ean, 10 urte. Zorionak, Maren! Orainguan bai! 10 urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna lagunena eta etxekoen artien! Besarkada erraldoia zuretako, *pitxirrin!*



ARAMAIO
Maia Armendariz Eriz
Urriaren 24an, 4 urte. Zorionak, poxpolintxo! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



ARAMAIO
June Armendariz Eriz
Urriaren 24an, 4 urte. Zorionak, polit hori! Pila-pila bat maite zaitugu!!



BERGARA
Alaine Imaz Poza
Urriaren 24an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
Ekain Agirre Lete
Urriaren 24an, 6 urte. Zorionak denon partetik! Ondo-ondo pasatu zure egunean!



ARRASATE
Oxel Souto Lasa
Urriaren 24an, 4 urte. Zorionak, morroxko! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu handi-handi bat, etxeko denon partetik!



BERGARA
Maren Fernandez Unamuno
Urriaren 23an, 12 urte. Zorionak, *prexiola!* Ondo-ondo pasatu zure eguna, *guapisima*. Muxu handi-handi bat danon partetik! Bereziki, Aitor, Aiora eta Libe.



ARRASATE
Markel Caballero Agra
Urriaren 22an, 2 urte. Zorionak, Markel, eta muxu handi bat, familiaren partetik!



BERGARA
Naroa Imaz Poza
Urriaren 22an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxekoen partetik!




ESKORRIATZA
Nora Berezibar Arevalo
Urriaren 22an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat! Familiaren eta lagun guztien partetik!



ARRASATE
Alazne Sandoval
Urriaren 21ean, 14 urte. Zorionak, Alazne! Aitaren, amaren eta Eiderrren partetik. Primeran pasatu zure eguna. Maite zaitugu.



BERGARA
June Alberdi Gallastegui
Urriaren 21ean, 5 urte. Zorionak, June! Familiako danon partetik, muxu handi bat.



ARRASATE
Unai Urkizu Pildain
Urriaren 21ean, urtebete. Urtebete bat! Zorionak, familia osoaren eta, bereziki, gurasoen eta aitaita-amamen partetik!



ARRASATE
Ane Goya Urain
Urriaren 21ean, 9 urte. Ondo-ondo pasatu, eder hori!



OÑATI
Unax Benito Alzelai
Urriaren 20an, urtebete. Zorionak, potxolo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Hodeiren, aitaxoren eta amatxoren partetik! Milaka muxu!




BERGARA
Olatz Almortza Arregi
Urriaren 20an, 2 urte. Zorionak, Olatz! Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean eta merendolan ikusiko gara. Txokolatzeko patxo handi-handi bat, Ametsen partetik. Mua!



ANTZUOLA
Ane Urzelai Ibane
Urriaren 18an, 4 urte. Zorionak, *potxoli!* Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat, amatxoren eta aitaxoren partetik!



OÑATI
Unai Izura Astigarra
Urriaren 18an, 12 urte. Zorionak! Muxu handi bat etxekoen partetik eta ondo pasatu eguna!




ESKORRIATZA
Peru Baena Sologaitoa
Urriaren 18an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo potolo bat eta edarto pasatu eguna. Izugarri maite zaituen aitaxoren, amatxoren eta Jareren partetik.




OÑATI
Oier Zubizarreta Iñarra
Urriaren 17an, 9 urte. Zorionak, Oier! 9 urte! Denboria azkar pasaiten dala... Ondo pasatu zure urtebetetzian. Patxo bat, etxeko danon partetik. Segi horrela!




ARRASATE
Koldo Oianguren
Urriaren 16an, 35 urte. Zorionak, osaba Koldo! Patxo potolo bat! Izar eta Unax.



ARRASATE
Bingen Uriarte Garmendia
Urriaren 16an, urtebete. Zorionak, bihotza! Etxekoen partetik, maitasun handiz. Maite zaitugu. Ondo pasatu.



ARRASATE
Unai Velez de Mendizabal Otero
Urriaren 16an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu urtebetetze festan laguntxoekin eta familiakoekin! Patxo handi bat!



ANTZUOLA
Dare Asensio Cabrera
Urriaren 16an, urtebete. Zorionak, txiki! Ondo ospatuko dogu lagun eta familia artian! Patxo pila bat, aitaxoren, amatxoren, etxeko danen eta tia Aneren partetik!



OÑATI
Aner Olasagasti Bernal
Urriaren 15ean, urtebete. Zorionak, bihotza! Jada urtebete! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo pilua, etxeko danon partetik. Jarraitu oraingo moduko alaixa izaten! Askoi maite zaitugu!



ARRASATE
Noa Bellido Nuñez
Urriaren 15ean, 8 urte. Zorionak, familia osoaren partetik.




OÑATI
Eneko Moiu Bikuña
Urriaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu egun berezi hau. Patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Beñat eta Julen Aranguren
Urriaren 14an, 7 urte. Zorionak familiaren eta lagunena partetik. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetzean.



BERGARA
Maddi Mendizabal Larrañaga
Urriaren 14an, 2 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu eta besarkada bat etxekoen eta, bereziki, Oierren partetik.



ARRASATE
Alaitz Nin Ugalde
Urriaren 14an, 3 urte. Zorionak, Alaitz! 3 urte ein dittuzu ja, sorgintxo! Patxo mordo bat, etxeko danon partetik! Ilargira eta bueltan maite zaitugu!



BERGARA
Uxue Garitano
Urriaren 13an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Espero dugu egun politta pasatzea. Muxu eta besarkada erraldoi bat, Kenarren eta Alainen partetik. Askoi maite zaitugu!



ARRASATE
Alexa Damary Moreno
Urriaren 12an, 11 urte. Anaia Isaacen eta gurasoen onena opa dizugu! Zorionak eta urte askotarako. Muxu bat, polit hori!



BERGARA
Miren Moñux Garcia
Urriaren 12an, 11 urte. Zorionak, Miren! Gozatu eguna topera, maitia. Patxo handi bat. Andoni, June eta Aitor.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabilzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROIGARRIA



**Codes
Martinez de Arenaza
Martinez de Antoñana**




2016ko urriaren 15ean hil zen, 60 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.*

Kafeko lagunak.
Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean.

OROIGARRIA

**Codes
Martinez de Arenaza
Martinez de Antoñana**




2016ko urriaren 15ean hil zen, 60 urte zituela.


*Irrifarra ahoan, dizdira begietan,
erakutsi eta eman diguzun indarra
beti izango da gure bihotzetan.*

Zure familia.
Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean.

OROIGARRIA



**Jose M.
Jauregialzo Zabala**



'Jaure'

2016ko urriaren 16an hil zen, 66 urte zituela.

*Zure laguna izatea ohorea izan da
orain askatasun haizea zara
baina zure irribarreak ta maitasunak
gure bihotzetan iraungo dute.
Aurrera bolie!*

Zure kuadrilla eta lagunak.
Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean.

OROIGARRIA



**Mari Tere
Arriaran Aranburu**




2015eko urriaren 20an hil zen, 83 urte zituela.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak.

Etxeakoak.
Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean.

OROIGARRIA

**Isabel
Balzategi Olazagoitia**




Pedro Larrinagaren alarguna

2016ko urriaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.


Tia Isabel, betirako gure bihotzetan.

Ane, Xabi eta Danel.
Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean .

OROIGARRIA



**Felix
Barrena Urzelai**



2016ko urriaren 18an hil zen.

Beti jarraituko duzu gure bihotzetan.

Maitasunez,


Arriaran sendia.
Oñatin, 2016ko urriaren 21ean.

HILDAKOAK

- Luis Mari Erostarbe Beitia.** Oñatin, urriaren 5ean. 59 urte.
- Jesus Agirre Zarraoa.** Arrasaten, urriaren 6an. 83 urte.
- Rafael Sanchez Nova.** Arrasaten, urriaren 6an. 92 urte.
- Clara Ruiz Acosta.** Arrasaten, urriaren 8an. 97 urte.
- Julian de la Cruz Lobo.** Bergaran, urriaren 9an. 82 urte.
- Maritxu Gallastegi Azkarate.** Bergaran, urriaren 10ean. 87 urte.
- Joxe Miel Elorza Beitia .** Oñatin, urriaren 10en. 55 urte.
- Arantxa Kortazar Kortazar.** Bergaran, urriaren 12an. 84 urte.
- Angelita Garmendia Bikuña.** Arrasaten, urriaren 12an. 74 urte.
- Bittori Igartua Igartua.** Oñatin, urriaren 12an. 96 urte.
- Baltasar Vicente Hernandez.** Bergaran, urriaren 13an. 83 urte.
- Manuel Acosta Molina.** Arrasaten, urriaren 14an. 90 urte.
- Candido Bikuña Madina.** Oñatin, urriaren 14an. 85 urte.
- Codes Martinez de Arenaza Martinez de Antoñana.**
Arrasaten, urriaren 15ean. 60 urte.
- Inma Armenteros Fernandez.** Arrasaten, urriaren 15ean. 67 urte.
- Isabel Balzategi Olazagoitia.** Arrasaten, urriaren 15ean. 85 urte.
- Jose M. Jauregialzo Zabala.** Arrasaten, urriaren 16an. 66 urte.
- Felix Barrena Urzelai.** Oñatin, urriaren 18an.
- Pedro Ugarte Ayastuy.** Oñatin, urriaren 20an. 89 urte.

ESKER ONA

**Isabel
Balzategi Olazagoitia**



Pedro Larrinagaren alarguna


2016ko urriaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean.

HILETA

**Pedro
Ugarte Ayastuy**



Olade Baserria (Arboleda)


2016ko urriaren 20an hil zen, 89 urte zituela.

Emaztea: Juli Murua Agirre. Seme-alabak: Jesus Mari (†) eta Txaro Ajuria, Jaione, Mikel eta Axun Mendizabal, Imanol eta Maribel Irizar. Bilobak: Ande, Oihana, Ilargi, Iñigo, Martin, Jone, Andoni, Malen, Itziar. Anai-arrebak: Ceferino (†), Maritxu (†), Martina, Antonio. Etxeko iloba: Patxi. Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.


Haren arimaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezteela gaur, ostirala, 19:00etan, Mikel Goiaingeruaren parroki elizan gorputza bertan dela egingo den hiletara.
Aldez aurretik mila esker.

Hilbeila Moyua tanatorioan egingo da 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era.
Oñatin, 2016ko urriaren 21ean.

URTEURRENA



**Prudencio
Laskurain Irizar**



2015eko urriaren 21ean hil zen, 79 urte zituela.

*Urteurreneko meza domekan izango da,
urriaren 23an, 11:00etan,
Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropeneko amaren elizan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2016ko urriaren 21ean.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



**maribi 617 44 21 55
BERGARA**

ESKER ONA

Candido Vicuña Madina

(Txopekua jatetxekoa)



2016ko urriaren 14an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Besarkada handi bat guztioi, familiaren izenean, hain ondo zaindu eta maitatua izan delako.

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 22an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko urriaren 21ean.

ESKER ONA

Luis Mari Erostarbe Beitia

'Ubao'



2016ko urriaren 5ean hil zen, 59 urte zituela.

Familia danaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, jasotako doluminengatik, eta erakutsitako babes eta elkartasunagatik.

Oñatin, 2016ko urriaren 21ean.

ESKER ONA

Bittori Igartua Igartua

2016ko urriaren 12an hil zen, 96 urte zituela.



Lerro hauen bidez Bittoriren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 22an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Gerturatuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko urriaren 21ean.

TXUTXU-MUTXUAK

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!


Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatzo Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Andoitz eta Amaia

Andoitz Barriola eta Amaia Biain zapatuan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote, familixaren, kuadrillaren eta lagunuen partetik. Eta muxu handi bat Aimarrek eta Ametsek bereziki! Ondo pasatu eguna!"



Elizondora irteera

1952. urtean jaio ziren arrasatearrek Elizondora egin zuten irteera kintada ospatzeko. Eguna oso ondo pasa zuten eta herrian jarraitu zuten 64 urteak ospatzen. Denak ez ziren etxera bueltatu Kajoi tabernatik pasa gabe.



Trenaren bidea

Vasco-Navarro trenaren Eskoriatzatik pasatzen zen bidea zeharkatu zuten hainbat herritarrek joan den astean egindako irteeran. Guztira, 50 lagun inguru batu ziren eta auzoz auzo hainbat bide ezagutzeko aukera izan zuten (argazkian, Maringo elizan).

#DIOTENEZ

ISUNA

Aloña Mendiko jokalaria bati zigorra jarri dio epaileak, "ijitu" deitu diolako. Oñatiko taldeak UDAREN aurka jokaturako partiduan izan zen. Epaileak kanporatu egin zuen jokalaria hori entzun zuenean eta gerora etorri da zigorra; **sei partidu** jokatu gabe egon beharko da futbol jokalaria oñatiarra. Herri Eguneko **biharamunean** jokatu zen partidu hori, Ibarren, eta etxeok irabazi zuten, 3-0.

MARTXA

Osintxuko I. mendi lasterketak **10 kilometro** izango ditu, baina osintxuar batek **ibilbide gogor** samarra izango duela esan digu. Lasai hartu eta disfrutatzeko modukoa!

KAMISETA

Eguneroko edozein zereginetan sartzen da tarteka **futbola** gaur egun. Horren adibide da joan den astean autobus batean ikusitako

egoera. Athletic taldeko **bazkide sutu bat** ikusi zuten Realeko Mikel Gonzalez *Gontxa*-ren kamiseta soinean zuela. Arrasatera heldu orduko, baina, beste bidaiari batek zuen jantzita kamiseta. **Badaezpada**, argazki gehiago ateratzeko beldur edo.

APARKATZEKO LANAK

Arrasateko Grupo San Juango **asfaltatze lanen ostean**, ibilgailuak aparkatzeko marrak

noiz margotuko dituzten zain daude hango bizilagunak. Bitartean **ez da giro** inguru hartan ibilgailua aparkatzeko orduan. Hori da hori kaosa!

AURTEN EZ

Zalantzan dago urtero Bergarako Gorla inguruan egin ohi den **txakur krosa**. Litekeena da aurten ez egitea, baina horrek ez du esan gura datorren urtean egingo ez denik!

POP UP

Bergaran joan den zapatuan egin zuten Pop Up ekimenarekin **gustura** gelditu ziren merkatari guztiak. Oso harrera ona izan zuen eta herritar asko joan ziren denboraldi berriko **nobedadeak zeintzuk** izango ziren ikustera; ateak noiz zabalduko zain zegoen jendea zapatu arratsaldean. Aukeraturako tokiarekin ere, konforme denak. **Berriz egiteko** aukera ez dute baztertzen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 21

ESKORIATZA Beldurrezko maskarak

Tailerra egingo dute.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ELGETA Ipuinen ordua

Bi urteko gelatik aurrerako umeendako saioa, euskaraz.
Liburutegian, 17:20etan.

OÑATI Odol ateratzea

Urriko deialdia.
Osasun zentroan, 17:30etan.

OÑATI 'Konpos eroak' antzerkia

Haurrendako emanaldia Zirika Zirkusen eskutik.
Gaztelekuan, 18:30etan.

OÑATI 'Mendiek hitz egiten dutenean'

Alberto Iñurrategiren hitzaldia, Mondragon Linguaren eskutik.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Bang!'

Nazioarteko Txotxongilo Mostrako emanaldia.
Zabalotegin, 20:00etan.

OÑATI The Kagasen bertsioak, Aitor Regueiro eta Gaitzerdi

Sarrerak bi euro, Txantxiku Ikastolako Batxilergoko lehen mailako ikasleendako bidaiarako.
Gaztetxean, 22:00etan.

ARETXABALETA 'E, petre! Julio Villarrekin solasean' antzezlan

Mistral belaontzian egindako bidaia kontatzen du. Sarrerak, lau euro.
Arkupa, 22:00etan.

BERGARA 'Variete white'

Nazioarteko Txotxongilo Mostrako emanaldia.
Gaztetxean, 22:30etan.

BERGARA 'Bergarako besarkada'

Hainbat partikularren eta erakunderen 65 pieza bildu dituzte, Marotok eta Esparterok egindako besarkadari buruzko ikuspuntu ezberdinak emateko asmoz.
Azaroaren 1era arte dago ikusgai erakusketa.
Laboratoriumen.



GOIENA

ARRASATE Leintz Bailarako Txistulari Eguna

Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Oñatiko, Soroluzeko eta Abetxukoko txistulariak batuko dira. 11:30ean kalejira Zaldibartik irtenda, 13:00etan kontzertua Herriko Plazan eta 18:30ean erromeria leku berean.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.



GOIENA

ESKORIATZA Izero bakarlarria

Mallabiko musikariak kontzertua egingo du Atxorrotx Kultura Elkarteak gonbidatuta. AEBetako folkarekin bustitako pop doinuak izango dira nagusi. *Om* delako diskoa aurkeztuko du.
Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 23:00etan.

ZAPATUA 22

OÑATI 'Ura eta Energia' mendi irteera

Izena, aurrez, 943-71 64 04 telefonoan.
Foruen plazan, 08:30etan.

ARRASATE Gazte Eguna Musakolan

Askotariko ekintzak egingo dituzte. 13 urtetik beherakoendako bazkaria egongo da.
Auzoko eskolan, 11:00etan.

ARRASATE 'Hi, selfie' lehiaketa

Musakolako Gazte Egunaren baitan. Aurpegi margotzea eta puzgarriak ere egongo dira.
Auzoko eskolan, 11:00etan.

BERGARA 'Perro perdido'

Nazioarteko Txotxongilo Mostrako emanaldia.
San Martin plazan, 13:00etan, 18:00etan eta 19:30etan.

ARAMAIO Bertso-bazkaria

Sebastian Lizaso eta Julio Soto bertsotan.
Kasatxo bordan, 14:00etan.

ARRASATE Pedrusko taldearen 35. urteurrena

Futbol taldetik pasa ziren jokalariek eta entrenatzaileak elkartuko dira mahaiaren bueltan.
Cordoba y Oro plazan, 14:00etan.

ARRASATE Ping-pong saioa

Musakolako Gazte Egunaren baitan.
Auzoko eskolan, 14:30etan.

ESKORIATZA Beldurrezko maskarak

Gau Beltzerako prestaketa lanak.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE Sukaldaritza saioa

Jaki ezberdinak prestatuko dituzte.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ARETXABALETA Pelikula

Zinema-emanaldia.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE IV. Ganberock

Kañeria 13 eta Crap taldeak.
Sarrera, doan.
Taupa tabernan, 19:00etan.

BERGARA Koruko Andre Maria Musika Kaperaren kontzertua

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa.
Santa Marinaran, 20:00etan.

BERGARA 'Fauno'

Nazioarteko Txotxongilo Mostrako emanaldia.
Zabalotegin, 20:00etan.

BERGARA Joseba Tapia

Kontzertua egingo du.
Osintxuko plazan, 22:00etan.

OÑATI Juan Valls eta Izaki Gardenak

Sarrerak, bost euro.
Gaztelekuan, 22:30etan.

BERGARA 'Náufragos'

Nazioarteko Txotxongilo Mostrako emanaldia.
San Martin plazan, 22:30etan.

ARRASATE Monse Roldanen eta Blanca Martinezen erakusketa

Arte figuratibotik espresionismora bilduma, azaroaren 14ra arte.
Kajoi tabernan, zabalik dagoenean.

DOMEKA 23

ELGETA Andraitzera ibilaldia

Parte-hartze irekia.
Mendizaleen plazan, 08:00etan.

OÑATI Leizarrako zabortegearen garbiketa

Ostean, Araotzeko auzo etxean bazkalduko dute (14:30).
Foruen plazan, 10:00etan.

ARRASATE 'Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka' kanpaina

Errigorak Erriberan ekoiztutako produktuak bultzatu eta hango euskalgintzari laguntzeko ekitaldia: harrera (10:00), prentsaurrekoa (12:00) eta bazkaria (14:30).
Arimazubi plaza, 10:00etan.

LEINTZ GATZAGA Gatzaren eguna

Azoka ekologikoa (11:00), museora bisita gidatuak, gatz-xaboi tailerra (11:00), gatz dastaketa (12:00), gatzaina erreak (12:30), tailerrak (12:30) eta trikitalariak (12:30).
Frontoian, aipatutako orduetan.

OÑATI 'Oñatitik Ameriketara eta itzulera' bisita gidatua

Migrazioa eta kultura ondarea izango ditu hizpide. Aurrez, izena, turismo bulegoan.
Turismo bulegoan, 11:00etan.

ARETXABALETA Ibilgailu klasikoaren topaketa

Harrera (11:00), luntxa (12:30), herriari bira autoekin (13:00) eta zozketa (14:00).
Herriko Plazan, aipatutako orduetan.

ESKORIATZA Magia tailerra

8 urtetik gorakoendako saioa Imanol Ituiño Magoarekin.
Kultura etxean, 12:00etan.

OÑATI 'Musika hezkuntza goiztiarra'

Beatriz Gartziazen hitzaldia, eta, ostean, musika eskolako ikasleentzako erakustaldia, 2-3 urte arteko umeentzako gurasoendako.
Santa Anan, 12:00etan.

ESKORIATZA 'Paint-ball'-a

Galarretara egingo dute irteera gazteek.
Akeitako autobus geltokian, 13:00etan.

ARETXABALETA 'Paint-ball'-a

Galarretara egingo dute irteera gazteek.
Akeitako autobus geltokian, 13:00etan.

ESKORIATZA 'Magia parrastan'

Imanol Ituiñorekin, ikuskizun parte-hartzailea. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibarren, 17:00etan.

BERGARA 'A mano'

Nazioarteko Txotxongilo Mostrako emanaldia.
Zabalotegin, 18:00 (guztiendako) eta 20:00 (helduendako).

ASTELEHENA 24

OÑATI 'Iraungorriko Marimi'
Itzal-txotxongiloen emanaldia, 5-12 urte artekoendako, Bibliotekaren Nazioarteko Egunaren harira. *Bibliotekan, 17:00etan.*

OÑATI Kata literarioa
El sabor de la literatura. Chocolate y libro saioa, Carles Garciarekin. *Bibliotekan, 19:00etan.*

MARTITZENA 25

ANTZUOLA Barnetasunaren heziketa helduendako
Ikastaroaren helburua da norberaren barrena zelakoa den ikustea eta hobeto egoteko zer egin daitekeen aztertzea. Izena emateko: *nigan@yahoo.com* edo 669 132 900. Doako ikastaroa. *Olaranen, 18:00etan.*

ANTZUOLA 'Oroimenak' antzezlan
Obra umoretsua eta dibertigarria La Soire Once taldearen eskutik. *Torresoroan, 18:00etan.*

ARRASATE Anjel Erro, Pio Barojaren gainean
Idazlearen heriotzaren 60. urteurrenaren harirako berbaldia. Ostein, *El árbol de la ciencia* obraren irakurketa egingo du Ane Gabarain aktoreak. *Kulturaten, 19:00etan.*

BERGARA Maite Frankoren ipuin kontaketa
Helduendako saioa egingo du. *Irizar jauregian, 19:30etan.*

ARETXABALETA 'Kanpaiak'
Lehiaketara aurkeztu ziren erretratu onenak ikusgai, urriaren 31ra arte. *Aroztegin, 19:30etan.*

EGUAZTENA 26

ESKORIATZA Haur eta nerabeen inguruko formazio saioa
3-18 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei, hezitzaileei eta irakasleei zuzenduta. Genero portaeraz berba egingo dute, *Genero bikotik, genero*

aniztasunera delako berbaldian. 15:00etan euskaraz eta 18:00etan gazteleraz. *Kultura etxean, 15:00etan.*

BERGARA Bertsolariak Mizpirualden
Adin-adin egitasmoaren baitan kokatzen da Maider Arregik eta Jexux Mari Irazuk egingo duten saioa. Bertsolaritzak duen potentzial terapeutikoa zein ludikoa nagusien egoitzetara gerturatzea da helburua. *Mizpirualden, 17:30etan.*

ARRASATE Lur Kortaren ipuin kontaketa saioa
3 urtetik gorakoendako saioa egingo du, euskaraz. *Santa Marinako liburutegian, 18:00etan.*

OÑATI Bigarren literatura topaketa
Irakurlea ez da izaki bakartia lelopean, Maialen Lujanbiok eta Harkaitz Canok parte hartuko dute. Danele Sarriugarte izango da helduendako saioaren dinamizatzailea. *Bibliotekan, 19:00etan.*

BERGARA 'Feriataleak' liburuaren aurkezpena
Patxi Larrion egile bergararrak berak gidatuko du saioa. *Irizar jauregian, 19:00etan.*

EGUENA 27

OÑATI 'Ostegun kontalariak'
Lur Kortaren saioa, 3-5 urte artekoendako, euskaraz. *Bibliotekan, 18:00etan.*

BERGARA Txertoak, Fiare banku etikoa eta beste gai batzuk
Txertoak, osasuna ala negozioa?, *Fiare bantu etikoaren lana*, *Kooperatiba energetikoak* eta *Oparitu Zuhaitz bat egitasmoa* izan dituzte berbagai. *Kultura etxean, 19:30etan.*

ARRASATE Rebeca Lane
Alma mestiza diskoa aurkeztuko du Guatemalatik datorren musikaria. Hip-Hop doinuak nagusi, Kooltur Ostegunetan. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKI

Bridget Jones baby
Zapatua: 19:20, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Ice age
Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Los siete magnificos
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Robinson. Una aventura tropical
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Un monstruo viene a verme
Zapatua: 17:00.
Astelehena: 20:30.
Snowden
Zapatua eta domeka: 17:00.

Filorence Foster Jenkins
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00.

No respire
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Ozzy (gazteleraz)
Zapatua: 17:00.

Ozzy (euskaraz)
Domeka: 17:00.

Un monstruo viene a verme
Zapatua: 19:45.
Domeka: 20:00.

Snowden
Zapatua: 22:30.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

El contable
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 21:30, 22:30.

La chica del tren
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:30, 22:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Astelehena, martitzena eta eguaztana: 16:00.

Un monstruo viene a verme
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:15, 19:00, 19:45, 20:30, 21:15, 22:00, 22:45.

Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztana: 16:00, 16:45.
Eguaztana: 23:30.

La fiesta de las salchichas
Egubakoitza, eta domekatik eguenera: 18:15, 20:15, 22:15.
Zapatua: 16:15, 19:00.

Inferno
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:30, 21:00.
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Astelehena, martitzena eta eguaztana: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:00, 21:00.
Eguaztana: 23:30.

El hogar de Miss Peregrine
Egubakoitzetik domekara: 20:00.

Mechanic
Egubakoitzetik domekara: 22:40.

Snowden
Egubakoitzetik eguenera: 19:40.

Ozzy
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Cigüeñas
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.
Zapatua, domeka eta astelehenetik eguaztana: 16:00.

Mascotas
Zapatua, domeka eta astelehenetik eguaztana: 16:15.

Los siete magnificos
Astelehena: 16:30.
Eguena: 17:00.

El hombre de las mil caras
Martitzena: 16:30.

FLORIDA

Un monstruo viene a verme
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

El contable
Egubakoitzetik eguaztana: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 22:30.

Inferno
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 20:30, 22:30.

La fiesta de las salchichas
Egubakoitzetik eguaztana: 19:45.

Cigüeñas
Egubakoitzetik domekara: 16:30.

La chica del tren
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

Snowden
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Elle
Egubakoitzetik eguenera: 19:45.

El hombre de las mil caras
Egubakoitzetik eguaztana: 22:30.

Quando tienes 17 años
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Ozzy
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

La proxima piel
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:30, 22:30.
Astelehena, eguaztana eta eguena: 18:00, 20:15.
Martitzena: 18:00.

El hogar de Miss Peregrine
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

Verano en Brooklyn
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 20:30, 22:30.

Astelehena, eguaztana eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.
Martitzena: 18:00, 20:15.

Mascotas
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

Un monstruo viene a verme ★★★★★


Zuz.: Juan Antonio Bayona. **Herr.:** Espainia (2016). **Aktoreak:** Lewis MacDougall, Felicity Jones, Sigourney Weaver, Liam Neeson. **Iraupena:** 108 minutu.

Belaunaldiz belaunaldi egindako lana

ANTONIO ZABALA

Ipuin bat da *Un monstruo viene a verme* eta bere barnean beste ipuin batzuk agertzen dira. Filmaren hasieran munstroaren ahotsa ipuinaren narratzaile bihurtzen da. Charles Dickensen *Gabon kanta* bat-ean oinarritzen da. Munstroak, bere istorioekin, saminduta dagoen mutikoari (amaren gaixotasuna, eskolako *bullying*-a) haserre eta frustrazioa ateratu gura dizkio. Horren azpitik, irudimenak, fantasia eta istorioen kontaketa bizitzan duen garrantziaz eta balioari buruz hitz egiten da. Irudimena eta fantasia sortzeko eta berpizteko oso garrantzitsua da belaunaldiz belaunaldi egindako lana eta utzitako hazia.

Mutikoari istorio eta pertsonaia magikoak marrazteko zaletasuna amagandik datorkio. Amak *King Kong* filma ipintzen dio:



ARGAZKILARIA XXXX

munstroaren agerpena, eta mutikoa bere eskuarekin jasotzen duenean... Dena filmarekin lotuta dago. Amak egindakoa, aurretik, mutikoaren aitona alabarekin egin zuen. Alabak maitasunez hitz egiten du aitari buruz. Ikusten ditugun argazkietan aita eta alaba agertzen dira. Aita Liam Neeson

da, eta, ez da kasualitatea, jatorrizko bertsioan, munstroari ahotsa jartzen diona Neeson bera izatea. Horrela transmisioaren zirkulua ixten da.

Bayonak narratzaile bezala pauso bat aurrera ematen du. Trebezia eta sentsibilitatea azaltzen du zinema barnekoa eta ikusgarritasuna batzeko.



AZKEN BERBA

NIKEL IRIZAR

Mudantza

Itxuraldatuta dator asteon GOIENA hau. Zutabea idazten ari naizela ez dut oraindik ale birmoldatua ikusi. Baina badakit berrituta datorrela eta konfiantza badut hobetuta ere etorriko dela. Goienak erakutsia du dagoeneko ez dela luzaro konformatzen ondo egindako lanarekin.

Garrantzitsua da jarrera hori. Nabarmena da euskararen biziberritze prozesuan zailtasunak gaintitzea lortu denean sarri erosotasunean hartu dela babes. Ulergarria da soldatak ordaintzea bihurtu izana betebeharrak nagusi. Gizatiarra da tarteka arnas hartu nahi izatea beti metro erdiko mingainaz jardun gabe.

Baina erosotasunean ez dago irabazi handirik, eragina apaldu egiten da etengabeko mudantzan dabilenaren ondoan, herritar kontsumitzaileak antzematen du non dagoen indarra, non ekimena eta berrikuntza. Horregatik behar da euskarazko produktu eta ekimenetan berritzea ardura, aldiro hobetzeko grina, hartzailerekin hurbiltasuna.

Euskalgintza gogotsu dabil eraldaketaren nolakoan bila. Erosotasuna gaintituta, berreskuratu nahi du iraganean izandako modernotasuna eta aitzindaritzaren soziala, euskararen mesedetan. Eta bistan da, bilaketa horretan Goiena aurrean doa.

BUKATZEKO



Juantxo Aranes, Txus Iglesias, Gorka Manso, Jon Ander Garitano, Alberto Sanmaniego eta Bea Zeziaga doaz. E.A.

Elkartasun maratoia egingo dute Saharan

Otsailaren 25ean hiru distantziatako lasterketak egingo dituzte Saharan eta Igam taldeko sei lagunek 42 kilometrokoa aukeratu dute. Kamisetekin eta txartelekin batutako dirua kanpalekuetan bizi diren sahararrendako izango da

Oihana Elortza BERGARA

Bergarako eta Antzuolako sei lagun Saharako maratoia egitera joango dira otsailean eta batutako dirua hango kanpalekuetan bizi direnendako izango da. Korrika egitea gustuko dute Igam taldeko kide horiek, eta ez da elkartasunagatik egiten duten lehen lasterketa izango; 2014an, Intermon Oxfam guber-

nuz kanpoko erakundearen Gironako Trailwalker lasterketan parte hartu zuten.

Otsailaren 25ean izango da 42 kilometroko lasterketa eta dagoeneko hasi dira prestatzen. "Bost eta hamar kilometroko lasterketak ere egingo dira, baina guk luzeena egitea erabaki dugu, maratoia. Korrika egiten ohituta gaude, baina ez Saharan

bezalako zoru gainean eta tenperatura horietan. Bero egin duen egunetan arratsaldeko lehen orduan joan naiz korrika egitera, adibidez, berora ohitzea, baina han ez da berdina izango", dio Jon Ander Garitanok. Nork bere prestaketa propioa egiten du. "Domeka goizean elkartzeko gara denok elkarrekin entrenatzeko, baina aste

barruan nork bere saioak egiten ditu", argitu du. Hemendik otsailera egingo diren distantzia luzeetako lasterketan parte hartzeko asmoa dute batzuek, entrenamendu modura. Lasterketa elkartasun maratoia izango dela azpimarratu du, eta denborak ez duela garrantzirik izango: "Erabaki dugu elkarrekin egitea lasterketa eta seiok batera sartzea helmugara. Poliki dabilenaren eritmorra joango gara denok".

Dirua lortzeko, kamisetak eta txartelak atera dituzte. "600 kamiseta baino gehiago atera genituen eta dagoeneko 100 pasatxo gelditzen zaizkigu. Txartelak ere martxa onean ari gara saltzen. Azaroaren 5ean egingo den Soraluze-Bergara herri lasterketan egingo da zozketa", zehaztu du Jon Ander Garitano bergararrak.

gama altuko
2 mō betaurreko
progresibo
197€

www.multioplicasgipuzkoa.com

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.